



## "Aspaldiko parke onena da"

Gaur inauguratuko dute Aretxabaletako skate parke berria;  
Arraska taldekoek diote aspaldian inguruan  
egin duten txukunena dela / 14

Inauguratu aurretik ere gazte asko ibili da egunotan skate parkean; erretratuan bi lagun saltoak egiten, martitzen eguerdian.

XABIER URZELAI

# Errege desfileekin, agur Gabon jaiei

Gaur iritsiko dira Errege magoak eskualdeko udalerrietara, arratsalde-iluntze partean, euren karroza ikusgarriekin eta zaku bete opari / Ikus 'Herriak' saila

**Ordainduk eta Eskuratuk jarritako demandaren epaiketa aurreko entzunaldia, urtarrilaren 24an** / 2

**Eskualdeko merkatariek dagoeneko jaitsi dituzte prezioak, beharpenen atarian** / 4

**Otsailaren 19an egingo dute azkeneko aldiz Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketa** / 23

**Gabonetan eskualdean egindako kirol jardueren gaineko errepasoa, argazkitan** / 29

### SINADURAK

	MAIALEN MADARIAGA / 19
	XABIER MUGARTZA / 6
	ANTONIO DEOGRACIAS / 22
	ANDONI ELEJALDE / 13
	ANDER ETXEBERRIA / 40

Ubane Madera DEBAGOIENA

Urtarrilaren 24an, martitzena, 10:30ean, Bergarako Lehen Auzialdiko Epaitegian, epaiketa aurreko entzunaldia dute Ordaindu eta Eskuratu plataformetako eta Mondragon Korporazioko abokatuek. "Lehenengo, bi aldeen arteko akordioaren alde egingo da. Probak aurkeztu beharko dira, eta beste gai juridiko batzuk landu. Akordiorik ez bada, epaiketarako eguna zehaztuko da", esplikatu du Ordaindu plataformak, borondatezko ekarpenak Fagor Etxetresnetan (FEE) izan eta haren eta Edesaren itxieraren ondoren ekarpen horiek erreklamatzeko korporazioaren kontrako demanda jarri duen plataformetako batek.

**Zelan zaudete epaiketari begira?**

Ana Iriarte: Itxaropentsu. Uste dugu arrazoia dugula, eta aurrea egingo dugu.

Naiara Herrero: Nahikoa atzeratu da epaiketa aurreko entzunaldia. 1.000 kaltetu gara (600 pasa Ordaindukoak eta 300 pasa Eskuratukoak) eta 47,8 milioi euro erreklamatu dizkiogu Mondragon Korporazioari, bi kooperatiben porrotak eragindako kalte-galerengatik.

**Zein izango da zuen defentsa?**

N.H.: Gure demanda oinarritzen da honako maximo juridiko honetan: kaltea eragin duena da ondorioen erantzule. Kasu honetan, Mondragon Korporazioak eragin duen kaltearengatik erantzun egin behar du. Susmoa dugu egin zutela ahal izan zuten guztia denbora batez Fagor Etxetresnak artifizialki bizirik mantentzeko, jakinda ixteko egoeran zegoela, estrategia bat landu eta baliorik handiena zuten aktiboekin geratu ahal izateko: San Andresko eta Garagartzako plantak eta markak. Uste dugu Mondragon Korporazioak lehentasuna eman ziola bere ondare propioa babesteari bazkideen interes legitimoen aurrean. Guk erabateko konfiantza geneukan belaunaldien arteko interkooperazio eta elkartasun idealengan, Mondragon Korporazioak berak erakutsi zizkigunak, eta sekula ere ez genuen pentsatuko horrela engainatu eta abandonatuko gintuztenik.

**Hortaz, jarraitzen duzue pentsatzen engainatu egin zintuztetela?**

N.H.: Bai, noski. Erabateko konfiantza geneukan. Gainera, Fagorren eta Mondragon Korporazioaren arteko harremana ez zen korporazioa osatzen duten bes-

# "Fakturazioaren %0,5 da gure erreklamazioa"

**NAIARA HERRERO RUIZ DE VIÑASPRE ETA ANA IRIARTE** ORDAINDU-KO KIDEAK  
Urtarrilaren 24an, Bergarako epaitegian epaiketa aurreko entzunaldia izango dute Ordaindu eta Eskuratu plataformetako eta Mondragon Korporazioko ordezkariak



Naiara Herrero Ruiz de Viñaspre eta Ana Iriarte, Ordainduren egoitzan. UBANE MADERA

telako kooperatiben artekoa modukoa. Gure artekoa oso-oso estua zen. Korporazioak esaten zuena sinistu eta bete egiten zen. Haiak ziurtatzen bazuten Fagor ez zebilela txarto eta sostengu ekonomikoa emango ziotela, eta hori da azken unera arte esan zigutena, guk hori sinistu egin genuen eta horregatik ez genuen erretiratu eman genien babes ekonomikoa. Esan behar da elkarteko kideek batez beste 40 urtez lan egin dutela kooperatiban, eta bizitza osoko aurrezkiak direla bertan utzitakoak.

A.I.: Eta gainera, gertatutakoak gertatuta ere, kooperatibista gara sentitzen jarraitzen dugu.

**Goiena telebistak eta Puntua-k FEE kasuaren ondorengoko erreportajea kaleratu zuten; tartean, ahots kritiko batzuk zeuden zuen jarrerarekiko. Nola hartzen dituzue kritika horiek?**

N.H.: Alustizak dioena da eurak kooperatibetako langileei esaten dabiltzana: guk demanda bat jarri dugula eta eurak (langileak) direla demanda horri erantzun behar diotenak. Guk ez diogu inolako demandarik jarri ez langileei eta ezta Fagor Taldeko

enpresei ere. Demanda jarri diogu Mondragon Korporazioari. Engainatu egin gintuztela sentitzen dugulako. Helarazten zizkiguten mezuek ez zuten batere zerikusirik errealitatearekin: esaten ziguten ez zutela sekula kooperatiba erortzen utziko, babes ekonomikoa emango zigutela... Orain esaten dabiltzana da kalte ekonomiko handia eragin behar diegula; eta gure demanda handia da, bai, kaltetu asko garrelako, baina argi dugu Mondragon Korporazioarendako ez dela inolako arazo ekonomikoa. Mondragon Korporazioa talde enpresarial bat da, urtean 11.500 milioi euro fakturatzen dituen, eta gure erreklamazioa da zifra horren %0,5. Portzentaje barregarria da, inolako kooperatibaren porrotik eragingo ez duena. Gogorra ekarri behar da Mondragon Korporazioa elikatzen dela itzuli beharrik gabeko %5arekin eta dibisio enpresarial bakoitzak ematen dion beste %5arekin. Ez gabilta eskatzen langileek dirua ipintzea. Hori da Mondragon Korporazioa eta Fagor Taldea esaten dabiltzana. Hori ez gabilta eskatzen, ezta gutxiago ere. A.I.: Ni FEE-en barruan zegoen Geysarren lanean nengibilen. Geysarren plantaren egoera ona zen. Han helarazi zizkiguten mezuak ziren ez zela zorra birfinantzatzeko arazorik izango, mezu positiboak ziren; esaten ziguten: "Lasai, nobia asko daude. Bada-kigu inbertitzaile baten beharra dugula, baina lasai...". Seguru aski, hozkailuen planta itxi egin beharko zela, Garagartzako lerro batzuk kendu, alde aurreko erretiro batzuk egin jendea soberan

zegoelako... eta bideragarritasun plan horretarako izango zirela emango zizkiguten 70 milioi euroak. Hori guztia pikutara joan zen gero.

N.H.: Baina 70 milioi euroko bideragarritasun planaren truke Mondragon Korporazioak berak eskatu zigun ez erretiratzeko borondatezko ekarpenak, ez erretiratzeko gure aurrezkiak.

A.I. Nik katean lan egiten nuen, ilusioz, gustura, pozik. Ikusten nituen lankide batzuk, akaso, lekuz kanpo... baina, orokorrean, uste nuen jende ona zela, eta esaten zuten horretan sinistu egiten nuen. Ni engainatuta sentitu nintzen eta orain ere engainatuta sentitzen naiz. Halako multinazional baten batzar orokorrean ematen den datu mordoakarekin eta egiten zuten ingeniari finantzarioarekin, ez zara ezerekin ere aklaritzen; ni neu ez, behintzat. Baina Gisasola jaunarekin fidatzen nintzen, gure presidente izan zena eta orduan Mondragon Korporazioan zegoena.

**Entzun zen orduan, baita ere, interes ekonomikoarengatik zeneukatela dirua sartuta kooperatiban...**

A.I. Edesa eta Fagor itxi aurretik kobratu genituen interesak %4koak izan ziren. Orduan banketxeek ematen zituzten interesak baino puntu bat gehiago zen. Eta ez genituzkeen gure aurrezkiak bertan izango uste izan bagenu diru hori arriskuan zegoela. Kooperatibari onura egiten genion, autofinantzaketarako modu bat zelako.

**Epaiketa egin eta epaia zuen kontrakoa bada, zer?**

N.H.: Borrokan segituko dugu. Uste dugu gure eskaera bidezkoa dela. Jendeak zer egingo luke egun batetik bestera norberaren aurrezkiak gordeta dituen bankua itxi eta dirua kenduko baliote? A.I. Ez dugu galtzeko asmorik, eta galtzen badugu, errekurritu egingo dugu.

**Eta hala eta guztiz ere, kooperatibista sentitzen segitzen duzue?**

A.I. Bai, eredu horretan sinisten dugu. Nik familia dut bertan lanean, Eroskin erosten dut eta dirua Laboral Kutxan dut.

**"MONDRAGON KORPORAZIOAK BERAK ESKATU ZIGUN EZ ERRETIRATZEKO GURE AURREZKIAK"**



Osasuna babesteko neurri bezala, azukredun edarien prezioek gora egingo dute 2017an. XABI GOROSTIDI

# Prezio batzuek gora egin dute urte berriarekin

Urte aldaketarekin batera, prezioek ere gora egingo dute hasi berri den 2017an. Batez ere, gas naturala, autobideak, alkoholdun eta azukredun edariak eta tabakoa dira igoera handienak jasan dituzten produktu eta zerbitzuak

## Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

2017. urtean sartu berri eta urte aldaketarekin batera ohikoa den moduan, zerbitzu ugari prezioak eguneratu dituzte. Horren ondorioz, gas naturalaren, autobideen, edari alkoholdunen, freskagarrien eta tabakoaren prezioek gora egin dute.

## %3,5eko igoerak

Gas naturalari dagokionez, %3,5 igoko da tarifa 2017ko lehen hiruhilekoan. Izan ere, gasaren prezioa hiru hilean behin eguneratzen da.

Bidegik ere eguneratu ditu tarifa berriak. AP-1 eta AP-8 autobideetan, Gipuzkoako zatian, kanona %3,5 igo da eta igoera hau Abiatu gailua dutenei ere aplikatuko zaie. Hilero, gehienez, 29,43 euro ordainduko dute Gipuzkoako zatiak erabiltzeagatik.

Tabakoaren eta zenbait edariren prezioak ere garestitu dira. Tabakoari dagokionez, tasen igoeraren ondorioz, tabako pakete baten prezioa 10 zentimo

garestiagoa izango da marka gehienetan, eta gainontzekoetan 5 zentimo igoko da prezioa.

## Azukredun edariak, garestiago

Edariei erreparatuta, graduazio handiko alkoholdun edariez gain, azukredunen prezioak ere gora egingo du. Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutako tasa horren bitartez, Espainiako Gobernuak zerga bidez 200 milioi euro biltzeko asmoa du. Alkoholdunei dagokionez, ardoa, sagardoa eta garagardoa izan ezik, gainontzeko edariei eragingo die prezio aldaketak, eta freskagarri guztiei ere bai. Hala ere, oraindik ez dute esan igoera zenbatekoa izango den.

“Gobernuak tasak igoko ditu. Graduazio altuko alkoholdun edariez gain, azukredunei ere eragingo die igoera horrek. Gure hornitzaileek ez dizkigute oraindik prezioak igo; beraz, gureak bere horretan mantentzen ditugu oraingoz”, azaldu du Kajoi tabernako Antonio Murillok.

## Petrolio ere garestiago

Bestalde, petrolioaren prezioa garestitu arren, gasolindegietan ez da aparteko gorabeherarik izan urte aldaketarekin. Izan ere, upela erosten den momentuan upelak berak daukan prezioak baldintzatzen du hori.

“Guk ez dugu igoerarik igarri urte berria etorri izanagatik. Igoera upelak erosteko momentuan igartzen dugu. Mozkin marjina dugun bitartean ez dugu preziorik igotzen”, adierazi du Jasone Martinezek, Meca gasolindegiko arduradunak.

Martinezek esanetan, 2016ko urtean apur bat gora egin dute prezioek, baina, oro har, mantendu egin direla azpimarratu du. Bestalde, gasolinak gasolioa baino gorabehera handiagoak izaten dituela adierazi du.

Azkenik, urak, argindarrak eta halako zerbitzuek ez dute aldaketarik izango estatuaren zergengatik, baina ez du esan nahi enpresa kudeatzaileek prezioak igoko ez dituztenik.

## %9,9ko langabezia tasarekin amaitu da 2016a

Abenduko datuen arabera, 3.009 langabe daude Debagoiengan, azaroan baino 26 gehiago

## Josu Bilbao DEBAGOIENA

2015a %11ko langabezia tasarekin bukatu zen (3.298 langabe), eta 2016a %9,90ekoarekin (3.009 langabe). Puntu bat baino gehiago jaitsi da, beraz, 12 hilabetetan. Herriz herri begiratu gero, Leintz Gatzagan 7 langabe mantendu diren arren, beste guztietan behera egin du nabarmen langabeziak 2016an.

Azaroko datuekin alderatuta (2.983 langabe eta 9.81eko langabezia tasa) abenduan gora egin duen arren, 2016ko bigarren daturik onena utzi du.

## Herriz herri

Herria	Langab.	%
Antzuola	68	%6,12
Aramaio	17	%2,25
Arexabaleta	282	%8,21
Arrasate	1.339	%12,8
Bergara	691	%9,56
Elgeta	46	%7,97
Eskoriatza	191	%9,40
Leintz Gatzaga	7	%5,07
Oñati	385	%7,08
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.009</b>	<b>%9,90</b>

ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

## Tabakoa erretzen uzteko ikastaroa Bergaran

Urte berriarekin batera, bizi-modu osasuntsuarekin erlazionatutako helburu eta erronka zaharrak ohikoak izaten dira.

Bada, erretzaileak direnek eta adikzio hori behingoz alde batera utzi nahi dutenek Bergarako Osasun Zentroak antolatutako duen ikastaroan izango dute helburu hori lortzeko aukera interesgarri bat.

## Bost saiko doako ikastaroa

Urtarrilaren 26tik aurrera, ostegunero egingo dituzte saioak Bergarako Osasun Zentroan bertan. Guztira bost saio izango dira, 17:30etatik 19:00ak arteko ordutegiarekin. Jose Ramon Bardeci eta Arantzazu Garitano erizainak izango dira ikastaroa emango dutenak. Edozein pertsonak har dezake parte, eta ez du inongo kosturik izango. Plaza mugatuak dira, baina oraindik lekua dago. Osasun Zentroa deituz eman daiteke izena.



HARREMAN

## Harremanen otarrearekin pozik

Urtero bezala, bidezko merkataritzako produktuen otarre bat zozketatu dute Harreman dendakoek abenduan izan dituzten erosleen artean. Aurten Isabel Arregi izan da otarre elegante hori jaso duena. Harreman denda elkarteak eskerrak eman dizkiete istorio duin bat duten produktuak kontsumitzen dituztenei, merkataritza justuagoa babesteagatik.



Deskontuak Arrasateko denda baten. MIREN ARREGI

# Jaitsi dituzte prezioak, beherapenen atarian

Beherapenak ofizialki urtarrilaren 7an hasiko badira ere, merkatariek dagoeneko jaitsi dituzte produktuen prezioak. Bailarako merkatarien elkarteek, beherapenetan jarrita dute esperantza; izan ere, herri gehienetan Gabonetako kanpaina apala izan da

## Miren Arregi ARRASATE

2016ko uztailean Espainiako Auzitegi Konstituzionalak merkealdiei buruzko epaia eman ondoren, denda bakoitzak gura duenean ipini ditzake beherapenak, betiere aurrez Eusko Jaurlaritzan jakinarazi ondoren. Debagoieneko merkatariek, baina, orain arteko legedia betetzen jarraituko dute, Dendarteaneak, Gipuzkoako Merkatarien Bazkudeak, egindako proposamenari jarraituz. Hau da, beherapenak ofizialki urtarrilaren 7an, zapatuan, hasiko dira, eta martxoaren 7ra arte iraungo dute.

## Deskontuak dendetan

Beherapenak ofizialki etzi, zapatua, hasiko badira ere, dagoeneko Debagoieneko erakusleihoetan deskontuak ikus daitezke. Hori da, besteak beste, Arrasateko, Bergarako, Oñatiko eta Aretxabaletako hainbat komertzioen kasua. Une honetan askok eta askok deskontuak dituzte euren produktuetan. Gabonetako kan-

painarako ere ipini dituzte deskontuak. Horiek, oraindik, %20 koak dira, bereziki. Urtarrilaren 7tik aurrera, %30eko, %40ko eta %50eko deskontuak ipiniko dituzte. "Urtarrilaren 7an hasiko gara %30eko deskontuekin. Hamabost egunera, %50era igoko ditugu", adierazi du Bedelkarreko Ainhoa Garitanok. Bide beretik egin du Aretxarteko Idoia Elexpuruk: "%50era arteko deskontuak ipiniko ditugu. Beherapen garaia nahiko ona izaten da eta egunotan egiten ari den hotza ona da guretzat, jendeak beroak, eta abar erosten dituelako".

## Gabonak apal

Gabonetako kanpainaren gainean galdetuta, merkatariek nahiko

**ITXAROPENTSU DAUDE MERKATARIAK BEHERAPENEN ZAIN, GABONAK OSO APAL JOAN BAITIRA**

keztatuta azaldu dira. Horrela berba egin du Oñatiko Txandak Elkarteko Juan Carlos Aranburuk: "Abenduko lehenengo asteak ez dira hain txarrak izan salmentei dagokienez, baina, Gabon sasoia nahiko apal joan da. Eskaintza bereziak ere ipini ditugu baina horrek ere ez du salmenten igoera ekarri". Arrasateko Ibaiarteko ordezkarien arabera ere, tristea izan da Gabon garaia. "Internetek kalte handia egin digu, ea beherapenetan zerbait hobetzen den". Hori bera nabarmendu du Bedelkarreko Ainhoa Garitanok. "Internet bidez asko saltzen da eta horrek kalte egiten digu. Gabonetan beste urteetan baino gutxiago saldu dugu", adierazi du bergararrak.

Zapatuan hasiko diren beherapenei begira, itxaropentsu daude merkatariek. "Beherapenen sasoia Gabon kanpaina baino hobea izatea da gure nahia, ez dadila, behintzat, hain apala izan", adierazi du Txandako Juan Carlos Aranburuk.



Sariketaren une bat. GOIENA

## MUko bi ikasle talderen proiektuak saritu dituzte

Estia Ingeniaritza Eskolaren Berrikuntzarako 24 ordu lehiaketan saritu dituzte MUko bi taldeak

## M.A ARRASATE

Epaimahaiaren Sari Berezia eta Ekodiseinu bereizgarriaren Saria eskuratu dute MUko Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzako graduako talde bik.

## Sari Berezia

Epaimahaiaren Sari Berezia, Drop N'Go deituriko taldearendako izan da, Technoflex enpresak planteatutako izen bereko proiektuari esker. Ikasleek 24 ordu izan zuten ospitaleetan erabiltzen diren serum-poltsak berriz diseinatzeo. Proposamenaren

asmoa: serum-poltsen ekoizpena eta biltegitratzea hobetzea, errazago eta segurtasun handiagoz erabiltzeko eta alferrik galtzea saihesteko.

## Ekodiseinu Bereizgarria

Korapilo taldeak garatutako Hari'Up proiektuak jaso du Ekodiseinu Bereizgarriaren Saria. Talde horren erronka, Up Cycling-ean oinarritutako berrera-biltze-prozesua diseinatzea izan zen; hau da, dagoeneko baliorik ez duten objektuak, erabilera edo balio handiagoko material bihurtzeko prozesua diseinatzea.

## Lurren gehiegizko klausularen epaia begi onez ikusi du

Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformak begi onez ikusi du lurren gehiegizko klausularen gaineko epaia. "Europar Bata-suneko auzitegi judizialak ha-maikagarren zartada historikoa eman die espainiar bankuetan iruzurrari, hori laga duten gobernuetara eta hori lausotu duten eta bankuak babestu dituzten epaitegiei", azaldu du Kaleratzeak Stop plataformak. "Oinarrizko eskubideak eta, batez ere, etxebizitzarako eskubidea babestu behar direla argi utzi du honek, beste behin. Justizia auzitegiak iruzurra egin dietenei eman die arrazoia eta klausula bidez lapurtutako itzuli behar dela baieztatatu du", gaineratu du .

## Sei ikastaro antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak

Langabetuendako edo lana aldatu gura dutenendako ikastaroak dira, urtarril eta martxo bitartean egingo direnak. Ikastaroek 3 orduko iraupena izango dute, 9:30etik 12:30era bitartean egingo dira. *CV eraginkorra sortu* delako ikastaroa urtarrilaren 13an eta martxoaren 31n egingo dira; *Lan elkarriketetan trebatu* izenekoa, urtarrilaren 27an; *Hautaketa prozesu bat bizi*, otsailaren 10ean egingo da eta *Lan munduan genero desberdintasunak identifikatu*, berriz, otsailaren 24an. *Hautaketa pro-gak: psikoteknikoa* da antolatu duten azkena. Martxoaren 17an egingo da hori. Informazio gehiago, 943 79 33 99 telefonon.



Aretxabaletako Urkulu urtegia, astelehen goizean. AMAIA TXINTXURRETA

# lazko itxura berbera du Urkuluk urte hasieran

Izotza, tenperatura baxuak eta euri gabezia izan dira protagonista neguaren lehen asteotan. Aretxabaletako urtegiaren betetze maila %63tik beherakoa da eta alerta egoera ezarri dute, Gipuzkoako beste hainbat urtegitan bezala

## Mirari Altube ARETXABALETA

Antizikloia izan da protagonista urtearen bukaeran eta hasieran, eta, horren eraginez, tenperatura baxuak, izotza eta euri gabezia izan dira neguaren lehen egunetan.

Gabon egunean, abenduaren 24an, busti zituen zirimiriak bazterrak, baina hurrengo ha- maika egunetan ez du tantarik

bota. 2015aren bukaera eta 2016aren sarrera oso antzekoak izan ziren, eta Urkulu urtegiak orduko itxura berbera dauka. Debagoieneko eta Debabarreneko hainbat herri, guztira 65.495 biztanle, asetzen dituen urtegiaren %62,77 zegoen beteta atzo, urtarrilak 4. Horregatik, alerta egoera ezarri diote Ur Kontsortzioko arduradunek;

ekainetik zegoen aurre-alertan eta ordutik ez da egoera normalera itzuli. Iaz ere antzera zegoen urtarrilaren hasieran (%63,62), eta handik aste gutxitara egindako euri jasei esker laster egin zuen gora mailak. Hori horrela, arduradunak ez dira kezkatuta agertu, negua izanik, hilabete euritsuak dau- delako aurrez aurre.

## Baserrietan erabilitako plastikoa batzeko egutegia zehaztu dute

Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak jakinarazi du eta bilketa lekua aldatzeko telefonoz jakinarazi behar da

### M.A. DEBAGOIENA

Baserrietan erabiltzen duten plastikoen bilketa egunak da- goeneko zehaztu ditu Debagoie- neko Landa Garapen Elkarteak 2017rako. Hainbat herritan egun zehatza izango dute eta beste

batzuetan telefonoz deitu behar- ko da eskaera egiteko.

Jasoko dituzten plastiko motak honako hauek dira: siloa estal- tzeke eta belar boletan erabiltzen den plastiko beltza; negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko era-

biltzen den plastiko beltza; eta negutegiko plastiko zuria. Plas- tikoak sokak, osterak, ez dituz- te jasoko.

Bilketa lekuak aurrez zehaz- tutakoak dira: Eskoriatzan: Za- rimutzeko bidegurutzea; eta Aretxabaletan: Lausitta kalea -Izurietako bidegurutzetik 100 metrora-, Bainuetxea eta Oroko bidegurutzea. Antzuolan: ekar- pen gunearen alboan; Oñatin: Zañartun -Zuazola inguruan-; Murgialdain -Asentsio ermitan-; Olabarrietan -autobus geltokian-,

eta musika eskola gainaldean. Eta Bergaran: Ugarrixa, Mui- nondo -trenbide ondoan- eta San Juan auzoko eliza aurreko plaza. Horietako lekuren bat aldatu gura izanez gero honako telefono zenbakira deitu behar da: 943-76 25 47.

Arrasatera -Udala, Bedoña eta Garagartza auzoak-, Leintz Ga- tzagara -Dorletako bidegurutzea-, Bergarako Elosu eta Santutxu auzoetara eta Elgetara noizbehin- ka joango dira aurrez telefonoz eskaera eginda.

## Urtegien betetze maila

URTEA	%
2017:	62,77
2016:	63,62
2015:	80,19
2014:	89,65
2013:	76,47

### Beste batzuetan (2017an)

URTEGIA	%
Aixola (Elgeta):	80,00
Barrendiola (Legazpi):	80,24
Lareo (Ataun):	64,26
Ibai Eder (Azpeiti):	47,55
Arriaran (Beasain):	44,20
Ibiur (Ikaztegieta):	67,22

ITURRIA: GIPUZKOAKO UR KONTSOZIOA

## Egunotako tenperaturak

Urkuluko (Aretxabaleta) estazio meteorologikoan Euskalmet agentziak jasotako datuak.

### Temperaturak

	Min.	Max.
Urtarrilak 4:	-3,0	10
Urtarrilak 3:	-1,5	11,9
Urtarrilak 2:	-2,2	7,5
Urtarrilak 1:	-2,5	6,4
Abenduak 31:	-1,4	8,9
Abenduak 30:	-2,2	11,0
Abenduak 29:	-0,9	13,1
Abenduak 28:	2,4	17,5
Abenduak 27:	2,1	12,4
Abenduak 26:	4,6	9,1

ITURRIA: EUSKALMET

Antzekoa da Gipuzkoako bes- te hainbat urtegiaren egoera. Ibai Eder (Azpeiti) eta Lareo (Ataun), esaterako, larrialdi egoeran dau- de eta Arriaran (Beasain) alertan, Urkulu bezala.

### Gatza botatzen hainbat herritan

Euri gabeziarekin batera zero- peko tenperaturak izan dira na- gusi azken egunotan eta izotzak zurituta esnatu dira goiz askotan Debagoieneko bazterrak. Horre- gatik hainbat herritan bota dute gatza han edo hemen. Antzuola eta Bergara arteko gasolindegi inguruan, esaterako, bota dute- la azken egunotan jakinarazi dute Bergarako udaltzainek, baita herriko beste hainbat le- kutan ere garbitzaileek. Horrez gain, Ubera eta Angiozarko ba- serri inguru batzuetan gatz za- kuak utzi dituzte. Oñatin 25 kilotako bina zaku banatzen hasi

dira baserriarrei, eta beharra ikusiz gero kaleetan ere botako dutela jakinarazi dute. Eta Aretxabaletan Deba ibaia zeharka- tzeke dauden egurrezko zubietan bota dute. Herriko iturri pare bat, gainera, hondatu egin dira eta ura moztu dute gehienetan, negua pasatu artean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere aldetik, Neguko Bidezaintza Plana du abian. 2,5 milioi euro- ko aurrekontuarekin elurra kentze- ko 80 kamioi, hamabi ibilgai- lu arin eta 8.100 tona gatz au- rreikusit dituzte.

Aurten, gainera, eskualdekako aurreikuspen meteorologikora- ko sistema jarri dute abian. Erre- pideetan dauden estazio meteo- rologikoetatik aterako dituzte datuak, eta, horrela, informazio zehatzagoa eskuratu. Gatza on- tiz aldatzeko errendimendu handiko ekipa bat ere badute.

## Bilketa egunak

- Urtarrilak 24
- Otsailak 28
- Martxoak 28
- Maiatzak 23
- Uztailak 18
- Irailak 26
- Urriak 24
- Azaroak 28
- Abenduak 26



ZABALIK

XABIER MUGARTZA

## Errealitatearen errelatoa

Bada denbora bat herri honetan azken 40 urteetan gertatukoaren errelatoaren gaiaren inguruan iritzi eta hausnarketa desberdinak entzuten ditugula.

Badaude errelato bakarria izatea nahitaezkoa dela diotenak, baita bakarria izateak ezer onik ez dakarrela diotenak ere.

Pertsona beste errelato egongo direla da nire ustea, bakoitzak bere egoeraren araberako pertzepzioa baitauka gertatutakoaren inguruan.

Hori horrela izanda ere, badaude adostasun batera iritzi beharreko hainbat puntu:

GALen ekintzak gaizki egon zirela ia guztiok onartuko dugu Euskal Herrian; ETaren ekintzak gaizki egon zirela ia guztiok onartuko dugu Euskal Herrian.

Ez al dira errelato horietan guztietan onartu beharko liratekeen bi gai?

### GARRANTZITSUA DA NORBERAREN PORTAERA ETA JOKABIDEAK AUZITAN JARTZEA

Eta hau ez da errelato bat baino gehiago egotearen kontrakoa. Garrantzitsua dena, nahitaezkoa esango nuke, bakoitza bere buruarekin sinzeratzea, norberaren portaera eta jokabideak auzitan jartzea.

Eta sinzeratze horretan, ezin da damua marra gorri bezala ipini, damutzen ez bagara berriro egingo genukeela aitortzen dugulako nolabait.

Damua marra gorri bezala ezartze horrek hausnarketa prozesu horren mugatze ikaragarria dakar berarekin, prozesu hori behar bezala egiteko behar-beharrezkoa den askatasun indibidualaren lotesle bihurtzen baita.

Analogia batekin bukatu nahiko nuke: *bullying* kasuetan, eragileak, jazarpena pairatzen duenak, eta *barreratik* begiratzen dutenak, era ezberdinean jasoko dute gertatutakoaren errelatoa, baina guztiok adostu beharko genuke gertatzen diren jokaera objektiboki okerrak.

Ariketa hasteko, kokatu gaiten bietan.

Egoera horiek ezagutu ez dituzten haur eta nerabeei garbi adierazi behar zaie portaera batzuk okerrak izan zirela *per se*. Guztion errelatoetan egoera eta ekintza okerrak izan direla onartzen badugu, zailagoa izango da berriro hauek errepikatzea.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



### BANKUTIK PASA NINTZEN EGUTEGI BERRIAREN BILA



## ZEUK ESANA

### Aitatasun-baimena lau astera luzatu du Espainiako Gobernuak; zer diozu?

JASONE

DEBAGOIENA

Oso ondo iruditzen zait! Bazen garaia! 2011 urtetik zebiltzan gaiari bueltak ematen...

AITA TASUN

DEBAGOIENA

Ba, ederto dagoela luzatze hori. Hau da, kontziliazioa hobetzeko hartzen diren erabaki guztiak dira ongietorriak.

Orain artekoak oso gutxi laguntzen zuen, eta aitatasun-baimena lau astera

luzatuta, bikoteak errazago eramango ditu aurrera lehenengo asteak, horiek izaten dira-eta gaitzenak.

Bikotearentzat bakarrik ez... umearentzat ere mesede handia da aita ondoan izatea lehenengo hilabeteetan.

AIMAR DEFONDO

ONATI

Aitak zenbat eta denbora gehiago pasatu ume jaioberriarekin, orduan eta onuragarriagoa familia osoarendako. Ez amarendako

bakarrik... hortxe sartzen ditut aitaita-amamak, haiek ere lana beltz izaten dute-eta bilobekin.

Baina pauso bat besterik ez da horrenbeste jenderen ahotan dagoen kontziliazioa lortzeko. Espainiako Gobernuak hartu duen erabakiak ez du arazoa konponduko, baina aurrerapauso bat dela esan daiteke; Europako herrialde aurreratuenen parera jartzeko asmoarekin egingo zuten, agian, baina argi dago lekutan daukala herrialde batzuen maila Espainiak... Hala ere, oraingo erabakia ona da.

### HURRENGO ZENBAKIAN: FUTBOLEAN TEKNOLOGIA BERRIAK ERABILTZEAREN ALDE ZAUDE?

Iritzia emateko posta elektronikoa: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) / Webgunea: [goiena.eus](http://goiena.eus).

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.  
Erredaktore burua  
Ubane Madera.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,  
Monika Belastegi, Goiatz Arana.  
Zuzendari komertziala  
Mireia Larrañaga.

#### Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber  
Aranburuzabala (Kultura),  
Leire Kortabarria (Ekonomia).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin, Imanol Elortza,  
Jokin Uribeetxeberria.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua:

SS-965/2014  
ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## PROTAGONISTA

# "Nork bere zorientasunaren mapa propioa dauka"

JUANMA QUELLE IDAZLEA

Mireia Bikuña OÑATI

Enpresa publikoetako eta pribatuak zuzendari komertziala izan ostean, 2014ko uztailaren 31n lana utzi zuen. Estresaren ondorioz hartutako bost hilabeteko bajaren ostean, bere bizitzaren norabidea aldatzea erabaki zuen. Hainbat hilabetetan hausnartutakoa *Emprende el viaje mas importante de tu vida* liburuan jaso du Juanma Quelle oñatiarrak.

**Liburuaren lehen edizioa hilabete baten agortu da Espainian eta Latinoamerikan. Arrakasta handia.**

Egia esan, ez nuen halakorik espero. Grupo Planetak publikatu du eta dagoeneko hasi dira bigarren edizioa prestatzen.

**Zorientasunaz berba egiten duzu bereziki. Zergatik?**

Zorientasuna noiz iritsiko zaigun pasatzen dugu bizitzaren zati handiena. Hori bilatzeko egiten dugu lan. Kontziente izan behar dugu



Juanma Quelle, liburua eskuetan duela. JUANMA QUELLE

zorientasuna landu egin behar dugula. Nork bere zorientasunaren mapa dauka. Bakarra. Ezberdina. Zorientasuna ez da berdina guztiondako. Eta zorientsu izateko denbora hartu behar

dugu. Deditazioa behar du eta landu egin behar da.

**Deditazio aktiboa, konstantea eta kontziente izan behar dela diozu liburuan.**

Bai. Konstantea, etengabe landu behar delako; bestela,

galdu egiten da. Aktiboa, guk joan behar dugulako zorientasunaren bila. Eta kontziente, sentimendu horren jakitun izan behar dugulako.

**Nori gomendatuko zenioke liburua?**

Edonori. Une honetan aldaketa prozesu batean dagoen edonori. Erraz ulertzeko moduan idatzi dut liburua. Helburua da ahalik eta jende gehiagorengana heltzea. Horretarako, sentimenduz baina era ulergarrian idatzi beharra dago.

**Eta, aldaketa hau guztiau, stresaren ondorioz izandako baja bategatik.**

Zuzendari komertzial lanak egin ditut beti. Enpresa handietan eta langile askorekin. Baina, egun, gurpil baten gainean bizi gara. Oso azkar. Eta horren ondorioz, baja hartu behar izan nuen. Bost hilabete egon nintzen hankak mugitu barik. Aulki baten eserita.

Tarte hartan, denbora libre handia izan nuen, eta hausnarketa sakonak egiteko aukera ere bai. Zirriborro batzuk egin nituen lehenengo. Gogoetarako hausnarketak. Ostean, horiek jendearen eskura ipintzea posible zela ikusi nuen.

## HAU BE BADOGU!

**Euskal Selekzioa jarraitzen, 15.000 eskas**



"Zelaira ateratzean tristura sentitu dugu", esan zuen Aritz Adurizek partida ostean.

@jaloniker: "Zer pentsatu ematen duen argazkia... #Ofizialtasuna eta aurrerapausoak behar ditugu, ez beste partida aspergarri bat! #euskalselekzioa".

@enekogara: "Euskal Selekzioari bai, patxangari ez. Iruzurrari ez, #ofizialtasuna-ri bai, #euskalselekzioa"

**Urteko lehen egunetan, izotza nagusi**



Aramaion, batez ere, izotzak bazterrak zuritu dituelako irudi ederrak atera dituzte sare sozialetako hainbat erabiltzailek. Argazkia, Jose Luis Madina aramaioarrak txiokatutakoa:

@madinajl: "@Euskalmet Orixol, goizean -3°C, Aramaio".

@liherlarrea: "Ze argazki politak oparitu dizkigun gaurko egunak. #UrteBerriOn #Aramaio ingurua beti bezain ederra @Euskalmet".

**#SalatzenDut, urteko lehen 'trending topic'-a**

Urtarrilaren 14ean Bilbon egingo duten presoen eta iheslarien eskubideen aldeko manifestazioa dela eta, #salatzenDut traola bolo-bolo dabil 2017ko lehen egunetan:

@sare\_herritarra: "Euskal jendarte, mobilizazioaren bidez, bidelagun izan behar da #SalatzenDut #u14Bilbor!".

@sarearrasate: "Argiz bete genuen herriko plaza, orain Bilboko kaleak argitu ditzagun!".

## ITURRI ONETIK

## Filma grabatzen Arantzazun

Euskal film bat grabatzen ibili dira urteko lehen egunetan Arantzazun. Grabazio taldekoak duela hilabete inguru joan ziren Arantzazura tokia ikustera eta eszenak non grabatu aukeratzera, lokalizazio lanak egitera. Ea gauez grabatzeko arazorik egongo ote zen ere galdetu zieten frantziskotarrei, eta grabazio orduetan kanpai hotsik ez entzutea eskatu zieten. Baimena eman zieten eta grabazioak gauez egin dituztela baieztatu du Pello Zabalak, goizeko hiruretan ere musika entzun izan dutela gaineratuta.

## GORA ETA BEHERA



## Ispilua apurtuta dago, berritzaia komeni

"Ez naiz sarri joaten Leintz Gatzagara, baina justu joan den astean han zehar ibili nintzen. Inguru hura gidatzeko nahikoa zaila egiten zait berez, neuk ere zailtasunak ditut gidatzeko, ez dudalako oso argi ikusten, eta are zailagoa egin zitzaidan gidatzea errepideko zirkulazioa zaintzeko ispilua apurtuta zegoela ikusi nuenean", kontatu du irakurle batek.



ENEKO AZURMENDI

**Esker onez****MARI CARMEN URRUTIA**

OÑATI

Orain dela berrogeita hamar urte gure gurasoek *Garby* izeneko denda jarri ziguten Oñatiko Kale Zaharrean. Nire ahizpa Maria Jesusek hogeitau urte zituen, eta nik hemeretzi. Han ekin genion gure ibilbideari, ilusioz, kemenez eta atrebentzia apur batez. Izan ere, garbi esanda, ezjakintasuna ere ausarta da batzuetan. Aurtengo abuztuan, 2017an, berrogei urte beteko dira Etxaluzeko *Urrutia Emakumeak* denda ireki genuela, eta tarte horretan oñatiarren laguntza izaten jarraitu dugu.

Alabaina, orduan hasitako lanari orain amaiera iritsi zaiola esan behar dizuet penaz. Hori dela eta, herritar guztioi eskerrak eman gura dizkizuet luzaroz erakutsi diguzuen konfiantzarenatik, zuek gabe gure dendak ez baitzuen hainbeste denboran irauterik izango. Eta, jakina, mila eta mila esker urte hauetan guztietan lankide izan ditugun gure neskei.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko denoi!

**Arrasateko alkate Maria Ubarretxenari gutun irekia****ALBERTO ENCINAS**

ARRASATE

Arrasateko bizilagun moduan idazten diet gutun hau Arrasateko alkate Maria Ubarretxenari eta Obrak, Zerbitzuak, Mantentze eta Auzoak Saileko arduradun Oscar Garciari.

2010eko otsailaren 28an, Josebak, 19 urte eskaseko arrasatear oso ezagun, alai, ekintzaile, mendizale, espeleologo-zale eta gaztetxeko asanbladako kideak, gure mendi enblematiko Udalatxan utzi zuen bizia.

Albiste tristeak Arrasate astindu zuen, gazteak bereziki, haren galerarekin sumindu zirenak.

Haren irribarrea, aktibismoa eta bizitzeko gogoiaugar izan ziren gaztetxeko

lagunek saminaren, inpotenziaren eta estutasunaren gainetik indarrak atera zituzten Uarkape pilotalekuaren paretan, gaztetxetik metro gutxira, mural adierazgarri eta hunkigarria egiteko, zera esaten zuena: *Zeu zara gure garra... eta geuk txoria genuen maite.*

*Mozal ordenantza* madarikatua, adierazpen askatasuna mugatzen eta taloi bidez egiten ez denean izan ezik paretetan isiltasuna inposatzen ahalegintzen den hori, gure herrian sumindura eragiten hasi da, eta atzo, kasurik onenean, "deskuido" baten, edo, okerrekoan, sentsibilitate eta errespeturik ezarengatik, bere mozala zabaldu eta gaztearen oroimenezko murala tapatu zuen.

Atzo, berriro ere, samina, amorrua eta, seguru aski, malko gehiago isuri ziren Josebarengatik.

Alkate andrea eta Oscar Garcia jauna, uler dezaket adierazpen iraingarriak edo pertsonen edo taldeen ohorearen kontrakoak tapatzea, baina minik eragiten ez duten muralak tapatzea lotsagarria iruditzen zait, eta, kasu honetan moduan, pertsona baten oroimenerako murala baldin bada, orduan ja haserre eragiten dit.

Alkate andrea, halako ekintzek ekarpenen bat egiten diote bizikidetzari?

Pare bat hilabete eskas bukatu dute Gelmako paretako murala. Nik, pertsonalki, gustukoa dut; hori bai, diru publikoarekin ordainduta dago. Tapatu duzuen saminak eta malkoek bultzatuta egin zen, baina, nire ustez, sikiera, errespetu berbera merezi zuen.

Gertatutakoa horren mingarri izan ez dadin azalpenen bat entzutea espero dut. Baina bereziki eskatuko nizueke hausnarketa serioa egin dezazuen biharko egunean ez dadin atzera ere *Arrasate garbiago baten izenean* adierazpen askatasunaren kontrako ekintza penagarririk gertatu.

Murala egin zenutenok nire babes eta laguntza osoa duzue berriro ere lehengoratzen laguntzeko.

**Goian bego, Pili Otxoa****JURGI IRAOLA ARRIARAN**

ARRASATE

Aste honetan zoritxarrez joan zara Pili, baina nekez ahaztuko dugu zure barre algarra.

Haurra nintzela zure ikaslea izan nintzen, eta jolasteaz gain irakatsi zenidan zoriontsu bizitzen.

Zurekin negar egiten nuen eta haserrealdiak hartzen nituen, baina zure ipuin goxoekin gorabehera guztiak ahazten nituen.

Horregatik idatzi dizut olerki hau, jakin dezazun nik eta beste ikasle askok maite izan zaitugula eta maiteko zaitugula.

**2016/12/31: Urkullu Tellamendire igo zan egune****MANEX ETA OIER ZUBIKARAI ARRIOLA**

ARAMAIO

40 urte bete die Tellamendiko kurtzien ikurriñie lotu zala. Hurrengo egunien bertan, kurtzie bera bota zauien, ikurriña eta guzti. Herri dana sutu zan. Ikurriñie legalizau barik egonda be, herri danak urten auen haren alde eta Guardia Zibillaren kontra.

Ez die urtiek alperrik pasau. Seguru, oin 40 urte ikurriñie bertan lotu auienak ez zauielea espero gaur egun Tellamenditik bertatik ikusten dianak ikustie. Zabolako tunela, Lugarateiko baserrixe horma baten txintxilik, Bolinbuko auzunie porlanez jositte, Cuatrovientos baserriko eskapeien egindako tunela, Besaideko bide eta errekek galdute, Udalatx zuletute... Honeik danak egitteko Guardia Zibillek berak ekarri dau eta ekarten dau dinamitie. Lehen, ikurriñak eta kurtziek botateko; eta oin, geure lurrek mobidu eta zulatuteko. Eta honek danoi atie baton batek zabalketan dutzie.

Azken urtietan be, geure herrixen interesak edozerren aurretik defendidu dauien askok, ezeben truke, bere bizixe emun daue, espetxie eta erbestie ezautu daue. Batzuk ondion ez die bueltan etxien. Eta honek be baton batzuen laguntasunaz hasi zien peninsulan ziher presuek dispersetan.

Ikurriñie herrixen aldarrikapena izen zan oin dala 40 urte. Gaurko egunien, presuek etxera ekartiek herri oso baten aldarrikapena izeten segiduten dau. Baine batzuk beste kontu batzuri begire dabiz. Madrilleko gobernuaz negoziatan juen, eta lenengo gauzie dirue eskaketan daue, herrixek biher ez eta ibilli be ez auen egingo obra batendako. Herrixei zer eta zela gure dauen galdetu aurretik, batzuen enpresak dirue zela irebazi pentsau daue lenengo.

Hau salatuteko, aurreko zapatuen Tellamendi puntan zabaldu asmo zan ikurriñiai, errespetu osoz eta mimo haundiz, presuek etxeratzeo eta AHT bertan bera ixteko aldarrikapenak josi gitxuen. Ikurriñie, Ama Lurra beste errespetetan doguelako. Ama Lurra, geure presuek beste maite doguelako. Gainera, honek lau haxetara zabaldueteo ohorie Urkulluri ixtie gure izen gauen.

**Zaharrak berritzen****JOKIN LABAIEN**

HTTPS://GOO.GL/GHQ0M2

Ez nuke urte berrira kontu ilunekin hasi nahi, baina, egia esan, aho zapore horrekin amaitu nuen joan berri dena. Urteko azken egunetan, goiz eta eguerdietako analisi saioetan eta albistegietan ikusi eta entzundakoekin, 2001eko irailaren 11ren ondoren gertatu diren aldaketak etorri zaizkit gogora. Oraindik ere, batzuk beste batzuk baino altuago kontatzen ditu munduak. Egunduan hartan edo egun haren ondorioz, aldatu egin omen gara. Adibidez, gehienok izan ditugu ahotan Irakeko eta Afganistango inbasioak aurrera eramateko

ateak ireki zituela, bereziki New Yorken gertatuak. Halaber, gizarteak -gureak noski, hitzaren zentzu zabalean- izuarekin bizitzen ikasi behar izan duela diote adituek. Izu horri aurre egiteko erabaki andana hartu du AEBetako Gobernuak, asko eta asko ezkutuan. Hor utziz gero, laburregia bezain tranpatia dirudi analisiak. Aditu askoren arabera, sakon eta gordinagoak dira egun hark utzi zituenak.

Konspirazioaren teoriak albo batera utzita, komunitate musulmanaren inguruan zabalduetako irudiak benetako ondorioak ekarri ditu, haiekiko deskonfiantza eta geroztik biderkatu diren erasoak, adibidez. Pentsa zenbateraino, Guantanamo zabalik dute oraindik, onarpen publikoz ez bada ere, giza eskubideen urraketa onartuak gehiegizko kalterik eragin gabe USA Patriot Act delakoarekin, besteak beste. Segurtasunaren izenean, kontrol neurri zorrotzak hartu dituzte Etxe Zurian; dirutza gastatu dute.

Eta dagoeneko badakigu denoi dena kontrolatzen digutela eta kontra erabiltzen dutela, gainera, legez kanpo lortutako informazio hori. Obsesio bihurtu zaiela. Gu seguruago egiteko egiten omen dute, eta onartu egiten diegu horretarako askatasuna lapurtu izana, ziur asko, ez dakigulako zenbaterainokoa den egiten digutena. Zentsura handia izan da gaiaren inguruan. Dorre bikiak ageri zituzten filmak, telesailak eta telebistako saioak aldatu egin dituzte, eta horietako askotan ez dira egun dorreak ageri. AEBetan mila irrati emisoratik gora dituen komunikazio enpresa batek, desegoki diren kantuen zerrenda zabaldu zien haren langileei, gertakariak direla medio.

Horiek ibili ditut buruan azken egun hauetan.

Telebista kateek obsesioz azaldu baitigute, segurtasunaren izenean, Espainiar erasoak ekiditeko zein neurri hartu diren, sotilki, mezua gure gogoan txertatuz.



# "Hanka sartze" batek ezabatuko ez duen irudia

Joseba Iglesias gazte arrasatearraren omenezko murala ezabatzea Txikilandiako garbiketetan izandako gaizki-ulertu batek eragin zuela dio gobernuak; EH Bilduk salatu du errua margolariari bota izana eta AGAKO atzo iluntzean bildu zen zer egin erabakitzeko

**Jokin Bereziartua** ARRASATE

2010eko otsailaren 28an hil zen, 19 urte zituela, Joseba Iglesias *Pajero*. Udalatxera bakarrik joan eta istripua izan ostean zendu zen. Herrian oso ezaguna eta maitatua zen; besteak beste, Arrasateko Gazte Alternatiboan Kofradia Organizatuko (AGAKO), Aloña Mendi Espeleologia taldeko eta Dorletako Ama txirindulari taldeko kide zen, eta herritik sortutako hainbat ekimenetan parte hartze aktiboa zuen. Kolpe gogorra izan zen Iglesiasen heriotza hainbat arrasatearren zat, eta hura gogoratu eta omentzeko hainbat ekitaldi egin ziren. Horien artean, gaztetxera bidean dagoen Uarkape frontoiko albo-pareta baten mural bat margotu zitzaion oroigarri gisa.

**"Prest gaude mural bera egiteko"**

Horma-irudi hori albiste izan da, abenduaren 30ean Udaleko langileek ezabatu egin zutelako. Murala ezabatzeak samina eta haserrea eragin zituen Iglesias ezagutzen zutenen artean eta gaia bolo-bolo ibili da herrian zein sare sozialetan. Herritar batek gutun bidez ere eskatu zion alkateari gertatutakoa azaltzeko (ikus gutunaren atala). Horren aurrean, Udal Gobernuak prentsa oharra kaleratu zuen mural hori ezabatu izana hanka-sartze bat izan dela aitortzen: "Zoritxarreko hutsa izan da. Senide zein lagunei eragindako atsekabea sentitzen dugu". Gobernuaren arabera, Txikilandiak eskatzen dituen garbiketa eta txukuntze-lanetan aritzen diren langileekin izandako gaizki-ulertu baten ondorio izan da akatsa. Segurutasun zibileko arduradun Jose Luis Etxebarria *Porru*-k GOIENARI argitu dionez, Uarkape barruko zein kanpoko garbiketarako egiterakoan Iglesiasen omenezko murala ez ezabatzeko eskatu zien garbitzaileei mezu baten argazkia erantsita, baina mar-



2010ean margotutako murala, lore-sortekin batera. AGAKO



Horma-irudia ezabatuta, asteon ateratako argazkian. XABI GOROSTIDI

golariak ez zuen mezua irakurri. "Hanka sartze bat izan da, ez dago beste gauzarik. Barkamena eskatzen diet AGAKOko kideei; senitartekoei barkamena eskatu diet pertsonalki, eta ulertu dute. Alkatearekin egon ostean, lehen gaztetxeko kide zen gazte bati esan diot prest gaudela mural berbera egitea ahalbidetzeko, jende berberarekin", gaineratu du Etxebarriak.

EH Bilduk gogor salatu du gertakaria, eta garbiketa ordenantzarekin lotu dute: "Adierazpen askatasuna kaiolatzea larria bada, mural horrekin egin dutenak ez dauka kalifikaziorik. Legala izan-

go da, agian. Baina etikoa eta humanoa? Gertaerak sumina piztu du eta ez gaitu harritu udal gobernuak, bere burua zuritzeko, errua margolari bati bota izana. Erantzukizuna onartu beharrean, margolariak agindua gaizki ulertu zuela esatea [...]. Debekua irrazionaltasunaren sinonimo izan daiteke zuhurtzia, ezagutza eta irizpiderik gabe aplikatuz gero".

**Egileen erabakiaren zain**

Bestalde, AGAKOk ez du erabaki oraindik zer egin; atzo iluntzean ziren biltzekoak gaztetxean, baina ordurako GOIENA aldizkariako edizioa itxita zegoen.



TXOMIN MADINA

## Kataluniakoa da arbola berria

Atzo goizean landatu zuten Arbolapetako zuhaitz berria. *Quercus robur* espeziekoa da, bospasei urteko haritza, 2015eko otsailan landatu eta iazko azaroan kendu zuten espezie berekoa. Oraingoa txikiagoa da, eta, horregatik, espero dute hobeto egokituko dela. Kataluniatik ekarri dute eta 18-20 zentimetro inguruko perimetroa du; 147,80 euroko kostua izan du.



TXATXILIPURDI

## Berritasunez jositako Txikilandia

Urtarrilaren 2an ireki eta atzora arte, hainbat ume eta gaztetxoren gozamen iturri izan da Txikilandia. Lehen egunean ur parkea izan zuten Musakolako igerilekuetan eta gainerako goizetan zein arratsaldean Uarkape izan da jolaserako gunea. Berritasunen artean, adin tarte handienekoei zuzendutako Gaztegunea eta esperimantazio gunea izan dira aurtien, besteak beste.

## Herriko hiru langabe kontratatuko ditu Udalak aldi baterako

Pintore bat, igeltsero bat eta informatika laguntzaile bat kontratatuko ditu Udalak aldi baterako. Interesatuek Lanbiden eman beharko dute izena urtarriaren 11ra bitartean; lan-poltsa horren gaineko informazio gehiago izateko, Udalaren webguneko lan eskaintzen atalera edo Biztanleen Arreta Zerbitzura (943 25 20 00) jo daiteke.

## ARRASATE IRRATIA

### Koultur eta 'Gu' obra

Hurrengo asteko *Igo autobusera!* saioan, Iban Del Campo zinegile eta irakasle arrasatearrak aurtengo Huhezinemaren nondik norakoak azalduko ditu. Bestalde, Kooltur Ostegunak ekimeneko Grises taldearen kontzerturako eta Borobil taldearen *Gu* haur antzerkirako sarrerak ere zozketatuko dira. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo [irratia@goiena.eus](mailto:irratia@goiena.eus).

# Arrasatera ere helduko dira Errege magoak

Errege Kabalgata Komisioko kideak karrozari azken ukituak ematen ari dira. Iaz *negua* izan zen karrozaren gaia; aurtengoa, bestalde, *gozo-gozo* izango da. Aurretik zuten teilatudun egitura aprobetxatuz, txokolatezko etxe bat irudikatuko dute

**Imanol Beloki** ARRASATE

Nafarroa etorbidean SUDC elkartek duen lokalean buru-belarri aritu dira lanean Arrasateko Errege Kabalgatako Komisioko kideak gaur irtengo den karrozari azken ukituak ematen. Iaz *negua* izan zen karrozaren gaia; aurtengoa, bestalde, *gozo-gozo* izango da, txokolatezko etxe bat irudikatuko dute eta. "Teilatudun egitura aurretik ere bageneukan, eta hori aprobetxatuz egin dugu txokolatezko etxea. Azken finean, Errege magoak umeendako dira, eta horriengan inspiratu gara", dio karrozaren diseinatzailea izan den Toñi Davilak.

Gozokiak, gainera, ez dira karroza gainean bakarrik egongo, Arrasateko desfilearen koordinatzaile Angel Mari Garciak azaltzen duenez, 140 kilo gozoki baino gehiago banatuko baitituzte eguenean, eta sorpresarik egongo dela ere iragarri du. Bestalde, banketxei eta beste entitate batzuei eskerrak eman nahi izan dizkie emandako laguntzagatik.

## 140 lagunren parte-hartzea

Komisioko kideak irail-urri inguruan hasi ziren prestaketa lanekin, eta denera 140 pertsona inguruk hartuko dute parte, gaur, 19:00etan Zerkaosteta kaletik irtengo den desfilean. "Errege magoak eta beraien pajeez gain, erromatarrak ere egongo dira, baita farolak eroaten dituztenak, Arrasate Musikaleko tronpetak, Sambamañako dambor-jotzaileak, karrozaren arduradunak, suziri-eroaleak eta Arantza Uriartek zuzendutako abesbatza", dio Garciak.

Hala ere, Errege Kabalgatako Komisioko kideek adierazi dute beti dagoela boluntarioen beharra ekimen hau aurrera eramateko, eta dei egin nahi diete herritarrei gerturatzeko eta nahi duenak parte hartzeko.



Aurtengo karroza prest da. TXOMIN MADINA

## Kabalgatak egingo duen bidea

**17.30** Errege magoek opariak eramango dituzte Iturbide egoitzara.

**18.45** Segizioaren irteera Mitarte kaletik Zerkaostetara.

**19.00** Desfilea hasiko da. Ibilbidea hau izango da: Zerkaosteta, Iturbide egoitza, Garibai etorbidea, Maalako biribilgunea, Maalako Errebala, Portaloia, Erdiko Kalea, Herriko Plaza.

**19.30** Koruaren kantuak jaiotzaren aurrean.

**20.00** Errege magoek Jesukristo gurtuko dute eta umeek irakurketak egingo dituzte.

**20.30** Errege magoek Debagoieneko Ospitalerako bidea hasiko dute, opariak eramanez, kabalgatari amaiera emanda.

## Partaide gehiagoren beharra

Errege Kabalgatako Komisioko kideek adierazi dute Errege magoen desfileko antolaketa taldean, parte hartzean... hutsunea dagoela, jendea falta delako. "Boluntarioak beti izaten dira ongi-torriak, eta, hala, desfilean lagundu gura dutenak 17:30etan agertu daitezke Iturriotz kalean dagoen abade-etxean".

Hori horrela, komisioko kideek parte hartzeko gonbita egin dute. Batez ere, artzainen beharra dagoela jakinarazita. "Nahi duten herritarrek aukera dute baserritar jantziarekin agertu, eta gabon kantak abesteko desfilean", adierazi du Garciak. Hala ere, "antortxeroak, farolak eroaten dituztenak... beti behar izaten dira". Beraz, nahi duenak, gaur, eguena, 17:30etatik aurrera kultura etxean egonda parte har dezake.

Desfilea herriko kaleetan izango den arren, Errege magoek aurretik eta ostean ere izango dute lana, Angel Mari Garciak azaldu duenez: "Desfilearen aurretik Iturbide egoitzan banatuko dituzte opariak eta ostean, Debagoieneko ospitalean, hala, kabalgatari amaiera emanez".



Futbol kromo bildumaren aurkezpenean, benjaminak talde argazkian. MIREIA BIKUÑA

## Mondra futbol taldeen kromo bilduma ilusioz hasi da

Futbol eskolatik hasi eta kategoria nagusienarainoko jokalariek guztien kromoak batzen ditu bildumak

**I.B** ARRASATE

Mondra futbol familiako kideak Zaldibarren batu ziren atzo, futbol jokalariek kromo bildumaren aurkezpena egiteko.

Bildumak 397 argazki batzen ditu eta jokalariek bakoitzak bilduma pertsonalizatua izango du, gainera. Futbol eskolatik hasi eta emakumezkoen eta mutilen lehen talderaino, maila guztietako talde eta jokalariek agertzen dira bertan. Mondrako harrobiko entrenatzaile Markel Bazanbidek adierazi du arrakasta izango duela ekimenak: "Futbolekin, batez ere, tradizio bilakatu da kromo bilduma egitea eta guk ere horren aldeko apustua egin dugu. Gainera, gaztetan beti egin izan ditugu lehen mailako jokalariek bildumak, eta hurrekin beraien kromoak ikusteak eta hauek partekatzeak poztasuna pizten die, atzoko aurkezpenean ikusi bezala".

Pertsonalizatuak ez diren bildumak ere badaude, nahi duenak bilduma osatzeko. Horretarako, Mondrakoekin kontaktuan jarri behar da. Bestalde, urtean zehar salmenta postuak jarriko dituzte, eta aukera egongo da kromoak eta bildumak erosteko.

## Gaztetxoek ilusioz

Bildumaren aurkezpenean ilusioz agertu ziren kategoria txikienetako futbolariak. Batzuk pozik zeuden beraien kromoak lortzearekin, eta ondo agertzen zirela adierazi zuten. Beste batzuk, aldiz, barrezka agertu ziren kromoetan zituzten aurpegiengatik. Dena den, argazkiak ateratzeko momentuan ondo pasatu zutela adierazi zuten eta euren helburua nork bere taldeko kromo guztiak batzea zela azaldu zuten, eta gero maila guztietakoekin bilduma osoa osatuko zutela adierazi zuten.

## 400 pertsonatik gora euskal presoek askatasuna eskatzeko

Giza eskubideak konponbidea eta bakea lalopean Arrasateko Sarek abenduaren 30ean egingo agerraldian, eskubideak errespetatuak izan daitezkeen eskatu eta euskal presoek bizi duten egoera salatu zuten.

Espetxe politika aldarazi behar dela aipatu zuten bertan, espetxeetan giza eskubideak urratzen jarraitzen dutelako. Hala, euskal

preso, iheslari eta deportatu guztiak etxeratze bidean urratsak egiteko unea dela adierazi zuten. Bestalde, ehunka kilometrotara dauden preso arrasatearren egoera salatu zuten, Unai, Julen, Txus, Kepa, Premin, Aratz eta Josurekin egiten ari diren eskubide urraketak aipatuta. Horren harira, urtarrilaren 14an, Bilboko manifestaziora joateko autobusetarako txartelak dagoeneko salgai daude Kajoi, Bengoa, Taupa, Irati eta Iluntz tabernetan, hamar eurotan.

# Herriko artisten irudiak, kaleetako apaingarri

Otolora Lizentziaduna eta Olarte kaleak batzen dituen eskailera-pasabideko hormak itxura berritua izango du laster; MuralArt Arrasateko muralisten taldeak margotuko du Udalak proposatutako bozketan herritarren boto gehien jaso dituen irudia

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE  
Sei zirriborro aurkeztu zituen Arrasateko muralisten MuralArt taldeak; eta horien artean bat aukeratzeko bidea eman zien gero Udalak herritarrei. Parte hartzea eskertu dute; izan ere, baliozko 194 boto jaso dituzte eta, 50 botorekin, argazkiko zirriborroa izan da aukeratua.

Eguraldiak lagunduz gero, urtarril bukaeran edo otsail hasieran bukatzea da asmoa.

## Egilea, taldea

Lau lagun artean sei irudi egin dituzte. "Bakoitzak gura izan duena egin du, baina, neurri baten, irizpide batzuk jarraituta: kontuan hartuta zenbat haurrek erabiltzen dituzten eskailerak, goian ikastola dagoelako. Era berean, harresiaren ondoan, eta Santa Barbaratik gertu...", diote MuralArtekoek.

Margotzea hiruzpalau eguneko lana da, gutxi gorabehera, baina muralistek diote aurretik beste hainbat lan egin behar direla horma prestatzeko. "Hetzetasunaren aurkako pintura plastiko kapa bat eman behar da, eta ondo sikatutakoan margotzen hasi; ikusiko dugu proiektoreaz lagunduta, edo barik. Oraingoan bai, baina beti ez ditugu zirriborroak egiten".

## MuralArt taldea

Aurrez elkar ezagutzen bazuten ere, Gipuzkoa etorbideko -Elmako hormako- muralaren inguruan elkartu ziren talde moduan. "Kanpokoek egin behar zutela jakin genuenean, horietako lanak egiteko herrian bazeudela artistak esatera joan ginen udallexera. Ondo hartu gintuzten eta hurrengo proiektuetan kontuan izango gintuztela esan ziguten. Hauxe da talde moduan egingo dugun lehenengoa, gehiago egingo ditugun gogoz. Politza litzateke ahalik eta horma gehien margotzea".



Otolora Lizentziaduna kaleko eskaileretan margotuko duten irudiaren zirriborroa. J. M.

## "Eskailerak agerian geratzea gura nuen"

**JOANA MANCISIDOR**  
MURALART TALDEKO KIDEA



A. A.

Sei zirriborroetatik bi egin zituen; Mancisidorrek egindakoa da margotuko dutena.  
**Zein irizpide izan duzu?**  
Eskailerak agerian geratzea gura nuen, toki horren ezaugarri nagusia hori delako, nire ustez. Ez nuen eskailera izatea galtzerik gura.  
**Kolore horiek, zergatik?**  
Harresiarekin lotzen ditudanak dira. Gero, akaso, aldatu egingo ditugu; tokiari moldatzea polita

izaten da, baina saiatuko gara askorik ez aldatzen.  
**Gustuko paretarik baduzu?**  
Denak margotuko nituzke.  
**Aukera handia dago?**  
Ez pentsa, baina batzuk ikusi ditugu: bidegorrian, zubi azpiren baten...  
**Kalean, guztion eskura daude; ona ala txarra da hori?**  
Ez nau mintzen gainean beste zerbait egiten badute, baina tira...

## Su Ta Gar eta Ander Lipus, besteak beste, Amaia antzokian

Urtarrileko kultura eskaintza oparo dator; sarrerak salgai daude *Arrasate.eus* atarian eta leihatilan

**A. A. ARRASATE**

*Maitasunari pasioa* disko berria aurkeztuko du Eibarko talde ezagunak urtarrilaren 21ean, 20:00etan. Izenburuak adierazten duen moduan, lanaren ardatz nagusia maitasuna da. "Kanta samurragoak, goxoagoak, lasaigoak, intimoagoak... dira; gure disko guztietan agertu diren kanta lasaien ildoan murgiltzen direnak. Estiloa zehaztea oso zaila da. Su Ta Gar da. Era lasaigoan. Taldearen esentzia eta indarra galdu gabe betiere", diote taldekideek.

**Borobil eta Artedrama**

Antzerkiaz gozatzeko bi aukera izango dira. Urtarrilaren 14an, 17:00etan, haurrentzako *Gu* lana eskainiko du Borobil taldeak; Lur planeta salbatzea proposatzen dute tximinia-gizonek, erabat grisa bilakatu dutelako.

Helduentzako proposamena da, urtarrilaren 29an, 19:30ean Artedrama taldeak, egingo duen *Francoren bilobari gutuna*. Iraun behararen gaitzak jotako komunitate baten hezurren eta gezurren erradiografia traumatologikoari buruzko lana.



IMANOL BELOKI

## Julio Galartaren margolanen bila

Pintore arrasatearraren jaiotzaren mendeurrena da aurten, eta haren lagunek osatzen duten elkarteak erakusketa egiteko asmoa du azaroan. Mila koadrotik gora batu dituzte; hala ere, Arrasateko irudiak dituzten gehiago gura dituzte. Lagundu gura duenari Arregi Arte dendara gerturatu edo [galartaelkartea@gmail.com](mailto:galartaelkartea@gmail.com) helbidera idazteko eskatu du elkarteak.



## BIODANTZA

Egin oparia zure buruari



**BERGARA**

- Astelehena: 18:30etik 20:30era  
Mariaren Lagundia ikastolan, Mentxu Arjonilla 626 66 12 92

**ARRASATE**

- Sakontze taldea. Asteazkenetan 19:30etik 21:30era  
Arrasate Yoga Elkarte, Rake Ampudia 679 44 12 29

**ELORRIO**

- Ostiraletan 18:00etatik 21:00etara  
Tailerrak. Hamabostean behin Txintxirri ikastolan  
Mentxu Arjonilla 626 66 12 92

[www.biodanzabai.com](http://www.biodanzabai.com)

# 40 urte ikurrina jarri eta gurutzea eraitsi zutela

1976ko abenduaren 31n hainbat euskaltzale mendizalek ikurrina jarri zuten Tellamendin, eta Guardia Zibilak leherketa bidez gurutzea eraitsiz erantzun zuen. Gertakariak horiek gogora ekartzeko irteera antolatu zuen zapatuan Aramaioko EAJK

## Xabi Gorostidi ARAMAIO

Tellamendiko tontorreko gurutzea 1935. urtean jarri zuten lehendabizikoz. Iaz 100 urte beteko zituen Jose Maria Azkarraga *Lurgorri* izan zen gurutzea jartzeko bultzatzaileetako bat, Jose Joaquin Arin Arrasateko apaizarekin batera, eta bi bultzatzaile horiek 1936ko gerran hil ziren. Gerran hildakoak omentzeko eta Tellamendin duela 40 urte gertatu zirenak gogora ekartzeko, irteera eta ekitaldi politikoa antolatu zituen Aramaioko EAJK. Bertan izan ziren, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria eta duela 40 urte Aramaioko alkate zen Julian Unzueta ere.

Tellamendiko tontorreko ekitaldi politikoa ikurrinaren zabaltea egin zuen Urkulluk, eta, denen ezusteko, ikurrinean euskal presoen aldeko eta AHTaren aurkako bi zapi zeuden josituta. Ekintza horren egileek GOIENARI bidalitako gutunean (7. orria) azaltzen dituzte hori egin izanaren arrazoiak, eta zapatuko irteera antolatu zuen EAJK ez du oraindik gertatutakoaren gaineko baloraziorik egin nahi izan.

## Ikurrina jartzearen mendekua

Pasa berri den abenduaren 31n 40 urte bete ziren euskaltzale talde batek Tellamendiko tontorrean eta Murugainen ikurrina bana jarri zutela. 1977. urtea zen, eta, Franco bi urte aurrerago hil bazen ere, oraindik legez kanpoko zen ikurrinaren erabilpena. Bi hilabete lehenago ere beste ikurrin bat jarri zuten, eta, orduan, Aramaioko Guardia Zibilaren kuarteleko buruak esan zuen berriz ikurrina jarriz gero gurutzea botako zutela. 1978ko urtarrilaren 1ean, bigarren ikurrina jarri eta hurrengo egunean, hiru eztanda ondoen gurutzea eraitsita gertatu zen.



Tellamendiko gurutzean aterako familia argazkia. EKAIN VELEZ DE MENDIZABAL

## 1935ETIK HONA ASKATASUNAREN IKUR IZAN DA TELLAMENDIKO GURUTZEA

Julian Unzueta alkatea eta herriko epailea Guardia Zibilaren kuartelera joan ziren azalpen eske, eta bertan, eurek eraitsi zutela jakinarazi zieten. Tontor inguruan lehergailu zahar batzuk lurperatuta zeudela argudiatuz, segurtasun arrazoiengatik lehertzeko erabakia hartu zutela jakinarazi zieten.

Herritarrengan haserrea eta harridura ziren nagusi, eta 19:00 aldera manifestazio baketsu batek herria gurutzatu zuen, Guardia Zibilaren kuartelera heldu arte. Tentsio oneak ere bizi izan ziren, manifestazio bukaeran guardia zibil batek kuarteletik atera eta tiro egin zuen eta.

## Ez bonbarik, ez minarik

Hurrengo egunean, urtarrilaren 2an, ezohiko bilkura egin zuten Aramaioko udal ordezkariak, eraisketa salatzen eta ardura-

dunen aurkako neurriak eskatzeko. Ondoren, Orixol Mendi Elkarteko kideek frogatu zuten gurutzearen eraistea lau hantketatik hirutan nahita jarritako lehergailuek eragin zutela, eta ez lurpeko lehergailu zahar bategatik. Hiru hanka 20 zentimetro-ra ebakita zeuden eta laugarrena, aldiz, 55 zentimetro-ra.

Azkenik, eraitsi eta hiru hilabetera, gaur egun Tellamendin dagoen gurutzea jarri zuten, 1977ko martxoaren 5ean, eta hilabete bereko 17an egin zuten inaugurazio ekitaldia. Herritar ugari parte hartu zuen eta bertan izan ziren 1935ean lehen aldiz gurutzea altxatu zuten kide batzuk ere. Aramaioko EAJK kaleratutako oharra zera dio horren harira: "Askatasunaren ikurra zen, euskal aberriaren ikurra zen. Ondo baino hobeto zekiten hori gurutzea lurrera bota zutenek. Hala ere, ondo baino hobeto ikusi zuten herritarren berehalako erantzuna: hiru hilabeteko epean berriro jarri zen zutik gurutzea".

Martxoan 40 urte beteko dira gurutzea berriro altxa zutenetik, eta Aramaioko Udalak ekitaldi irekia antolatzeko asmoa du.

## Xarma berezia duen urteroko bertso saio berezia

Abenduaren 30ean egindako saioan laukote ederra batu genuen Kultura Etxeko oholtza gainean

### Goiena komunitatea

Peru Abarrategi

ARAMAIOKO BERTSO ESKOLA

Aurten ere, azken urte luzeotan bezala Gabonekin batera iritsi zitzaigun Aramaiora gabon garaiko urteroko bertso saioa. Oraingoan, abenduaren 30ean, Aramaioko kultur etxeko aretoan, oholtza gainean laukote ederra osatzea lortu genuen.

Aramaion bertsozaleen artean, eta horregatik aurten ere, aretoa bete ez arren, talde polita bildu ginen bertan. Bertso eskolarentzat ere egutegian gorritz markatuta izaten dugun data bat da, eta aurten ere saiatu gara saio erakargarri bat eskaintzen ikusleari.

Lau bertsolari eta bi gai-jartzailek bete zuten aretoko oholtza. Sustrai Colina: iparraldeko Xilaba bertsolari txapelketaren irabazlea, eskertu zuten ikusleek

horrelako tamainako bertsolari bat herrira ekarri izana. Oihana Iguaran: Azken aldian guztien ahotan dabilen Villabonarra, Gipuzkuako azken bertsolari txapelketan finalista izandakoa. Iker Zubeldia: Aramaion aurrez hainbat bertsoaldi eginikoa, ikusleek hainbeste atsegin duten umore puntu hori saioari jartzeko beti prest dagoen bertsolari horietakoa. Peru Abarrategi: herriko gaztea, Aramaioko bertso eskolako partaide duguna. Urduritasunak alde batera utzi eta aurrez telebistan soilik ikusiak zituen izen handiko bertsolari hauekin kantatzeko aukera aprobetxatzea, oholtzara irten zena.

Gai-jartzaile lanetan herriko bi ezagun handi izan genituen, Xabi Igoa eta Manex Agirre. Honek joko berezia eman zion saioari, izan ere, gai-jartzaileek konplizitate handia erakutsi zuten saio guztian zehar bertsolariekin.

Amaitzeko, saio gustagarria izan zela iruditu zitzaigun, barrutik ikusita behintzat, eta inork kontrakorik esan ezear, zapo goxoarekin itzarongo diogu datorren urteko saioari ere.



XABI GOROSTIDI

## Arexolako kupela guztiz izoztuta

Aste honetako protagonista nagusietako batzuk hotza izotza izan dira, ezbaierik gabe.

Beroki, bufanda eta eskularruak hartu behar izan arren, irudi politik uzten dituzte tenperatura hotzek. Horren adibide da Arexola auzoko iturri ondoan dagoen kupelak, martitzen eguerdian zeukan itxura ikusgarria.



Arexolako aldapan asfaltatzea izan da aurten auzolanean egindako ekimen garrantzitsuenetakoa. XABI GOROSTIDI

## Konponketa lan ugari egin dira 2016an zehar

Kiroldegiko atontze lanak, Arraga eta Matxin kaleetako konponketak edo Arexolako aldapan egindako hobekuntzak lanak. Arabako Aldundiaren diru laguntzekin eta herritarrek auzolanean egindako ahaleginekin hainbat proiektu gauzatu dira aurten

### Xabi Gorostidi ARAMAIO

2016a urte oparoa izan da konponketa lanei dagokionez. Obra txikietarako eta auzo lanetarako Arabako Foru Aldundiko diru laguntza deialdiak baliatuta hainbat lan egin dira. Laguntza horien fruituak ikusita, urteko azken ezohiko osoko bilkuran 2017rako obra txikietarako eta auzo lanetarako diru laguntzak eskatzea onartu zuten aho batez EH Bilduko eta EAJko ordezkariak.

### Obra txikiak

Obra txikietarako, adibidez, 34.981 euro lortu zituen Udalak eta Kiroldegia atontzera bideratu zituen. Lehen solairuan gela handi bat prestatzea zen asmoa, komun berriak egin ez eta zegoen gimnasioa handituz, baina azkenean, baliabide faltagatik egitura bakarrik egin da.

Datorren urtean ere Kiroldegiko lanek aurrera jarraituko dute. Egin beharrekoan artean

aurkitzen dira, gimnasioa egokitzeko eta erabilgarri egiteko intsonorizatzea, lur egokia jartzea, leihoak aldatzea edo berogailua jartzea.

Udalaren asmoa da, lehentasunen prozesuan agertu zen bezala, ekintza ezberdinetarako lekuak egokitzen joatea, espazio ezberdinen falta nabaria dagoelako gaur egun egiten diren ekintzei erantzuteko. Horren eraginez gaur egun yoga Kultura etxeko agertokian egiten da eta pilatesa, aldiz, osoko bilkura aretoan.

### Auzolanak

Hainbat urtetan Arabako Foru Aldundiak auzolanetarako ematen dituen diru laguntzak eska-

**AZKEN OSOKO BILKURAN AHO BATEZ ONARTU ZUTEN 2017RAKO DIRU LAGUNTZAK ESKATZEA**

tzen aritu ondoren, iaz Udalak 18.952,71 euro jaso zituen era horretako ekintzak finantzatzeko. Kostu handiko auzolanetarako diru laguntza hori Arexola auzoko aldapa konpontzera bideratu zen, Arexolatarren aspaldiko eskariari erantzunez. Hala ere, diru laguntza gabe ere hainbat auzolan egin izan dira, aspalditik errotutako tradizioa bizirik dagoenaren erakusle.

Aramaioko Udalak positiboki baloratzen ditu era honetako ekimenak eta zera adierazi zuen herriko webgunean auzolanen harira; "Gure herrian, urtean zehar auzo ezberdinetan auzolan ezberdinak egiten dira eta hori pozteko eta zoriontzeko arrazoi bat da Udalarentzat. Laguntza lerro honetaz aparte, auzolan ezberdinak egiten dira beste auzo batzuetan, beraz, zorionak eta eskerrrik asko udalaren partetik auzolana mantenduz gure herria hobetzen zabilatzaten guztioi! Udala beti izan da eta izango da lagun bide horretan"



NIRE USTEZ

ANDONI ELEJALDE

### Bihotzak zabaltzen

Kaixo irakurle guztioi: Andoni Elejalde naiz; tipo berritsu, alaia eta positiboa. Nire debutean, aurrez Xabi Gorostidiri eskerrak emanez, medio hau aprobetxatu nahi dut nire bizitzaren parte izan zareten guztiei eskerrak eta besarkadarik beroenak emateko. Izan ere, nire ustez, oso garrantzitsua da elkarbizitza positiboa eta betea izatea. Beraz, ez bakarrik ondo sentiarazi nauen herriko jende orori baizik eta, bailara osoan, eskola, lan, zein futbol giroan mugitu zareten guztiei. Zuen berotasunak, aurrera pausuak eta eboluzio soziala baino ez dizkit sorrarazi. Ez dut izen propio gehiago jartzetik nahi, nahikoa da adibidea jartzea. Uste dut, bakoitzak badakiela gure pentsamenduak bat datozen, ala ez datozen.

Hala ere, behin hasita, beharrezkoa daukat, mila aldiz baino gehiagotan eskerrak ematea aitaren aldetik daukadan familiari; guztia eskaini didatelako eta sekula ez dudalako ez gauza materialen, ezta berotasunaren faltarik izan. Amaitzeko, hurrengo esanez agurtzea nahiko nuke; kalean topo egiten dugunean, jarrai dezagun irribarre batez elkar agurtzen.

### Papargorriren loteria zenbakiak saritxoak jaso du

Goiena komunitatea

Papargorri abesbatza

ARAMAIO

Papargorri Abesbatzak eskerrak ematen dizkizue gure loteria eta zozketetan parte hartzen duzuenoi, eta bide batez, jakinarazten dizue abenduaren 22ko Loterian jokaturakoaren itzulketarekin sarituak izan dela gure loteria zenbakia.

### Zer egin kobratzeko

Loteria erosi duzuenok dirua kobratzeko aukera izango duzue urtarileko eta otsaileko larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara Ekonomatoko lokalean txartelak aurkeztuz.

Bertara joaterik ez duzuenok Papargorriko kantariei emanez egin dezakezue, ondoren eurek entseguetara ekarri eta guri helarazteko.

Arazorik izanez gero, ardura-dunoi azaldu eta moldatuko gara. Eskerrrik asko!



JOSU OLAIZOLA

### Bikote txapelkun aramaioarra

Debagoieneko pilota txapelketako infantil A mailako txapela jantzita agurtu zuten urtea Julen Olaizola eta Markel Arriolabengoa pilotari gazteek. 18-10 menderatu zuten Peru Galdos oñatiarrak eta Oxel Garitano arrasatearrak osatutako bikotea. San Martin txapelketan ere garaile izan ziren etorkizun oparoa daukaten bi pilotariak. Zorionak bie!

# Arrapalan gora eta behera skate gainean

Gaur, urtarrilak 5, inauguratuko dute Markole auzoan egindako skate parke berria; Arrasateko Arraska skate taldeko kideek trebakuntza saioa eskainiko diete gaztetxoek goiz partean, eta arratsaldean txapelketak egingo dituzte

## Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko eta inguruko gaztetxoek dagoeneko probatu dute Markole auzoan, Ibarra kiroldegi aurrean, egindako skate parkea. Gabonetan bukatu dituzte lanak eta gaztetxoak bete da inguru guztia egunotan. Gaur, urtarrilak 5, inauguratuko dute.

## Trebakuntza eta txapelketa

Hasiberriendako parke aproposa dela jakinarazi dute Arrasateko Arraska skate taldeko kideek, eta gaur egingo duten inauguratze ekitaldian trebakuntza saioa eskainiko dute 11:00etatik 13:00etara bitartean: "Arrapaletatik zelan jaitsi, eskudeletan zelan ibili eta beste hainbat trikimailu erakutsiko dizkiegu umeei eta ikasi gura duen orori", dio Aitor Akizu kideak. Materiala ere eramango dutela iragarri dute, proba egin gura duen edonori uzteko. Arratsaldean, 15:00etatik 17:00etara, ostera, txapelketak izango dira: "Hainbat kategoria zehaztuko ditugu, eta sari asko banatu".

## Emaitzarekin gustura

Kaleko estiloa duen skate parkea da, 500 metro karratu ingurukoa, eta kaxak edo kaxoiak, eskudelak eta enborrak ditu, besteak beste. Kalitatezko parkea dela



Gaztetxoak Markole auzoko skate parkean, martitzenean. XABI URZELAI

jakinarazi du Akizuk: "Ondo dago benetan, aspaldian hain parke onik ikusi gabe geunden", eta gaineratu du: "Parke batek ez dauka zertan handia izan. Hobe da neurrikoa izan eta ondo egindako lau gauza eduki".

Contratas Fer enpresak egin ditu lanak eta ia 80.000 euroko kostua izan du. "Diru gutxiago geneukan aurreikusita baina proiektua egiterakoan hainbat lagun gerturatu zitzaizkigun esanaz ez egiteko u itxurako ohiko parke bat. Arkitektoak bere aldetik diru gehiago bide-

ratzeko aholkatu zigun parke itxurosoa egiteko, eta Aldundiaren diru-laguntza bati esker egin dugu", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak. Eta emaitzarekin gustura agertu da: "Ingurua txukuntzea geratzen da oraindik, lurra landu eta hazia botatzea belarra hazteko, eta hori egindakoan polita geratuko da". Gazteek jakinarazi diote argi gehiago behar duela inguruak iluntzen duenean: "Aztertuko dugu eskaera, baina gau guztirako behintzat ez dugu jarriko argirik".



Kurtzebarri mendian egindako kartzela, abenduaren 31n. GOIENA

## Kontzertuak zapatuan, 'Kalera, kalera' ekimenak antolatuta

Kixkorren, Ezkutun eta Urbaltzen izango dira; bihar, ostera, autobusa joango da Donostiako giza katera

## M.A. ARETXABALETA

*Kalera, kalera, bakea eta askatasuna irabaztera* ekimenak deituta, kontzertuak egongo dira zapatuan, urtarrilak 7, herriko hiru tabernatan. Kixkorren Hemen taldea izango da 18:00etan; Ezkutun HKB, 19:00etan; eta Urbaltz tabernan, Jasan, 22:00etan.

Egubakoitzerako, urtarrilaren 6rako, gainera, Donostian egingo duten giza katerako deia egin dute ekimeneko kideek. Ekitaldia 18:30ean izango da eta autobusa joango da Aretxabaletatik hara 16:15etik irtenda Azbeko

geltokitik; txartelak salgai dituzte Urbaltzen.

## Sarek deitutako manifestazioa

Bestetik, Sarek deitutako kampañarekin ere bat egin dute herrian, eta *Aretxabaletak salatzan du* leloarekin kartzela eraiki zuten abenduaren 31n Kurtzebarri. Egun horretan bertan elkarretaratzea ere egin zuten, Herriko Plazan, urtero lez.

Eta urtarrilaren 14an Bilbon egingo duten manifestaziorako txartelak salgai dituzte dagoeneko Urbaltz eta Azkena tabernatan.

## Mozorroak sortzeko ikastaroa egingo dute Kurtzebarri eskolan

Birziklatutako materiala erabilita Iurgi Etxebarriaren gidaritzapean izango dira eskolak, egunetan

## M.A. ARETXABALETA

Urtea berrian sartzearekin batera Aratusteekin pentsatzen hasi dira aretxabaletar asko, eta horregatik mozerro ikastaroa antolatu du Kurtzebarri eskolako Gurabarri guraso elkarteak. Urtarrilaren 19an hasita egunetan izango dira eskolak, 17:00etatik 18:30era bitartean, Kurtzebarri bertan. Eta Iurgi Etxebarriak gidatuko ditu, hain zuzen ere mozerroak sortzen 35 urteko esperientzia duen aretxabaletarrek. Ikastaroa gomendatu die 10 eta 12 urte arteko

neska-mutikoei "erremintak erabiltzeko nagusitxo" izatea komeni delako, eta 20 lagunendako dute lekua. Izena emateko epea urtarrilaren 12an itxiko dute, eta eskolako idazkaritzara jo behar da horretarako; prezioa da 12 euro.

## Birziklatutako materiala

Mozorroak sortzeko irudimena eta birziklatutako materiala erabiliko dituztela iragarri dute antolatzaileek, eta gomendatu amantalak edo zikin daitekeen arropa eramatea.



**KAIET**  
ARETXABALETA

"Patinetarekin etortzen naiz eta ikasten nabil zelan egin salto; hormak gustatu zaizkit horretarako. Jende asko dabil baina ez dago arazorik".



**MANEX**  
ESKORIATZA

"Behin baino gehiagotan etorri naiz eta ondo dago. Patinekin eta skatearekin etorri izan naiz eta salto egiteko jarri duten perretxikoa gustatu zait gehien".



**MIKEL**  
ARRASATE

"Parke polita jarri dute baina lekua dagoenez handiagoa egitea bazuten. Ni patinekin ibiltzen naiz eta kaxa txikietan nabil gustura, baita arrapaletan ere".



Umeak eta Basotxoko kantu-taldeko kideak kantuan kalerik kale, Gabon egunean, txistulariekin batera. MIRARI ALTUBE



Bizarzuri gozokiak ematen. M.A.



Ume bi Olentzerorekin eta Mari Domingirekin. M.A.



Amaia Elorza erakusleihu politenaren saria jasotzen alkatearen eskutik. A. TXINTXURRETA



Umeak jolasean, parkean. M.A.

# Erregeen desfilea gaur Gabonak agurtzeko

Olentzero, Mari Domingi eta Bizarzuri pasatu ostean datoz hiru Errege magoak umeen azken gutunak jasotzera eta gozokiak banatzera; asteen jolas parkea ere izan dute, horiek Ibarra kiroldegan, opor egunetan ez aspertzeko

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Errege magoen desfileak agurtuko ditu Gabonak beste urte batez. Ohi legez, 18:30ean, irten-go dira Ibarra kiroldegitik, Leizarra musika eskolako musikariek eta gurasoek lagun eginda, eta kalerik kale joango dira Herriko Plazaraino; kantuan egingo diete han musika eskolako abesbatzako umeek.

Aurretik Olentzero eta Mari Domingi eta Bizarzuri ere pasatu ziren herritik eta jolas parkea ere izan dute neska-mutikoez opor astea girotzeko. Horiez gain, Ituiño magoaren ekitaldia izan da, *Mami Lebrun* antzezlan dotorea, *The Upper Room* taldearen gospel emanaldia eta Aretxabaeta Abesbatzaren kontzertu bikaina, besteak beste.

**Amaia** erakusleihu politena Amaia ume dendak jaso zuen erakusleihu onenaren saria. Aretxarteko komertzioetan gatzeko 300 euroko bonua eman zion alkateak sarritzat. Euskarazko mezu onenaren saria –150 euro–, ostera, Imanol harategiak eskuratu zuen honako esaldi honegatik: *Ametsik gabeko bizia, izarririk gabeko gaua*.

## Futbol zelaia egiteko diru laguntzari itxoingo diote

Proiektua aurkeztuko du, Aldundiak urtarrilean egingo duen aisialdi eta kirol instalazioendako laguntza deialdira

**M.A.** ARETXABAETA

Ibarra kiroldegi aurreko zelaian futbol zelaia egiteko asmoa du Udalak. Proiektua dagoeneko eginda dauka eta urtarrilean Foru Aldundiak egingo duen diru laguntza deialdira aurkeztuko du: "Horrek erabakiko du aurrera egingo duen edo ez", dio Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu du: "Proiektuan aurreikusi da 380.000 euro inguruko gastua. Murriztu egingo dugu hori, baina kopuru handia da eta diru laguntzak asko lagunduko luke". Otsail bukaerarako jakingo dute

laguntza hori iritsiko den edo ez. "Trailerako eginda gurako gure, eta saiatuko gara horretan".

Zazpiko futbolerako zelaia izango da, eta 50 metro luzeran eta 30 metro zabaleran izango ditu: "Zabaletara kokatuko dugu zelaian, aldapa txikiagoa dagoelako. Hala ere, oraindik hainbat kontu daude zehazteko".

UDaren beharrak asetzeko egingo dute zelaia, neska-mutiko asko entrenatzen direlako orain Ibarra, baina gainerako orduetan herritarrendako zabalik egingo da.



M.A.

## Ikasleen enpresen azoka ALEN

Zazpi enpresa sortu dituzte Aretxabaeta Lanbide Eskolan Ikasapresa proiektu barruan, eta ekoiztutako produktuak erakutsi eta saldu zituzten eskolan bertan egindako azokan –kamiseta pertsonalizatuak, dekorazioko objektuak, argiztatutako errotuluak...–. Ordukoarekin pozik geratu ziren ikasleak, eta orain helburu dute Eibarren otsailean egingo den azoka.

### 'Sully' filma dute helduek egunotan eta 'Vaiana' umeek

Clint Eastwood zuzendari eta aktore ezagunak zuzendutako *Sully* (AEB, 2016, 96 min.) filma izango dute helduek bihar eta etzi (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00).

Umeek, ostera, *Vaiana* marrazki bizidunen filma izango dute; bihar bi saio izango dira (16:30 eta 18:30) eta zapatuan eta domekan bana (17:00).

### Gu Haziak Gara elkarteko enpresak astelehenean hasita

Gu Haziak Gara elkarteko kideek orain arte egindako hainbat lan erakutsiko dituzte Arkupeko erakusketa aretoan; besteak beste, musika eskolakoendako egindako bederatzi gona, Kurtzebarri eskolakoendako egindako 60 gona gorri eta hamabi azpikogona, eta hainbat txotxongilo. Astelehenean zabaldu eta hila-bete guztian egongo dira ikusgai.

# Errege magoen desfilerako dena prest

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege magoak Eskoriatzara etorriko dira 18:00etarako. Gozokiak banatuko dituzte kaleetan zehar, eta, Jesukristo bisitatu ondoren, umeekin izango dira euren gutunak jaso eta pixka bat euren hitz egiteko

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege magoak Eskoriatzan izango dira gaur. Herriko gaztetxoek ilusioz ikusten dute urtero Errege magoen etorrera, eta, gozoki ugari eskuratzeaz gainera, euren errege kuttunenari eskutitza eman eta eurekin pixka bat egoteko aprobetxatuko dute.

Lehenbizi, hiru Errege magoak eta euren laguntzaileak zaharren egoitzara joango dira, egoiliarrei opariak ematera. Ondoren, 18:30etan kiroldegitik aterako dira desfilea egingo duten partaide guztiak; hiru Errege magoak, erromatarrak, soldaduak, antortxeroak, danbor-joleak, umeak baserritar jantziarekin... eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte astoaren gainean eramango dituzten opariekin. Egingo duten ibilbidea, berriz, honako hau izango da: kiroldegia, Intxaurtxueta, Gaztañadui, Arbiñoste, Jose Arana eta Herriko Plaza.

**Hainbat berrikuntza**

Aurten hainbat berrikuntza izango dira, gainera. Batetik, gabon kankak bozgorailuetatik jarriko dituzte, musika zuzenean egin beharrean. Bidean zehar, Errege magoen laguntzaileek intentsua, mirra eta urrea kutxetan eramango dituzte desfilea janzteko, eta, saioaren amaieran, berriz, herritarrentzat txokolate-jana izango da Herriko Plazan. Horrez gain, antzezlan berri batekin osatuko dute desfilea.

**Figura berria desfilean**

Ekialdeko Errege magoak, Jesukristo jaio ondoren, hura bisitatzera joan zirenen Belongo izarrari jarraituz, jaioberria gurtzera eta, bide batez, opariak eramatera. Honen harira, pertsonaia berria ezarri nahi dute antolatzaileek desfilean. "Errege magoak juduen erregea bisita-



lax, hiru Errege magoak Herriko Plazan umeen eskutitzak jasotzen. I.B

## BOZGORAILUEN BIDEZ ENTZUN AHAL IZANGO DIRA GABON KANTAK ERREGE MAGOEN DESFILEAN

### Herodesen antzezpena

lax, lehen aldiz, Errege magoen desfilean geldione txiki bat egin zen Arbiñosteko bidean. Bertan, Herodesen gazteluko sarrera irudikatu zuten, eta historiaren zati bat kontatu zuten.

Aurten, aldiz, antzezlan egingo da Jose Arana zaharren egoitzako atarian. Bertan, Herodes egongo da bere gazteluan, bi erromatarrek lagunduta, eta hiru Errege magoak bertara joango dira lehenbizi. Geldiunearen ostean, bidearekin jarraituko du desfilea.

tzera joan zirenean, Herodesen gaztelura joan ziren, nahastuta, hala dio ebanjelioak, eta figura hori ere sartu nahi dugu desfilean. Zaharren Egoitzako atarian errepresentazio txiki bat egingo dugu, eta hortik plazara joango gara; kasu honetan, Jesukristo jaio den estalpera...", azaldu du Imanol Andetxaga antolakuntzako kideak.

**Karroza barik, astoa**

Aspalditik ez da izan karrozarik Eskoriatzako Errege magoen desfilean, baina azken urteotan astoaren laguntza izan dute. Aurten ere izango da, eta, desfilea janzteaz gain, opariak plazaraino eramateaz arduratuko da.

**Partaide beharra**

Antolakuntzak herritar guztiei gonbidapena luzatu nahi die desfilea ikustera joateko edo bertan parte hartzeko. Honela azaldu du Andetxagak: "Helduei antortxero moduan joateko eskaera egin nahi diegu. Bestalde umeek parte hartu nahi badute, 18:00etan, baserritar jantzita, kiroldegian egoten badira artzain moduan irten daitezke.

## Atzo izan zen EH Bilduk antolatutako herri batzarra

Eskoriatzako udal aurrekontuak herritarren esku jarri nahi dituzte, denen iritzia jasotzeko helburuarekin

**I.B** ESKORIATZA

Udal aurrekontuak onartu ondoren, EH Bilduk herri batzarra deitu du, *Aurrekontuak herritarren zerbitzura jartzea, Eskoriatza denon herria* lelopean. Batzarra atzo izan zen, kultura etxean.

Bilduk adierazi du beraien jarrera "eraikitzailea" izan dela, eta helburua udal kudeaketaz harago etorkizuneko herria eraikitzeari bidea zabaltzea izan dela. Horretarako, "herri bizitza sustatzea" beraien lehen tasuna izango dela adierazi dute.

Gaur egun, kezka piztu duten sintomak daudela adierazi dute, "herri dormitorio" delakoa bihurtzeko arriskua ikusten dutelako. Honen aurrean, "herritarren parte-hartzea eraginkor bihurtzea, bizitza soziala eta merkataritza bultzatzea eta prekaritateak sortzen dituen desberdin-

tasun sozialak gainditzea, lehen pausoak direla ikusi ditugu". Hau gaineratu dute: "Norabide honetan egindako proposamen batzuk onartuak izan dira aurrekontuetan; pauso bat izan daiteke, baina ez da nahikoa, ikusi arte nola gauzatuko diren".

**Herri batzar erabakigarria**

Herritar guztien iritzia emanez, herri auzolana bultzatzea "oso garrantzitsua" izango dela azaldu du EH Bilduk: "Batzarra horretarako erabakigarria izango da".

Alde batetik, aurrekontuen egoeraren berri eman nahi dute, iritzia elkartrukatzeko eta erabakiak herritar guztien artean hartzeko. Hala, "aurrekontuak nola landu behar diren jakiteko, zein zuzenketa diren beharrezkoak, eta etorkizuneko Eskoriatza marrazten hasteko".

## Paulie & The Wood String eta Skovers taldeek ez dute joko

Inkernu tabernaren hamahirugarren urteurreneko datozen bi kontzertuak bertan behera geratu dira, osasun arazoengatik.

Paulie & The Wood String talde berria urtarrilaren 7an zen jotzekoa eta Skovers talde eskoriatzarra, berriz, urtarrilaren 14an, baina bi kontzertuak ez dira gauzatuko osasun arazoengatik.

## Postu garbiketa arrakastatsua Eskoriatzan

Abenduaren 30ean, egubakoitzean, Aldaye ehiza elkarteak urteroko postu garbiketa egin zuen. Hain zuzen ere, hamabi lagun batu ziren postu garbiketa egiteko eta arratsalde osoa eman zuten mendian.

Lete, Apotzaga, Marin eta Alabitako parke naturaleko postuak garbitu zituzten. Zaborra eta kartutxoak jaso zituzten, guzti-

Paulie & The Wood String taldeko Eñaut Zubizarretak -biolontxeloa- bi atzamar apurtu ditu eta Skovers taldeko Iñaki Kortazarrek -bateria-jolea- lotailua (ligamentua). Honen ondorioz, emanaldiak atzeratzea pentsatu dute antolatzaileek. Hauze adierazi du Kortazarrek: "Bertan behera utzi ditugu. Eñautek bi atzamar apurtu ditu eta nik ere hankako lotailua ez daukat ondo. Dena den, aurrerago emango ditugu kontzertuak, baina data zehazteko daukagu..."

ra sei poltsa. Hala ere, Aldaye elkarteak Gerardo Canterak azpimarratu du mendia garbi dagoela: "Esan beharra dago ibili ginela ehiza postuak eta inguruak garbitzen, baina oso txukun zegoela. Mendiaren egoera aztertzea da ekimen honen asmoa. Dena den, zaborra jaso arren, aurretik kontzientziatu behar dira ehiztariak eta mendian ibiltzen diren guztiak mendira goazenean, garbi utzi behar dugula, hala, ez dagoelako garbitu beharrik".





Gabonetako parkean jende dezente izan da egunotan. MIRIA BIKUÑA

## Aurten ere arrakastatsua izan da Gabonetako parkea

Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldagian jarritako jolas-parkean 387 haur izan dira, guztira, bi egunetan

### I.B. ESKORIATZA

Manuel Muñoz kiroldagian jarritako Gabonetako parkean jende dezente batu da bi egunetan. Maider Etxaniz gazteria teknikariaren esanetan: "Guztira, 387 haur egon dira bi egunetan. Horiek hiru urtetik gorakoak izan dira; hiru urtetik beherakoek ere euren txokoa izaten dute, baina, hauek ez dutenez sarrerarik ordaintzen, ez ditugu kontatu."

Batez ere arratsaldeetan izan da jende gehien parkean, baina lekua izan da denentzat. "Kopuru polita izan da bertan, puzga-

rrietara igotzeko ilarak ez direlako oso luzeak izan. Galdetutako haurrak pozik agertu dira parkeak emandakoarekin".

'Alcatraz' puzgarria gustukoena Antolatzaileek adierazi dutenez, eroandako jolas, joko... guztietatik *Alcatraz* izeneko puzgarria izan da arrakasta handien izan duena.

Bestalde, eskulaneak arrakasta handia izan dute: "*Hama beads* izeneko materialekin gauza asko egin dituzte gurasoek zein euren seme-alabek eta tailer hori jendez gainezka egon da".



I.B.

## Saskibaloiaz gozaten ari dira

Aresko Saskibaloia Eskolak antolatutako Gabonetako campusa izan da aste honetan. Martitzenean hasi zen, eta gaur eguerdian amaituko da. Iaz baino gazte gutxiago egon arren, 2005ean eta 2006an jaiotako neskak gustura aritu dira campusean. Gainera, Izar Bedia Eskoriatzako jokalaria ohiak saskibaloia inguruko azalpenak eman dizkie gaztetxoek.

# Astelehenean irekiko dute Gatzagako ludoteka

Asier Urizar herriko gazteak egingo ditu monitore lanak; astelehenean, martitzenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan egongo da irekita 17:30etik 19:00etara, eta mota guztietako ekintzak antolatuko dira bertan, herriko haurrentzat

### Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Astelehenean aurrera irekita egongo da Gatzagako ludoteka, haurrek bertan jolastu eta ondo pasatu dezaten.

Ohi baino beranduago ireki dute aurten, arazo batzuk direla eta. "Aurten luzatu egin gara, kosta egin zaigulako pertsona baten kontratazioa antolatzea. Ditugun baliabideak murriztak dira eta guztientzako ahalik eta egokien egin ahal izateko asmatan, luzatu egin zaigu kontua", adierazi du Aitziber Gorosabel Gurel gurasoen elkarteko kideak.

Astelehenean, martitzenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan irekiko da, 17:30etatik 19:00ak arte, eta Asier Urizar gazteak egingo ditu monitore lanak. Egunetan eta asteburuetan itxita egongo da.

Mota guztietako ekintzak antolatuko dira, gune hau aprobetxatuko duten haurrei zuzenduta. "Edozein herritako ludoteka batek izan dezakeen funtzionamendua edukiko du, egun eta ordu horietako denbora-pasa bezala, alegia. Baina gure herrian hori bereziagoa izaten da, hemendik herrira begira egingako ekintzak ere irteten direlako. Orain, Gabonetan, adibidez, argazki lehiaketa bat antolatu da eta hori ludotekatik garatu-



Herriko haurrak ludotekan, monitoreekin. ENEKO AZURMENDI

tako zerbait izan da", azpimarratu du Gorosabelek.

### 10 ume inguru

Gorosabelen esanetan, urtero 10 bat umek ematen dute izena gune hau aprobetxatzeko. Hala ere, txikienek bakarrik erabiltzen dute gero, nagusitu ahala, alboko herrietara joaten baitira herriko haurrak, eskolaz kanpoko ekintzarik ez dagoelako.

### Umek, gaua bertan

Oraindik ludoteka erabilera ez duen arren, Gabonak direla eta,


asteen zehar gau bat pasatu dute herriko umek bertan. "Umeendako izugarria izaten da ludotekan lo egitea. Oso ondo pasatzen dute eta asko disfrutatzen dute", azpimarratu du gurasoen elkarteko kideak.

Umeei beraiei hitza emanda, mota ezberdinetako jolasak egingo dituztela adierazi dute. Horrez gain, oso gustura azaldu dira herrian denak batzeko eta ondo pasatzeko aukera ematen duen gune bat edukitzeagatik.

Hasiera baten, ekainera bitartean egongo da zabalik ludoteka.

## Haur eta heldu, argazkigintzan

Gurel guraso elkarteak antolatuta, argazki lehiaketa egin dute Gatzagan Gabonetan; umeen gaia mendia izan da eta helduena, berriz, argazki zaharrak; Iker Galloren argazkia izan da irabazlea haurren kategorian eta Aratz Oinederrarena izan da aurkeztutako argazki zahar onena, herritarren botoen arabera. 15 bat parte-hartzaile izan dira guztira.



IKER GALLO



ARATZ OINEDERRA



Valleko kondearen erakusketa izan da 2016an bisitari gehien izan dituenetakoa bat. IMANOL SORIANO

## Aroztegi aretoa, urte berriari ekiteko gertu

Urtarrilean herriko taila eta buztzingile elkartekoen lanak eta 'Azken batailoia' argazki erakusketa izango dira ikusgai Barrenkaleko gunean. Urteko apustu nagusia, berriz, herriko emakumeak protagonista izango dituen erakusketa luzea izango da

**M.T. BERGARA**

Amaitu berri den 2016. urtean diziplina askotako artisten lanak ikusteko aukera izan da Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Tartean, Udalak nabarmendu duenez, herriko artista edota elkarte ugari izan dira.

Nabarmentzekoen artean, Maite Agirre kultura zinegotziak Asier Altuna zinegilearen *Ama* filmari buruzko erakusketa nabarmendu du, eta Bergarako artxiboak jarri duena, Valleko kondeari buruzkoa. Izan ere, azken horrek herritarren alde-tik erantzun oso ona izan zuela nabarmentzen dute.

### Urtarrilekoak

Urtarrilean ere herriko elkarteak izango dira Aroztegiako protagonista; oraindik ere ikusgai dago Gabonetan taila eskolak jarri duen erakusketa, hurrengo egubakoitzera arte.

Bada, hilaren 13an buztinzale elkarteak bere mostra inaugu-

### Emakumeen presentzia

Aurtengo egitarauari begira, Maite Agirre Udaleko kultura zinegotziak dio nabarmentzekoen artean dagoela martxoan egingo duten erakusketa berezia. Normalean Aroztegiok hiru asteo erakusketak jartzen dituzten arren, martxoaren 8an –Emakumeen Nazioarteko Eguna– inauguratuko dutena hilabete bukaerara arte izango da ikusgai.

Honako hau izango da 2017rako apustu nagusienetakoa. Izan ere, zinegotziak nabarmendu du emakume artistak badauden arren, oraindik ere euren presentzia ez dela gizonen bestekoa. Mostra honetan, protagonista guztiak emakumezkoak izateaz gain, denak ere bergararrak izango dira, Agirrek azaldu duenez.

ratuko du, 22ra arte ikusgai egongo dena.

Horren ostean, Intxorta 1937 kultur elkarteak jarriko du erakusketa, *Azken batailoia*, Mauro Saraviak gudari eta milizianoei ateratako argazkiz osatua.

### Zenbait berritasun

Pentekoste jaietarako kartel lehiaketako lanak izango dira

ikusgai Aroztegin aurten, eta herritarrek botoa emateko aukera izango dute. Lehenago ere, otsailean, Udalaren ideia lehiaketarekin lotutako erakusketa jarriko dute, herritarrek botoa eman dezaten.

Bestetik, aurtengo artista gonbidatua Juanjo Lopez Azurmen-di argazkilari bergararra izango dela aurreratu dute.



Talde desberdinetako musikariak eta Xabierren lagunak oholztan. IMANOL BELOKI



Musika eskolako umeen izenean oroigarria oparitu zieten familiakoei. I.B.

## Musikari eta rocker amorratu batendako omenaldirik ederrena

Herritar ugari izan zen Xabier Arrillaga bergarar gaztea agurtzeko egin zuten kontzertu hunkigarria ikusten

**I.B./M.T. BERGARA**

Urrian hildako Xabier Arrillaga gazteari eskainitako kontzertua egin zuten abenduaren 29an Seminarioan. Hotz handia izan arren, jende mordoia izan zen. Musika eskolako kide eta irakasleek, Azkater Pelox Triok, Diablues & Bluecifer-ek, Su Ta Gar eta EH Sukarra taldeetako Gorosabel anaiek eta Emon-eko kideek hartu zuten parte.

Hunkigarria izan zen kontzertua, eta Arrillagaren gustukoak ziren kantu ugari sartu zituzten erreperatorioan: Queen-en *We will rock you*, Su Ta Gar-en *Zain zure zain*, Diablues & Bluecifer-en *Etxera Bueltan*, Negu Gorriak-en *Aspaldiko loreak*...

Unai Azkarate –Azkater Pelox– pozik dago kontzertuak eman zuenarekin. "Sekulako omenaldi rockeroa izan da", dio. Iritzi berekoa da Asier Elortza, Xabierren irakasle izandakoa eta Diablues & Bluecifer-eko kidea: "Xabi musikazale amorratua zen, roc-

ker peto-pettoa... eta gaurkoa oso berezia izan da".

### Ute hunkigarriak

Kurtso amaierako kontzertuan, Xabier Arrillagak Azkater Pelox-ekin batera Laino skate parkean Bob Dylan-en *Knocking on heavens door* abestia abestu zuen, eta une hura errepikatu nahi izan zuten haren lagun, ikaskide, irakasle eta herrikideekin. Gainera, musika eskolako umeen izenean kontzertu hartako kartela oparitu zioten haren amari.

Aitor Gorosabelek –Su Ta Gar–, Arrillagak berari bidalitako gutun bat irakurri zuen eta momentu hunkigarriena izan zen. Hauxe adierazi zuen Gorosabelek: "Sorpresa izan zen gutuna jasotzea, amaieran jartzen du *Patxo bat Aitor, asko maite zaitut*, eta bihotzera heldu zitzaidan. Altxor bat bezala gordeko dut. Tristuraren barruan, zorionekoa sentitzen naiz eskutitz hau izateagatik".



Boluko frontoia estaltzeko lanetara bideratuko dute aurtengo partidetakoa bat. MAITE TXINTXURRETA

## %2,2 handiagoa izango da aurtengo aurrekontua

Udal Gobernuak 2017rako aurrekontuen proposamena aurkeztu du berriki. Dokumentuak jasotzen duen berritasun nagusienetakoa gazteak gurasoen etxetik joan ahal izateko alokairurako laguntzak ematera bideratuko duten partida da

J.I./M.T. BERGARA

EAJk eta PSEk osatzen duten Bergarako Udal Gobernuak urte berrirako aurrekontu proposamena aurkeztu zuen abenduaren 28an. Parte hartzearen aldeko apustua mantentzeaz gain, berritasun gisa gazteei etxetik joaten laguntzeko diru laguntzak hartzen ditu barne.

Orain, oposizioko taldeek -EH Bildu eta Irabazi- urtarrilaren 18ra arte dute Udal Gobernuaren proposamena aztertu eta euren ekarpenak egin eta emendakinak aurkezteko.

Behin epe hori amaituta, urtarrileko ohiko osoko bilkuran bozkatuko dituzte 2017ko aurrekontuak.

**Aurrekontu handiagoa**

2017ko aurrekontua 22.506.000 eurokoa izango da, iazkoa baino %2,2 handiagoa.

Aurrekontua igotzearen arrazoiak azaldu zituen Elena Letek, Bergarako alkateak. Hala, alde batetik, 2017ko ordenantza fiskalean adostu zen moduan, udal zergek KPIaren igoera bera izan

dute; %0,7koa, hain zuzen. Baina, horretaz gain, beste hiru faktore garrantzitsu izan dira aurrekontua handitzeko, alkatetik dioenez: batetik, Foru Aldundiko Funtsetik 139.000 euro gehiago jaso izana; bestetik, Larramendiko industrialdeari esker eraikuntza zergen sarretan izandako igoera; eta, azkenik, plusbalioen zergaren kudeaketa hobetzeak eragin duen 95.000 euroko gorakada.

**Parte hartzea**

Beste ildo batean, herritarren eta eragileen partaidetza sustatzeko iazko partida handituko dutela ere iragarri zuen Elena Letek. Horren harira, bi partida berezi aipatu zituen, inbertsioetara bideratutako diruaren %6 hartuko dutenak: bata, 80.000 eurokoa, oposizioaren emenda-

kinentzat, eta bestea, berriz, 100.000 eurokoa, Udalak antolatu duen ideia lehiaketatik eratorri daitezkeen proiektuak aurrera eramateko erabili ahal izango dutena.

**Gazteen alokairurako laguntzak**

Nabarmentzekoen artean, berritasun gisa, herriko gazteak gurasoen etxetik joan ahal izateko diru laguntzak jaso ditu Bergarako Udal Gobernuak aurkeztu duen aurrekontu proposamen horretan, alokairua bultzatuta, hain zuzen.

Hala, gazte bergararrek etxebizitzak alokatu ditzaten 30.000 euroko diru laguntzak aurrekusten ditu aurrekontuak, eta herrian dauden etxe hutsak alokairura bideratzeko neurriak hartuko dituztela ere iragarri zuten aurkezpenean.

## Su-itzalgailluak hustu dituzte Burdiñateko garajeetan

Bizilagunek salaketa jarri dute ezezagun batzuek alarma sakatu eta 20 hautsezko itzalgaillu hustu zituztelako

M.T. BERGARA

Burdiñateko bizilagunek salatu dutenez, abenduaren 23tik 24ra bitarteko gauean ezezagun batzuek garajeetan sartu eta alarmari eman zioten. Horrez gain, hautsezko 20 su-itzalgailluak hustu omen zituzten garajeetan bertan eta baita atarira igotzeko eskaileretan ere, lurra guztiz zurituta lagata.

Hori ikusita, goizaldean garaje jabeak salaketa jartzera joan ziren Bergarako ertzain etxera. Izan ere, ekintza horrek eragindako kalteak nabariak izan dira,



Garajeko lurra zurituta. MARIJO ETXAIDE

azaldu dutenez: "Garajeetako lurrak zuri geratu ziren eta goiko etxeetara joateko korridoretara ere igo ziren eta han ere hustu zituzten, dena zuri utzita, honek suposatzen duen zikin-keriarekin eta arriskuarekin".

Bizilagunek su-itzalgaillu guztiak berri behar izan dituzte, garajearen eta eskaileraren eta korridoreen garbiketaz gain.

**Ez da lehen aldia**

Bizilagunek azaldu dutenez, ez da Burdiñateko garajeetan antzeko zerbait gertatzen den lehen aldia; bai, ordea, orain arteko larriena. "Lehenago ere sartu izan dira garajeetan eta itzalgaillu bat edo bi hustu izan dituzte.", azaldu dute.

Oraindik, ez dakite nortzuk izan diren ekintza horren arduradunak.



NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA

## Urte harrigarri on!

Haurrek ere ez dute Olentzerorengan sinesten. Orain ez, behintzat. Ez dago guretzako opariak bizkarrean dakartzan ikazkinik. Olentzero urte osoan martxan dagoen vending makina da. Opariak existitzen al dira orduan? Opari batek oparitarako paperean bilduta behar luke, eta barruan, hiru sorpresa: iritsiko ote den zalantzararena, iristen deneko ezinegonaren eta ireki ondoreneko harriduraren. Jaso duzue halakorik Gabonetan? Egunean sorpresa bat jaso beharko genukeela entzun nuen nonbait. Handiak zein txikiak izan, lurra baino gorago jartzen gaituzte istant batez, gero lurrera indar gehiago erortzeko. Erorketa horrek ematen ei digu bizipoza. Hargatik, mendiko ikazkina berreskuratu nahi nuke urte berri honetan. Ikas dezatela haurrek esku hutsik Olentzeroren etorrerarekin amesten, eta helduek, oparitarako paperak era jasagarri batera mugatzen. Ez da lan makala, Luhusoko atxiloketek ere sorpresaz harrapatzen ez gaituzten garaiotan, baina urte harrigarri bat opa dizuet. Doaneko sorpresa onez bete!

# Bizarzuriren eta Errege magoen txanda heldu da

Lehena San Martin plazan izango da gaur arratsaldean haurren eskutitzak jasotzen. Iluntzean, berriz, Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek herriko erdiguneko kaleak zeharkatuko dituzte zaldi gainean. Elosura ere egingo dute bisita azken horiek

## Maite Txintxurreta BERGARA

Gaur, eguena, Errege magoak Bergaran izango dira. Lehenago, baina, 17:00etan, Bizarzurik ere egingo du bisita. Hari gutunak eramateko aukera izango dute haurrek, udaletxeko arkupean izango baita arratsaldean, eta ondoren txokolate-jana izango da San Joxepekoen eskutik.

Iluntzean, Errege magoen desfilea izango da erdiguneko kaleetan zehar. 19:00etan hasiko da, Udal Biltegitik abiatuta, eta bukaera ere bertan izango du, kalerik kale ibili ostean.

## Elosuan ere desfilea

Bergarako herrigunean ez ezik, Elosuan ere izango dira Errege

magoak. 18:00etan izango da euren desfilea, plazatik hasita.

## Autobusak Bergarara

Udalak gaur gauean inguruko herrietatik Bergarara joan etorrria egiteko autobusak jarri ditu. Hala, Eskoriatza-Eibar eta Elgeta-Antzuola linea izango da, tarteko herrietatik pasatuz.

## Umeak protagonista Gabonetan



**Oientzero eta Mari Domingi** Abenduaren 24an baseritar jantzita zeuden herriko ikastetxeetako umeekin batera atera ziren kantuan biak.



**San Silvestre solidarioa** Haurrek eta gurasoek San Silvestre lasterketaren azken metroak egin zituzten, Elikagai Bankuari laguntzeko ekimenean.



**Jolas parkea Labegaraietan** Zortzi urtetik gorako gaztetxoek abentura jolasez, puzgarriez eta bideo jokoez gozatu dute hiru egunez.



**Jolas parkea frontoian** Atzo arte izan da zabalik zortzi urtetik beherako jolas parkea Udal Pilotalekuan. Primeran ibili dira txikiak jolasean.

## Ander Murua, Gipuzkoako eskuz banakako txapeldun

Arrasatekoa izan arren Bergaran utzita jokatzen duen pilotaria probintziako onena izan da gazte mailan

### E.A. BERGARA

Pasa den egubakoitzean lortu zuen Gipuzkoako eskuz banakako txapela Ander Muruak, Zestoan jokaturako finalean.

Bestalde, urtero moduan, Gabonetako pilota saria jokatu da Udal Pilotalekuan.

Benjamin mailan, lau taldetan banatu zituzten pilotariak, eta garaileak Peru Mondragon, Harkaitz Ilarduia, Iker Agirrebeña eta Oier Lete izan ziren. Alebin mailan, bi talde izan ziren, eta Ibai Cabo eta Iosu Lazpiur izan ziren irabazleak. Infantil mailan, Iker Etxaniz izan zen onena; gazte mailan, Ildoia Agirrezabal; eta nagusietan, berriz, Unai Zubizarretak irabazi zuen, Beñat Iñarrari gailenduta (22-16).

Reyes Azkoitia antolatzailearen esanetan, oso giro ona egon zen frontoian eta txapelketa bukaera "benetan polita" izan zen.



Murua, txapel eta garaikurrarekin. R.A.

Beñat Rezusta ibili zen sariak banatzen, eta pilota sailak haren prestutasuna eskertu du.

Barru jokoan, irabazleak Urko Muruamendiaraz, Jokin Alberdi, Ekain Muruamendiaraz, Iñaki Blanco, Amets Urbina eta Andoni Pereira izan ziren.

## Lehengoak eta oraingoak, elkarrekin Eskubaloï Egunean

Azken urteetan, tradizio bihurtzen ari da eskubaloï sailekoek antolatzen duten Eskubaloï Eguna. Bertan, oraingo jokalarien eta jokalarizandakoen arteko partiduak jokatzen dituzte, baina lagunartean, ezer jokoan ez dela. "Harremanak estutzeko eta lagunartea sustatzeko helburuarekin antolatzen dugu egun hau eta oso polita izaten

da", azaldu du Josetxo Muniategik, eskubaloï saileko kideak. Muniategiren arabera, badira urte batzuk garai hauetan Eskubaloï Eguna antolatzen hasi zirela. "10 bat urte badira hau egiten dugula, beti Gabonetan".

Saileko kideak adierazi du zortzi bat partidu jokatu zituztela, gizonetakoekin zein emakumeetakoekin. "Adin desberdinetako jendea batzen da eta polita izaten da batzuen eta besteen artean sortzen diren lehiak ikustea", nabarmendu du.

## Zapatuan jokatuko dute Urteberriko Xake Txapelketa

Urtero moduan, Urteberriko Xake Txapelketa egingo dute Gaztetxeko aretoan, urtarrilaren 7an, zapatua, 16:30ean. Txapelketa hau urtero antolatzen dute Gaztetxeak eta Bergarako Atletiko Zaleak Xake Taldeak, Gabonen bueltan.

Horrez gain, domekan, sukaldaritza beganoaren gaineko ikastaroa egingo da, 16:00etan.

## Take Coach taldearen aurka jokatuko du Soraluce BKEK

Sailkapeneko azken postuetan dago Soraluce BKE, hiru garaipenekin eta zazpi porrotekin. Asteburu honetan, baina, egoera horri buelta eman eta goranzko bidea hartzeko aukera dute bergararrek, egoera berean dagoen Take Coach taldearen aurka etxean jokatuko duten partiduan. Zapatuan izango da hori, 16:30ean, Labegaraietan.

# Bide trafikoa, herriko zarata iturri nagusia

Herriko zaratei eta kutsadura akustikoari buruzko txostena kaleratu du Udalak. Horren arabera, bide trafikoa da bergararren eragin handiena duen zarata iturria. Dena den, herritarren %60 eremu lasaiei dagozkien zarata mailen eraginpean bizi da

## Maite Txintxurreta BERGARA

2006an hasi zen Bergarako Udala kutsadura akustikoa murrizteko helburuarekin neurketak egiten. Udalerriko zarata mailak eta kutsadura akustikoa neurtu ditu Gasteizko AAC Acustica+Luminica enpresak, eta orain, neurketa horien emaitzak batzen dituen txostena jarri dute eskuagarri Udalaren webgunean.

## Bide trafikoa, iturri nagusia

Txosten honen arabera, bide trafikoa da bergararren eragin handiena duen zarata iturria. Hain zuzen, Zurradero, Ibarra, Masterreka, Aranerreka eta Matxiategi kaleetako biztanleak dira zarata mailarik altuenak jasaten dituztenak.

Dena den, herritar gehien kaltetzen dituen zarata erdiguneko trafikoak eragindakoa izan arren, kalte handiena eragiten duena, dezibelio aldetik, errepideetako da; batez ere, Gipuzkoa-627 eta AP-1 errepideek sortutakoa. Elorregi eta Mekolalde auzoak, Ibarra eta Ozaeta kaleak, Ortuibar eta Boni Lascurain pasealekuak eta San Martzialerako bidean daudenak dira dezibelio mailarik altuenak jasaten dituzten etxebizitza guztiak.

## Eguneko momentuaren arabera

Eguneko momenturik kaltegarriena, berriz, gaua da, kaltetutako biztanle gehien dituen aldia. Gauetz, biztanleriaren %1ek zarata mailaren helburua bost dezibeliotan gainditzen duten zaratak jasaten dituzte, eta badira hamar bat pertsona helburuok hamar dezibeliotan gainditzen dituzten zarata mailak jasaten dituztenak.

Txostenak jasotzen duenaren arabera, bergararren gehiengoa, biztanleen %60, berez eremu lasaiei dagozkien zarata mailen barruan bizi da eguneko momentu orotan, goizez, arratsaldez,




Zurradero da bide trafikoagatik zarata handien jasotzen duen kaleetako bat. M.T.

zein gauetz, ikerketa honek erakusten duenaren arabera.

## Industria jarduera

Halako neurketetan kontuan izan ohi den beste faktore bat industria jarduera da. Dena den,

Begararen kasuan, faktore honek herritarren eragin oso baxua da; %1era ere ez da heltzen. Zarata horien eragina gehien jasaten dutenak industrialdeetatik gertu dauden baserriak dira.



## Planoak, koloretan

*Bergara.eus* webgunean kantsultagarri dago zarata mapa. Bertan, metodologia, emaitzen taulak edota ondorioak azaltzeaz gain, iturri desberdinetatik datozen zaratek toki bakoitzean duten eragina erakusten duten koloretako planoak ere badaude.

## Autobusak izango dira Bilboko manifestaziora joateko

Sarek antolatuta, urtarrilaren 14an *Giza eskubideak, konponbidea, bakea* lelopean egingo dute ekimena

## M.T. BERGARA

Hurrengo zapatuan, urtarrilak 14, Sarek deituta, manifestazioa izango da Bilbon, *Giza eskubideak, konponbidea, bakea* lelopean. Bada, autobusa antolatuta dute hara joateko.

15:45ean abiatuko dira autobusak -17:30ean hasiko da manifestazioa-, Ibargaraiko autobus geltokitik. Herriko hainbat tokitan eman daiteke izena: Toki Ona Bodegoia, Laino, Txamonix, Azpeitxi, Labegaraieta, Konde okindegietan, Arrano, Pol-Pol, Kortazar, Depor, Euxebio II, Frontoiko taberna, Etxagi, Osintxuko Txuringo eta Angiozarko Beheko Tabernan.

## Presoak gogoan Gabonetan

Egunotan presoak gogoan izateko hainbat ekimen egin dituzte. Esaterako, Piztu Bergara



Flashmob-a Barrenkalean. GURE ARTERA

ekimenak eta Gure Artera Gaztelu taldeak antolatuta abenduaren 31n Barrenkalean egindako *flashmob*-a, preso bergararren etxeratzea eskatzeko. Bestetik, atzo, presoan aldeko kantaldia egin zuten Arrano tabernan.

## Saria izango dute aurtengo hileroko kultura agendek

Berritasuna dakarte 2017ko kultura agendek. *Hileko galdera* izeneko atala gehitu diote. Bertan, herriari buruzko galdera bat izango da, eta, parte hartzeko, erantzuna idatzi eta udaltxeko kutxan utzi behar da hilaren 15a baino lehen. Zabalotegi aretorako lau sarrera zozketatuko dituzte galderari ondo erantzuten diotenen artean.

## Maltzagatik Osintxurako sarrera itxita aste osoan

Maltzaga aldetik Osintxura sartzeko errepidean dagoen ezponda gogortzeari dagozkion lanak hasiko dira astelehenean, urtarrilak 9. Sarrera hori itxita egongo da aste guztian. Osintxura joan nahi duten herritarrek saihebidia erabili beharko dute, Gerondotik sartu beharko dira. Soraluzetik datozen autobusak gasolindegian geratuko dira.

## Helduendako zeramika tailerra egingo dute otsailean

Helduei zuzendutako zeramika ikastaroa antolatuta dute. Otsaileko lau zapatuetan egingo dituzte saioak (hilak 4, 11, 18 eta 25), 10:00etatik 12:00etara bitartean Zeramika elkartearen Zabalotegiko lokalean. Plaza mugatuak izango dira, eta interesatuek urtarrilaren 27ra arte eman dezakete izena 943779159 telefonora deituta. Ikastaroaren prezioa 25 euro da.

## Sukaldaritza begetariano tailerra gaztetxean

Domekan, urtarrilak 8, sukaldaritza begetariano tailerra egingo dute arratsaldez kartzela zaharrean, 16:00etan hasita, *Nola antolatu, hezi, sukaldatu, zaindu, jan, gozatu, begetariano izanda?* izenpean. Parte hartzeko interesa dutenek *bergarakogaztetxia@gmail.com* helbidera idatzita eman dezakete izena.

# Festa, musika eta kirola Gabon giroa borobiltzeko

Askotariko ekitaldiekin goatzeko aukera izan dute antzularrek abenduan eta urtarrileko lehen astean. Txikitxo zein heldu, Gabonetako magian murgilduta eta giro bikaina sortuz, kultura eta kirol sailek antolatutako ekintza ugari hartu dute

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Zalantza gabe, haurrak izan dira Gabonetako protagonistak. Makina bat ekintzaz goatzeko aukera izan dute; Olentzero eta Mari Domingirekin eta haur parkearekin, besteak beste. Helduendako ere izan da aisialdirako tartea eta gehientsuenek kirolarekin lotu dute: San Esteban krosa, areto futbol txapelketa, pilota txapelketa...

Kirol zinegotzi Garazi Larreak helburua bete dutela eta gustura agertu da: "Kirol ekintzak oso ondo irten dira. Krosean, ume zein heldu, ia 200 pertsona batu ziren. Oso polita izan zen. Jendea mozorrotuta, jaietako alkandorekin, kuadrilla handi bat gazte baten aldeko pankartarekin... Ikusten ere jende asko. Areto futboleko nesken zein gizonen partiduek ere jende asko erakarri dute. Alde txarrean, partidu bukaeran pilotalekua oso zikin geratu zela".

Alkateak parte-hartze handia eta giro ona nabarmendu ditu.

## Arrolan ongietorria 2017ari

Giro apartak eta freskoak lagunduta, Arrolan batu ziren urte berriari ongietorria egiteko. Salda beroarekin, urteroko ohitura bilakatu da Arrola mendira igotzea Urteberri egunean.



Olentzero eta Mari Domingi Herriko Plazan. IKER AIZKORBE



Urte berriari ongietorria egin diote Arrolan. JABIER ETXANIZ



Puzgarriak eta jokoak txikien gozameneko eskolako patioan. GOIENA



Haur parkeko zezen mekanikoak gaztetxo asko erakarri zituen. GOIENA



Patata Tropikalaren astelehenero emanaldia, Torresoroan. TIRAPU.COM



NIRE USTEZ

ANTONIO DEOGRACIAS

## Olentzerori gutuna

Erdiguneko lokal baten aurrealdean Olentzeroren kartoizko irudi handia jarria zuen jabeak. Neskato bat ari zitzaion begira liluraz eta sorpresaz, eta handik pasatzean esan zidan desioa eskatzen gutuna idatziz gero hark emango zidala. Etxerakoan idatziko niola agindu nion, baina pertsonalki, niri ez zitzaidala ezer falta. Hala ere, idatziko niola hark bere "nagusiari" esan ziezaion gehiago ardura dadila munduan gose diren haurrengatik, eta gogor zigor ditzala gobernatzen gaituzten iruzurgile, lapur eta litxareroak.

Saiatu nintzaion azaltzen neskatoari, modurik errazenean, politikoez legez kanpo etxeratzen duten diruarekin etxeak, janaria eta jostailuak eros zitezkeela premiak dituzten munduko umeentzat. Begira-begira geratu zitzaidan, begirada garden-gardena zuela, eta zera galdetu zidan: Hain gaiztoak ote dira ba munduan agintzen duten gizonak? Bai, laztana. Gaiztoak, oso; eta gutxien espero duzunean, bihotza ere lapurtzeko gai dira.

Ohartuko zara zu zeu ere horretaz.

## Urtarrileko ohiko osoko bilkuran 2017ko aurrekontuak berabagai

Urtarrilaren 17an, martitzena, egingo dute urteko lehen ohiko osoko bilkura, arratsaldeko zazpietan hasita. Udal Gobernuak 2017rako aurrekontuak erango ditu, onar daitezzen.

Iaz onartutako udal aurrekontua 2.629.343 eurokoa izan zen. "Aurrekontu errealistak eta parte-hartzaileak" izan zirela azaldu zuen orduan Udal Gobernuak.



Iazko A8M lasterketako parte-hartzaileak. JABIER ETXANIZ

# Otsailaren 19an egingo da azkenengoz A8M

Urtarrilaren 7an, zapatua, zabalduko da izen-emate ofiziala. Aurten ere, herritarren parte hartzea sustatzeko asmoz, hamar dortsal zozketatu dituzte aurrez. Irabazleak 'www.facebook.com/antzuolako8m' webgunean argitaratu dituzte jada

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Zalantzan egon den arren, 2017ko otsailaren 19an Antzuolako 8 Miliak lasterketaren bosgarren eta azken edizioa jokatu da.

Baina, zergatik azkena?: "Lehenengo ekitaldia, arrakastaz, bailarako Antxintxika taldeak antolatatu zuen hainbat antzuolarrokin batera. Bigarregorako, ordea, antzuolarrez osatutako lagun talde batek hartu zuen antolakuntzaren pisu guztia. Lehen ekitaldi hartatik, beste hiru ekitaldi aurrera atera ditugu arrakastaz. Kirol mailan, lasterketa herrikoi bat soilik gara, baina herri guztia mobilizatzea lortzen dugu egun horretan. Antolatzaileok 100 boluntario baino gehiagoren laguntza jasotzen dugu. Herri mailako ekitaldi bat antolatzen jardun duen edonork badaki azkeneko datu soil horrek, gaur egungo gizartean duen balioa. Baina, aipatu bezala, gu lagun talde bat soilik gara, eta hala ezin da kontu korrante bat za-

baldu, ezta aseguru bat kontratatu ere; hortxe okertu zaizkigu kontuak ia urtero. Arrolaren babesa bilatu izan dugu tramite horiek bete ahal izateko eta baita babes hori jaso ere. Baina, erantzukizunak hartzerako orduan, erantzukizun gehiegi hartzen dihardu eta ia beti A8M taldekoon izenean joan behar izan da lasterketa. Aurten azkenik, guk elkarte propio bat sortzeko proposamena jaso dugu. Gozamenerako antolatu dugu lasterketa eta noski, ez dugu inor estualditan jarri nahi. Beldurrak eta badaezpadako ukoak ere ulertzen ditugu. Ez dago errudunik kontu honetan", jakinarazi diote GOIENARI A8M taldeko antolatzaileek.

Hala, gogoeta egiteko bidea zabalik dagoela gaineratu dute, proba hau hil ez dadin eta jarraipena izan dezan.

Urtarrilaren 7an, zapatuan, zabalduko da *kirolprobak.com* webgunean, goizeko bederatzietan, izen-ematea.

## Herritarrendako egitaraua

Helduen lasterketako irteera 10:30ean izango da. "16-17 urteko gazteek parte hartzeko gurasoen baimena sinatuta bidali behar dute aurrez [antzuolako8m@gmail.com](mailto:antzuolako8m@gmail.com) helbidera", argitu dute. 11:00etan txikitxoan txanda izango da eta *minimoto* lasterketa egingo dute. Plastikozko motortxo eta kaskoa parte-hartzaileek eroan beharko dute. Gurasoek sinatutako baimena ere bertan jasoko dituzte antolatzaileek.

"Lasterketaren ostean hamaitzeko egongo da denendako lasterkari, haur zein ikusleentzat". 13:00etan egingo dute sari banaketa. "Lasterketa aurreko lanetarako eta baita egunean bertan ere askotariko lanak egiteko boluntarioak behar dira. Denetarikoa lanak izango dira; ez konplikatua: bidea markatu, horniduretan egon... Laguntzeko, posta elektronikoa izen-abizenekin [antzuolako8m@gmail.com](mailto:antzuolako8m@gmail.com) helbidera bidali daiteke".



Irabazleak, Jesus Kortabarría antolatzailearekin eta alkatearekin. GOIENA

## Urtarrilean jokatu dira mus txapelketako kanporaketak

Euskal Herriko Mus Txapelketako lehen kanporaketa urtarrilaren 13an jokatu da Mox tabernan

### M.A ANTZUOLA

Urtarrilean herriz herri jokatu dira Euskal Herriko mus txapelketara sailkatzeko kanporaketak. Antzuolan urtarrilaren 13an egingo da Mox tabernan lehen kanporaketa. Finala urtarrilaren 29an Arin jatetxean jokatu da.

### Kanporaketak urtarrilean

Zortzi hamarrekodun lau usteletara jokatu dira partidak kanporaketa fasean. Lehena, aipatu bezala, urtarrilaren 13an, egubakoitza, 22:30ean, Mox tabernan jokatu da; bigarrena, urtarrilaren 20an, egubakoitza, 22:30ean, Gailur tabernan; hirugarrena, urtarrilaren 21ean, zapatua, 16:00etan Ongietorri jatetxean; eta laugarren eta azken kanporaketa partida urtarrilaren 22an, domeka, 16:30ean, Eperra elkartearen.

### Izen-ematea

Parte hartu gura dutenek jokatu gura duten tokian bertan eman behar dute izena; bikoteko 20 euro ordainduta. Kanporaketa bakar batean soilik parte hartu daiteke. Kanporaketa egiteko, gutxienez lau bikotek parte hartu behar dute. Bikoteak herritarrez soilik edo senidetza lotura duen kanpoko batekin –baita Antzuolan lan egiten duen kanpotar batekin ere– osatu daitezke, baina ez bi kanpotarrekin osatutako bikotea.

### Finala, Arin jatetxean

Urtarrilaren 29an, domeka, 16:30ean, Arin jatetxean jokatu da finala. Ondoren, sari banaketa eta herrialdekora zeintzuk joango diren adieraziko da. Finalako partidak zortzi hamarrekodun hiru usteletara jokatu dira.

## Informatika ikastaroa antolatu du Landatxopek

2017an ere Landatxope erretiratu elkarteak modu oso emankor eta aktiboan ekintza eta irteerak antolatzen jarraituko du.

Hala, urteko lehen ekintza martxan jarria daukate, eta urtarrilaren 16tik 27ra bitartean informatika ikastaroa antolatu dute herriko erretiratuek ordenagailuko programak eta Internet menperatzen ikasteko.

Antzuolako KZgunean egingo dute hamar egun iraungo duen informatikako ikastaroa, eta dagoeneko eman dezakete izena interesa dutenek.

Urtarrilaren 9ra arte dago izena emateko epea zabalik, Landatxopek lokaleko bulegoetan.

Esan behar da gorputzeko luzaketan ikastaroa eguneroko egiten jarraitzen dutela Olanan etxeko bilera lekuan. Hala, 09:30etik 10:00ak bitartean makina bat luzaketa egiten dute bertaratzen diren erretiratuek.

# Hamaika ekintza herrian Gabonak girotzeko

Elgetar gehienendako aisialdirako egunak izan dira aurrekoak. Eguberriak lehenengo eta urte aldaketa ondoren, askotariko ospakizunak izan dira herrian eta nork bere gustukoak aukeratu ditu. Protagonista handienak, zalantza barik, umeak izan dira

## Larraitz Zeberio ELGETA

Familian eta lagunartean eman dituzte Gabonak elgetar gehienek. Aurten ere urteroko hitzorduak izan dira herrian: Olenzeroren etorrera, Gabon eskea, Gabonetako haur parkea, musika ikasleen emanaldi berezia...

Horiekin batera, udal liburutegiak antolatutako marrazki lehiaketan saritutako lanen berri izan du. Arrasateko udal bibliotekako langileek egin di-

tuzte epaimahai lanak eta Ines Egizabalen eta Uxue Gallastegiren marrazkiak saritu dituzte. Aipamen berezia jaso du Amaiur Guridiren lanak.

Herritarrek aurkeztutako eskulanekin egindako erakusketa ere ikusgai izan da buztin gelan. Udalak parte-hartzaileen artean egindako zozketan, Janire Lopez egokitu zaio eskulangintzan jarraitzeko material sorta. Gustura ibili dira, baita ere, Etor

Garatek egindako kirol jardueretan parte hartu duten gazte txoak. Besteak beste, patinetan eta bizikletan ibili dira Garateren gidaritzapean.

Eta erretiratuen artean lau emakume dira Elgetako tute eta briska txapelak. Jesusa Iturrikastillo eta Asun Arruabarrena nagusitu dira tutean eta Nati eta Arantza Arrieta ahizpak briskan. Debagoieneko txapelketarako sailkatu dira.



Olenzero udaletxeko arkupean Elgetako neskatila bati harrera egiten. LARRAITZ ZEBERIO



Gabon eskean, abenduaren 24an. L.Z.



Elgetako hiru musika ikasle Espaloian egindako Gabonetako emanaldi berezian gitarra jotzen. L.Z.



Erretiratuen tute eta briska txapelak. JUAN MARI ARANTZETA



Gabonetako haur parkea, frontoian. L.Z.



Gaztetxoekin egindako kirol irteeretako bat. ETOR GARATE



# "Irekierak aurreikuspen guztiak gainditu ditu"

Spaloia13 Kafe Antzokiko kudeatzaile berri Xabi Ulazia gustura azaldu da eta hasierako egunen "oso balorazio positiboa" egin du; aurrerantzean ere, aurreko urteetan eraman izan den bidea jarraitzeko asmoa erakutsi du, kultura ardatz hartuta

**Eneko Azurmendi** ELGETA

Abenduaren 23an izan zen Spaloia13 Kafe Antzokiaren irekiera emanaldia –kudeaketa berriarekin, izena ere aldatu egin diote–. Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariek, Jon Gurrutxaga abeslariak eta The Vartools musika taldeak osatu zuten jaialdia. "Zoragarria izan zen. Jendez lepo bete zen antzokia. Ez genuen hainbeste jende espero, aurreikuspen guztiak gainditu ziren eta jenerorik gabe gelditu ginen", adierazi du antzokiko kudeatzaile berri Xabi Ulaziak.

Bestalde, Urtezahar eguna ere "bikain" joan zela nabarmendu du. "Txikiteoan jende ugari ibili zen eta gauean ere bai. Gainera, jendea gustura ikusi genuen", zehaztu du.

Kudeatzaile berria gustura dago hasierako egunetan jendeak izan duen erantzunarekin eta eskerrak eman nahi izan dizkie bertaratutako guztiei eta "balorazioa positiboa izan dadin lagundu duten guztiei".

## Kultura ardatz

Ulaziak nabarmendu du antzokiak aurreko urteetan eraman izan duen bidea jarraituko dela, kultura ardatz hartuta. "Datozen Gabonetan Spaloia13 lehen urteurrena ospatzearekin batera, urte kultural oparo bat igaro dugun balantzea egin nahi genuke". Gaineratu du mota guztietako publikoari zuzendutako ekintzak antolatuko direla bertan.

Horri lotuta, datozen egunetan ere zenbait ekintza egongo dira. Alde batetik, bihar, egubakoitza,

## "BALORAZIOA POSITIBOA IZAN DADIN LAGUNDU DUTENEI ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIET"



Arzallus eta Colina bertsolariak, irekiera emanaldian. SPALOA13

## "URTE KULTURAL OPAROA IZAN DUGUN BALORAZIOA EGIN NAHIKU NUKE 2017KO GABONETAN"

umeendako jolasak, papiroflexia, harriak margotzea, eta abar egongo dira, 17:30etik aurrera. Bestetik, zapatuan, Txalainak taldearen –Hertzainak taldearen bertsio akustikoa– kontzertua egongo da, 19:30ean. Azken hori doan izango da, aurrerantzean eskainiko diren kontzertu gehienak bezalaxe. "Hilabetean behin kontzertu nagusi bat egitea da asmoa, eta horrek sarrera izango du. Baina beste guztiak doan izango dira", azpimarratu du Ulaziak. Horrekin lotuta, webgunea osatzen dihardutela ere gaineratu du. "Sarrerak Internetez erosi ahal izateko, herri-tarrak informatzeko eta beste hainbat gauzatarako erabiliko dugu webgunea".

### Jatetxea eta taberna

Taberna egunero irekitzen dute dagoeneko, goizeko hamaiketan.

"Oraingoz, egunero irekiko dugu, proba modura, eta daukan erantzunaren arabera, horrela jarraituko dugu edo aldaketaren bat egingo dugu", onartu du kudeatzaileak.

Jatetxe zerbitzuari dagokionez, urtarrilaren bukaeran edo otsailaren hasieran irekiko dutela adierazi du kudeatzaile berriak. Hala ere, jatetxearen formatua zein izango den zehaztu gabe daukate oraindik. "Sukaldari bat kontratatu nahian gabilitza buru-belarri, baina oraindik ez dugu lortu. Bestalde, oraindik zein motatako jatetxea izango den ez dakigu, sukaldariaren arabera izango da hori. Baina, seguruenik, erretegi bat izango da", azaldu du Ulaziak. Jatetxeak izango dituen ordu-tegiak ere zehaztu gabe dituzte.

### Udalarekin elkarlana

Hiru hilean behin udalarekin batzartzea adostu du kudeatzaile berriak, koordinatuta eta elkarlanean aritu daitezela. "Ea datorren astetik aurrera batzoko aukerarik daukagun, buru-belarri martxan jarri eta benetako antzoki baten kultur plan-gintza eduki ahal izateko".



LZ

## 'Kalera, kalera' ekimena, plazan

Urtezahar egunean elkarretaratzea egin zuten 60 herritarrek Elgetako Mendizaleen plazan. *Kalera, kalera* dinamikarekin bat egin eta euskal presoak sakabanaketa eta urrutze politika salatuz zituzten *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean. Bestalde, domekarako, gudarien omenezko urteroko igoera dago deituta, Intxortara. Hitzordua, 11:00etan, tontorrean.



Pilota txapelketako sari banaketa Urtezahar egunean. LZ



Herritar taldea Intxortan Kantsatzekeren Eguberri eguneko irteeran. KANTSATZEKE

## Gabonetan kirolzaleak sasoian

Urtezahar egunean jokaturako pilota txapelketako finalean Haritz Gallastegik eta Oskar Askasibarrek jantzi zuten txapela nagusietan eta Andoni Elorzak eta Oskar Sarasuak gazteetan. Eguberri egunarekin Kantsatzekeri mendi taldeak antolatutako irteerak, berri, harrera ona izan zuten. Herritar talde politikak egin zuten bat Intxortako puntan.

# Belaunaldien topaleku izango da parke gorria

Jolaserako eta eserita egoteko txokoak izango ditu Etxaluzeko parke eraberrituak. Saskibaloirako saskirik ez da aurreikusten, baina aukera ez dago erabat itxita. Parke azpiko garajeak iragazgaiztu egingo dituzte. Udaberrian hasiko dituzte lanak


## Oihana Elortza OÑATI

Etxaluze parkearen itxura zeharo aldatuko da udarako. Eraberritu egingo dute eta gunek zein materialak ezberdinak izango dira gero.

Ainhoa Negeruela, Lierni Altube eta Naiara Otaegi arkitektoek egindako proiektua da. Hirigintza ikuspegitik "proiektu berri-tzailea eta freskoa" dela esan dute udal arduradunek. "Uste dut bete-betea asmatu dutela. Lasai egoteko txokoak egongo dira eta eserlekuak eta jolaserako gunek ere bai. Parkea, gainera, konektatuta egongo da goiko espaloiarekin, Bidaurreta aldera dagoenarekin, eta pasabide batek zeharkatuko du. Belaunaldi ezberdinen arteko harremanak bermatzeko asmoa duen gunea izango da", azaldu du Mikel Biain alkateak. Era berean, materialen hautaketa modu berezian zaindu dute. Asfaltzoko ibilbideak, egurrezko eserlekuak eta zoru-gunak eta belarra erabiliko dituzte. Egungo belardiak eta zuhaitzak babestea eta gehitzea izan da proiektuaren beste abiapuntu bat.

## Azpiko garajeak

Parkea eraberritzearekin batera, iragazgaiztu egingo dituzte azpian dauden garajeak. "Mar-



Parkeak izango duen itxura. OÑATIKO UDALA

txoan hasi ginen garajeen jabeekideekin harremanetan. Impermeabilizatzeko lanak euren ordainduko dituzte; jabetza partearen arabera kuota ordain-

duko du bakoitzak eta kapa horretatik gorako lanak, udalak", argitu du Biainek.

Lurralde antolaketaren barruan 2017ean egingo dituzten lanetako bat da parke honen eraberritzea. 280.000 euroko aurrekontua du eta udaberrian hasiko dituzte lanak. Obrak egingo dituen enpresak hiru hilabeteko epea izango du lanak bukatzeko.

Historikoki kirola egiteko gunea ere izan da Etxaluzeko parkea; saskibaloian jokatzeko saskiak eta futboleko aritzeko ateak egon dira. Baina kirol izaera galdu egingo du gero. Proiektuak ez ditu horrelako elementuak aurreikusten, baina bizilagunei horren gainean galdetuko zaie aipatu du alkateak, eta jartze-ko aukera ez dagoela baztertuta.



Bilboko manifestazioarekin bat egin duten hainbat oñatiar. OÑATIKO SARE

## Presoen eta iheslarien egoera salatzen diren zapatuan

Herritarrekin egindako bideoa erakutsiko du Oñatik Sarek gaztelekuan. Bilborako txartelak salgai daude

### O.E. OÑATI

Ekitaldia eta hilaren 14an Bilbon egingo den manifestaziora joateko deialdia egingo du zapatuan Oñatik Sarek. Ekitaldia parte-hartzailea izango dela aurreratu dute. "Erakutsiko dugu bideo bat non oñatiarrak agertzen diren presoen eta iheslarien egoerari buruz berba egiten. Bakoitzak kontatzen du gai hori nola ulertzen edo bizitzen duen. Antzerki kutsua duen beste bideo bat ere ikusiko dugu, eta, horrez gain, bertsoetan ere arituko gara, adibidez", dio Sareko kide Mikel Kortabarriak.

Gaztelekuan izango da ekitaldia, zapatuan, 13:00etan, eta herri osora zabaldu dute parte hartzeko deialdia. Amaieran talde argazki erraldoia ateratu gura dute.

### Salgai

Urtarrilaren 14an Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusak ere antolatu dituzte eta txartelak salgai daude dagoeneko. Kiku eta Gereta ardotegiaren tartean dagoen lokalean dituzte txartelak salgai. Hauxe da ordutegia: 11:30etik 13:30era eta 19:00etatik 21:00etara.

## Urtarrilaren 10ean hasiko dira entseguak Aratusteetarako

Otsailaren 25ean ospatuko dira aurtengo Aratusteak eta dagoeneko hasi dira egun horretako festa prestatzen.

Herriko kaleak kolorez eta umorez bete gura dituzte egun horretan eta entseguen hasiko dira laster. Urtarrilaren 10ean, datorren martitzenean, izango da lehen entsegu eguna. Oñatz dantza taldeak Errekalden duen lokalean izango dira entseguak martitzenetan (20:00etan) eta zapatuetan (12:00etan).

Dantzan egin gura ez duenak ere izango du parte hartzeko aukera eta 16 urtetik gorako herritar guztiei egin diete gonbidapena antolatzaileek.

## Belar ukenduak eta irratsaioak nola egin erakutsiko dute

Kultura sailak urtero antolatzen dituen eskularen ikastaroen barruan, sendabellarrena hasiko da urtarrilean. Nerea Altuna eta Idurre Aranguren izango dira irakasleak. Eguenetan izango dira eskolak, 17:00etatik 19:00etara, eta izena kultura etxean eman behar da urtarrilaren 13a aurretik. Hileko prezioa 25,5 euro da. Kosmetika naturala egiten ere ikasiko da.

Bestalde, irrati ikastaroa eskainiko du Oñati Irratiak. Hango esatari Miren Urkiolak emango ditu eskolak, egubakoitzetan, 17:00etatik 19:00etara, eta hamabi ordu izango dira guztira. Izena toki eta epe berean eman behar dira.



Etxaluzeko parkea gaur egun. MIREIA BIKUÑA



Txinparta Bertso Eskolako kideak. MIREN ARREGI

# Txinparta Bertso Eskola izango da aurrerantzean

Oñatiko Bertso Eskolak izen eta irudi berria du, Jose Mari Agirrebengoa *Txinparta* zenaren omenez eta oroimenez; bertso eskolaren sorreran orduko kultur teknikari zenak egin zuen lana goraiatu gura izan dute horrela

## E.A./M.A. OÑATI

Oñatiko Bertso Eskolak izen berria izango du aurrerantzean: Txinparta Bertso Eskola.

Legeak hala eskatuta, elkarte moduan eratu behar izan du bertso eskolak, eta, ondorioz, izen bat asmatu beharra zegoen. Ez dute zalantzarik izan: "Jose Mari ekarpen handia egin zion bertso eskolari eta beharrezkoa zen hari bere izena ipintzea", adierazi du Isidro San Migelek, bertso eskolako sortzaileetako batek.

1983an sortu zuten Oñatin bertso eskola. Isidro eta Xabier San Migel, Benito Barrena, Emilio Urzelai eta Jose Mari Agirrebengoa *Txinparta* zena aritu ziren jardun horretan: "Txinpartak kultur etxean lan egiten zuten eta hura zen prestatuen zegoena bertso eskola sortzeko egin behar ziren lanak, idazlanak, eta abar egiteko. Gurekin batera hasi zen eta lan borobila egin zuen bertso eskolaren inguruan", dio San Migelek.

Aipatutako boskoteari Daniel Agirre batu zitzaion bizpahiru urtera eta guztien artean lortu zuten aurten 34 urte beteko dituen bertso eskolaren oinarri sendoak ezartzea. Kultur etxean elkartzen hasi ziren. Bat-batekoan aritzeak prestaketa gehiago eskatzen zuela-eta, baserriarren elkartearen batzen hasi ziren ondoren.

Esandako moduan, bertso eskolari Txinparta izena ipinita, eskolaren sorreretan kultur teknikari zen Jose Mari Agirrebengoa zena omendu gura izan dute.

Edozelan ere, hura goraiatzeaz gain, gainontzeko sortzaileen lana ez dute ahaztu gura izan: "Horrenbesteko errekonozimendua merezi dute gainerakoek ere; Isidro, Xabierrek, Benitok, Emiliok eta Danielek ere bai", adierazi du Iñaki Olalde bertso eskolako kideak.

**'TXINPARTA' OMENDU NAHI IZAN DUTE, BAINA GAINONTZEKO SORTZAILEAK AHAZTU GABE**

zimidua merezi dute gainerakoek ere; Isidro, Xabierrek, Benitok, Emiliok eta Danielek ere bai", adierazi du Iñaki Olalde bertso eskolako kideak.

## Irudi berria

Izen berriarekin batera irudia ere sortu dute, Mirari Sagarzazu bertso eskolako kideak eginitako irudia, hain zuzen. "Sua sortzeko txinparta behar da, eta, bertsoa sortzerakoan hasierako txinparta hori baldin baduzu, ondorengo guztia errazagoa da", adierazi du Sagarzazuk.

## Gaur, bertso saioa

Urteroko ohiturari jarraituz, bertso saioa egongo da gaur, eguena, Zubikoa kiroldegian. Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Sustrai Colina, Sebastian Lizaso, Andoni Goitia eta Urko Arregi arituko dira bertan. Sarrerak 10 balioko du -16 urtez azpikoendako 8 euro-. Bertso eskolaren irudi berria bertso saioan bertan aurkeztuko dute.

## 'Txantxakale' gala egingo dugu urtarrilaren 7an, zapatua

Izenak berak ondo adierazten duen moduan, kalean grabatutako txantxak izango dira galaren ardatza

### Goiena komunitatea

Irazan Antzerki Taldea / OÑATI

Azken boladan famatua egiten ari den ereduari jarraituz, kamera ezkutuaren bidez txantxak grabatu ditugu, herritarrei eginitako txantxak. Hain zuzen ere, txantxa horiek izango dira zapatuko galan Santa Ana Antzokian ikusi ahal izango ditugunak, 22:30etatik aurrera.

Helburua ondo pasatzea izan da, egoera xelebreetan herritarrek nola erreazionatzen ikusiz eta, beti ere, errespetuz jokatu.

Txantxa horietaz gain, antzerki taldekook grabatu ditugun esketxak eta beste zenbait sorpresa ere ikusi ahal izango dituzte bertaratutakoek. Gainera, ikusleen artean, zozketa bat ere egingo dugu.

Zapatuko gala oso dinamikoa, interesgarria eta dibertigarria izango dela seguru gaude eta



Irazan taldeko kideetako batzuk. A.T.

horregatik, bertaratzeko gonbitea egiten diegu herritarrei.

## Sarrerak

Txokolateixia dendan eta Oñatiko gaztelekuan daude salgai sarrerak, 3 eurotan.

## Egitarau zabala asteburuan Antixena Gaztetxean

Asteburuan zehar, kontzertuez gain, haurrendako ekintzak ere egongo dira Antixena Gaztetxean.

Gaur, eguena, Sumision City Blues talde gasteiztarrek disko berria aurkeztuko du, 22:00etan. Sarrera doan izango da.

Urtarrilaren 7an, zapatua, Guardia Zebeer Fest jaialdia egongo da, 22:00etan. Bertan, Pornox talde lekeitiarra, Sof

Kaos talde antsoaindarra eta Frenetik talde andoaindarra arituko dira, hurrenez hurren. Sarrerak 3 euro balioko du, momentuan bertan ordainduta.

Azkenik, haurrek ere izango dute ondo pasatzeko aukera. Izan ere, Irrien Lagunak taldearen eskutik, *DJ Martinbertso eta Ane Pirata* haur ikuskizuna egongo da urtarrilaren 8an, domeka, 17:00etan. Sarrerak aurrez egongo dira salgai Kiku gozoki dendan eta gaztelekuan, bost eurotan.

## 'II. Gabonen aurkako karrikaldixa' izeneko emanaldia, zapatuan

Urtarrilaren 7an, zapatua, *II. Gabonen aurkako karrikaldixa* emanaldia izango da plazako pilotaleku ondoko Berdura azokan, 17:00etan hasita.

Lokuria, Issuna, Gaupasion, Holy Nuns, Paniko!, Gaitze eta Total Arse taldeek eskainiko dute kontzertua, arratsalde guztian zehar. Sarrera doan izango da.

## Mutriku hartuko du Azkoagainen Aloña Mendik, domekan

Denboraldi hasiera zail baten ostean, pixkanaka gorantz doa Gotzon Urzelai zuzentzen duen taldea. Azkeneko bost partiduetatik lau irabazi ostean, bolada onari eutsi gura diote oñatiarrek, eta, horretarako, sailkapeneko goiko postuetan dagoen Mutriku taldeari egin beharko diote aurre domekan, Azkoagainen, 16:30ean.

# Lau karroza aterako dira arratsaldeko desfilean

Lehen hiruretan Errege mago bana joango da eta laugarrenean, "komertzio txikiak herria bizirik mantentzeko duten garrantzia" erakutsiko du Txandak; Ganbara abesbatzak ere parte hartuko du. Desfilea 17:30ean abiatuko da Kale Zaharretik

## Oihana Elortza OÑATI

Iazko esperientzia "ona" izan zela-eta, aurten ere Txandak antolatu du gaur arratsaldean egingo den Errege magoen desfilea. "Lau karroza aterako dira. Lokal handi batean ditugu denak sartuta eta bezperan aparteko lana egitea tokatuko zaigu, azken detaileak lotzeko, baina gogotsu gaude", dio Juan Carlos Aranburuk, Txanda elkartearen presidentea.

Lehen hiru karrozetan Errege magoak joango dira. Dekoratuak berri eta txukundu egingo dituzte, baina "ahal den guztia aprobetxatuz". Laugarrena, baina, erabat berria izango da. "Hor

gura dugu erakutsi komertzio txikiak oso garrantzitsuak direla herria bizirik mantentzeko, herriko parte direla. Bi etxe bloke agertuko dira. Baten beheko solairuan zabalik dauden komertzioak agertuko dira, apaindutako erakusleihoekin eta argiekin. Bigarrenean, berriz, itxita egongo dira komertzio horiek, argi barik, pertsianak jaitsita", azaldu du Aranburuk.

## Sorpresa

Beste berrikuntza bat ere egongo da gaurko desfilean: Ganbara abesbatzak emanaldia egingo duela aurreratu du Aranburuk: "Errege magoak udaletzeko oso-

ko bilkuren aretoan izango dira umeei harrera egiten. Ilara handia egiten da eta plazan dauden guraso eta umeen egonaldia arintzeko egingo du Ganbarak emanaldia. Plazako kioskoan izango da, 19:30ean".

Desfilea 17:30ean abiatuko da kale Zaharretik. Sietevientos bidegurutza helduz, Santa Marinara joango da, Portu kaletik barrena. Maria Errasti kaletik Etxaluzera iritsiko da eta Kale Barrian behera eginez helduko da Foruen plazara. Hiru Errege magoek piztutako zuziekin joango diren laguntzaileak izango dituzte ondoan une oro. 70 lagunek hartuko dute parte.

# Oñatik 18 milioi euro pasako aurrekontua du 2017rako

Abenduko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin

## O.E. OÑATI

Oñatik 2017rako izango duen aurrekontua onartu zuen abenduaren 22an hango udalbatzak, hiru ordu iraun zuen osoko bilkuran. Udal Gobernuan dagoen EH Bildu taldeak 18 milioi pasako (18.386.811 euro) aurrekontua aurkeztu zuen eta zinegotzi bakoitzak atalez atal azaldu zuen sail bakoitzean egiteko asmoa duten proiektuak. EAJ alderdiak ere horrela erantzun zuen, atalez atal, euren proposamenak zeintzuk izan diren azalduaz. Luze eztabaidatu ondoren, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin onartu zen.

Aurtengoa baino %7,53 txikiago izango da Oñatik 2017an izango duen aurrekontua. Ezaugarrien artean, inbertsioan jaitsiera aipatu behar da: %30,40ko jaitsiera izango du. "Arrazoia da ekipamendu sozialetarako partida bat zegoela jarrita, 926.000 eurokoa etxe tutelatuaren inbertsiorako. Orain gizarte zerbitzuetako garapen mapa egingo da. Talde bat sortu da lan hori egiteko bailara mailan eta egoki ikusi dugu azterketa hori egin bitartean partida hori atzeratzea", azaldu zuen

Mikel Biain alkateak. Hala ere, gastu soziala, orokorra, %2,46 igoko da. Aurten egingo diren egitasmoen artean daude: Olanar Paisaia proiektuaren barruan Eltzia parean egingo den aisialdi parkea, Olakua, Etxaluzeta eta Zubillaga auzoak eraberritzea, Oñatiko herri eragileen datu gida egitea, sormena eta ekintzailetasuna bultzatzeko gunea egitea eta herri curriculum indartzea.

## Oposizioa

Jeltzaleak haserretu egin ziren euren proposamenak "gutxi landutakoak" zirela adierazi zieten EH Bilduko ordezkariak. 37 proposamen egin zituztela adierazi zuen Lourdes Idoiaga jeltzaleen bozeramaileak eta horietatik "gutxi batzuk baino" ez zirela izan onartuak. 2017ko aurrekontuetan igerilekurako inbertsiorik ez dela jasotzen ikusteak ere izan zen kontra egoteko beste arrazoi bat jeltzaleendako, eta baita "2016ko exekuzioa baxua" izan dela. Hori berretsi eta aurrekontuei "anbizioa eta errealismoa falta" zaiela adierazi zuten jeltzaleek bilkura ostean bidalitako prentsa ohar bidez.

## Gabonetan ere egon da zer egin



Mari Domingi eta Olentzero. O.E.

**Ilusioa.** Mari Domingi eta Olentzero elkarrekin etorri dira aurten ere Oñatira. Ikustekoak izan dira ume askoren harridura aurpegiak, aho zabalik.



Oñatiko kirol sariak. L.K.

**Sariak.** Aurreko urteetan bezala aurten ere eman ditu urteko kirol sariak Oñatiko Udalak. Kirola egitea izaten da urte berrirako planetako bat.



Oñatiko Udal Musika Banda. O.E.

**Fidelak.** Herriko ospakizunekin bat egiten du herriko musika bandak eta Gabonetan ere aritu dira sasoiko kantuen doinuak jotzen.



Umeen jolas parkea. M.U.

**Jolasak.** Ume eta gaztetxoendako hitzordu finkoa izaten da Gabonetako jolas parkea. Igerilekuan ere ibili dira batzuk, ur azpiko altxorrek topatzen.

## Asertibitatea landuz hasiko dute Jabetze Eskola

Herriko emakumeen topagune izan gura duen eskolak lehen tailerra ipiniko du martxan. Gaurtik martxoaren 15era arte, asertibitatearen arlo ezberdinak landuko dituzte Pepa Borejoren gidaritzapean. Harremanetan asertiboak nola izan eta berdintasun eta tratatu oneko harremanak nola eraiki landuko dute hamar saiotan, Bidebarrietako Euskaldunberri aretoan.

Hurrengo jendaurrean berba egiten ikasteko tailerra izango da. Mirian Ocio izango da irakaslea eta egubakoitzetan eman go du, urtarrilaren 27an hasita. Izenak udal erregistroan edo udal webgunean eman daitezke.

## Historiaurrera bisita egingo dute zapatuan Arrikruzeko koban

Lehen gizakia nola eta norekin bizi zen jakiteko irteera egingo dute zapatuan Arrikruz-Oñati kobetan. Historiaurrera egingo dute bidaia horretarako, eta gizakia nola bizi zen, zer jaten zuen edo sua menperatzea zeinen garrantzitsua izan zen ezagutzeko bisita berezia egingo dute. Bisitaz gain tailerra ere egingo dute. 10:30ean izango da bisita berezi hori eta komeni da izena aurrez ematea 943 08 20 00 telefono zenbakian. Prezioa da lau euro pertsonako.

Bestalde, gaur, eguena, armarriz armarriz Oñatiko historia ezagutzeko jolasa egingo dute 12 eta 16 urte arteko gaztetxoek turismo bulegoan 10:30ean.



**TABIRAKO ONENA** Urtea hasterekin batera saskibaloï txapelketa egin dute Labegarietan. Durangoko Tabirako taldea izan da onena gizonetako eta emakumezkoetan. Bergara finalera sailkatu da mutiletan; argazkian, Aloña Mendikoen kontra. X.U.

# Gabonetan ez da egon kiroliek egin ez duenik

laz GOIENAK bi orri eskaini zizkion Gabonetan antolatutako kirol jardueren gaineko argazki errepassoari, baina aurten motz geratu da, hirugarren orri bat beharrezkoa izan da. Horren guztiaren atzean antolatzaileak daude, oporretan lanean ibili direnak

## Xabier Urzelai ARRASATE

Nahikoa lan Gabonetan izanda kirol hitzordu guztiak batzen, eta ez dira denak egongo –Aresko campusa 19. orrian aurkituko duzue, gaur oraindik jokatzeko dihardutelako–. Urtetik urtera hitzordu kopurua handituz doa, eta baita bertan parte hartzen duten debagoiendar kopurua ere, gazte zein heldu, gizonetako edo emakumezko.

Adierazgarria da urteko azken egunean hainbat herritan egindako San Silvestre lasterketetan zenbaterik egin duten korrika: Bergaran 300 lagun izan ziren, Oñatin 500 gazteak eta nagusiak batuta, Aretxabaletan 230 lagun eta Eskoriatzan beste 120 lagun. Egin batuketa.

## Antolatzaileei esker

Kiro hitzordu horietatik asko gazte federatuei zuzendutakoak izan dira; klubeko ordezkariak, atsedean hartzeko aprobeixatu barik, Gabonetan ere laneko buzoa jantzi eta Agorrosinen, Mojategin, Ibarren, Iturripen, Labegarietan, Zubikoan, Uarkapen edo Bergarako frontoian lanean ibili dira.

Baina, beste hitzordu asko herri ekimenak izan dira: San Silvestre probak, kuadrillen arteko txapelketak... Eta guztie-

tan ere, geroago eta emakumezko gehiago dabil parte hartzen. Ikusi erretratuak, bestela. Ez da urtea hasteko datu txarra.



**HOCKEYA LABEGARIETAN** Kategoria askotako hockey partiduak jokatu dituzte Labegarietan; erretratuan, gazte kuadrilla. I.BELOKI



**SANSILVESTREA** Xabier Luis eta Ane Zabala izan dira Oñatin azkarrenak. Ibarreko lasterketa jendetsuena izan da, 500 lagun gazte eta helduen artean. O.ELORZA



**TRAIL MODALITATEAN** San Silvestre Trail-en Juanjo Igarzabal eta Garazi Sanpedro izan dira azkarrenak; argazkian, Azpilleta baserriaren parean. X.U.



**MOZORROTUTA** Eskoriatzan –argazkian– eta Aretxabaletan mozorrotuta egin dute korrika askok. Eskoriatzan, gainera, brindisa egiten dute lehenengo. I.BELOKI



**BIGARREN EDIZIOA** Ia 230 lagunek hartu dute esku Aretxabaletako San Silvestre proban; gazte zein helduek batera egin zuten korrika. M.ALATUBE



**SAN ESTEBAN KROSA, BIGARRENEZ** Antzuolako lasterketak gazte eta heldu asko batu ditu. Nerea Baena eta Xabier Luis Urzelai izan dira helduetan onenak. X.GOROSTIDI



**HIRUKO SASKIBALOA** Bergarako frontoian abenduaren 28an jokaturako txapelketan, benjamin, alebin eta infantil mailetakoko 110 gazte ibili dira. J. IRIONDO



**BERGARA** Partidu dotoreekin borobildu dute Gabonetako txapelketa. Gainera, Beñat Rezusta izan da sariak banatzen. Bestalde, Bergaran jokatu duen Ander Murua arrasatearrak Gipuzkoako eskuz banakako txapela irabazi du. IÑIGO ZAITEGI



**BIXENTE ETXEANDIA TORNEOA** Lau eguneko txapelketan UDA eta Aloña Mendi izan dira garaile. Horrekin batera, baina, UDAko antolatzaileek balio hezitzaileak ere saritu dituzte. UDA KIROL ELKARTEA



**URTEARI ONGIETORRIA MENDIAN** Itxumendira –Gorla inguruan– igota eman diote hasiera urteari Bergarako Pol-Pol Mendizale Taldeko kideek: "Modu aproposa da urtea horrela hastea", diote elkarteko kideek. POL-POL



**ARETO FUTBOLA ANTZUOLAN** Gaztiak eta Jo Ta Ke taldeek irabazi dute 24 orduko txapelketa. Argazkian emakumezkoak saria jasotzen. ANTZUOLA KE



**REALA TXAPELDUN** Emakumezkoen Futbol Torneoa talde txuri-urdinak irabazi du. Argazkian, ibarreko selekzioko, Oiarzungo eta Realeko ordezkariak. ARIZMENDI



**OINTXE!** Arrasateko saskibaloiko taldeak Gabonetako gazte mailako ohiko txapelketa bertan behera utzi, eta harrobiko taldeei lekua egin die aurtan. Hiruko txapelketan 20 bat talde lehiatu ziren eta infantil mailakoan zortzi. OINTXE!



**HERRI MAILAKO SASKIBALOIA** Lehenengoz egin dute aurten Oñatin kuadrillen arteko saskibalo txapelketa; argazkian, finalera iritsi ziren emakumezkoen bi taldeak. Albok eta Makako taldeak izan dira irabazleak. ALOÑA MENDI



**EUSKAL SELEKZIOA NAGUSI** Arrasateko Gabon Sarian, Izarraitz Muñoz Aloña Mendik eta Errotabarrik ezin izan zuten selekzioko ordezkariekin. X.U.



**ARETO FUTBOLA MUKO** ikasle talde batek antolatuta egin dute Eskoriatzako 24 orduko txapelketa. Aldatz izan da talde onena. O.URRUTIA



**'TXELIS'-EN OMENEZKOA** Gipuzkoa eta Bizkaiko taldeetako –hamasei guztira– 250 gazte txapelketa jokatu dute urteko azken egunean futbol txapelketa; Realak izan da onena. Argazkian, finalera iritsi den Eibarren kontra galdu duen Mondra taldea. MONDRA FT.



**IGOR FERNANDEZEN OMENEZKOA** Alaves taldea izan da gazte mailako torneoko irabazlea. M.BIKUÑA



**PILOTA KOPA** Benjamin, alebin eta infantilen Debagoieneko txapelketak askorako eman du Uarkapen. J.B



**REALAREN TORNEOA** Mila haur inguru Gipuzkoako 12 futbol zelaitan elkartu dira, tartean Ibarren eta Agorrosinen, sailkatze fasea jokatzen. X.U.



**XAKEA** David Astasio izan da Arrasate Hiria Txapelketako onena. Alain Prieto izan zuen finalean aurrean. ARRASATE-ARLUTZ



**OMENALDIA** Gabonak entrenatzen jarraitzeko aprobetxatu dute hainbat atletak, eta taldekako txapelketa ere egin dute Mojategin. Hitzordu hori Eneko Carrascal atleta arrasatearra omentzeko aprobetxatu dute, Espainiako Txapelketan 2016an lau domina lortu izanagatik. ARRASATE ATLETIKO



lazko edizioko irabazleak. HUHEZINEMA

## Ibilbide luzea duten hiru lehiaketa abian dira

MUko Huhezi fakultateak antolatzen duen Huhezinema film laburren jaialdian parte hartzeko azken eguna otsailaren 16a da; eta datorren asterako bidali behar dira AEDren Jokin Zaitegi sariketarako lanak eta Jardunen amodiozko lehiaketakoak

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Euskal Herrian egindako film laburrak saritzen dituen hamargarren Huhezinema izango da aurtengoa. Beste jaialdi batzuetatik bereizten duena da unibertsitateko ikasketen barruan dagoela txertatuta; beraz, Iban del Campo irakasleak koordinatuta, ikasleek antolatzen duten jaialdia da.

**Ikasleen eta profesionalen lanak** Helburu bikoitza du jaialdiak: Huheziko ikasleek egiten dituzten lanak publiko aurrean aurkeztea, batetik; eta Euskal Herriko edozein zuzendarik egindako proiektu profesionalagoei edo anbizio handiagoarekin egindakoei ere tokia egitea, bestetik. "Sail ofizialean parte hartzen dutenek, gehienez, 30 mi-

nutuko iraupena duten filma aurkeztu beharko dute; euskaraz edo beste hizkuntza batean egindakoa izan daiteke; hala ere, euskarazkoak lehenesten ditugu, bereziki, sari potoloena den Goiena Sarian", azaldu du Iban del Campok, eta zera gaineratu du: "Sail ofizialean parte hartzeko ezinbesteko baldintza da zuzendaria Euskal Herrikoa izatea,

## Eguenean estreinatuko dute aurtengo Kooltur Ostegunak

Rockaren alderdi ezberdinak entzuteko aukera gehiago gaztetxean, 22:00etan; sarrerak bost euroren truke

**A. A. ARRASATE** Urtarrilerako eskaintza zabala egin dute Kooltur Ekimenak taldeko kideek. Gaur, eguena, ez dute kontzerturik egingo, eta datorren astean Zestoako Grises taldearen indie-rock doinuek

zabalduko dute egitaraua. "Sony multinazionalak fitxatu ditu eta Euskal Herritik kanpo ere ospea hartu dute; jaialdi askotan ari dira parte hartzen. Harribitxi bat", azaldu du Iker Barandiaran antolatzaileak.

### What A Band, hurrengoan

Bergarako eskarmentu handiko musikariek osatzen duten talde berriak diskoa aurkeztuko du urtarrilaren 19an. "Fiachras, Mahaster River eta bestelako taldeetan aritutako kideak dira, eta country-rocka dute odolean".

Gasteizko Sumision City Blues taldeak borobilduko du urtarri-leko eskaintza. Obligaciones, Joseba B. Lenoir Gang eta beste hainbat rock, blues eta jazz proiektutatik sortutakoa da. Diskoa aurkeztera datoz.



Grises taldea izango da eguenean Arrasateko gaztetxean. KOOLTUR OSTEGUNAK

### Amodiozko gutun lehiaketa

25. edizioa du Bergarako Jardun euskara elkarteak antolatzen duen lehiaketak. Urteurrena aitzakia hartuta, gutunak eta esaldiak jaso gura dituzte oraingoan.

Urtarrilaren 8a da gutunak bidaltzeko azken eguna, eta hilaren 26a, esaldietarako. "40 gutun eta hamabi esaldi jaso ditugu, oraingoz. Bergarako parte hartzaile kopurua igo egin da, eta, orokorrean, 26 urte azpiko gazte askok hartu dute parte. Bitxikeria moduan, esan behar da Ameriketako Estatu Batuetatik gutun bat eta bi esaldi jaso ditugula", diote antolatzaileek.

Errotalde jauregiko elkartearen bulegora bidal daitezke lanak, postaz, edo [amodiozkogutunak@gmail.com](mailto:amodiozkogutunak@gmail.com) helbidera.

### Jokin Zaitegi itzulpen sariketa

AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak -Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin- antolatu duten lehiaketan parte hartzeko epea urtarrilaren 9an amaitzen da. "Dei asko jaso ditugu sariketaz galdezka; interes handia sortu du Bob Dylanen abestiak itzultzeko proposamenak. Oraingoz, bi lan bakarrik jaso ditugu; hala ere, oinarrietan jasota dago, gutxieneko mailarik ez badute, beste itzultzaile bati eskatuko diogula lana egiteko", diote AEDekoek. [Elkarargitaletxea.com/jokinzaitegi](http://Elkarargitaletxea.com/jokinzaitegi) helbidean daude oinarriak.

Era berean, euskara elkarteak datozen asteotan aurkeztuko ditu 30. urtez egingo dituzten Arrasate Literatura Lehiaketak.

baina lanak aurrez beste lehiaketa batzuetan aurkeztutakoak edo saritutakoak izan daitezke; hala ere, 2016. urtean egindakoak lehenetsiko ditugu".

Aipatutako sailez gainera, orain dela hiru urte sortu zuten Basque Culinary saila ere badago: "Gastronomiari buruzko hiru minutuko film laburrak jasotzea da helburua. Sail horretan ere Euskal Herriko edozein zuzendarik har dezake parte. Sail ganberroagoa da. Interneten zabaltzeko bideo freskoak eta

umoretsuak biltzen ditugu horretan", dio koordinatzaileak.

### Otsailaren 16, azken eguna

Martxoan egingo dute jaialdia, eta mimoz ari dira antolatzen; parte hartzeko epea zabaldu duten arren, aurtengo jaialdiak izango duen irudia, leloa eta egitaraua prestatzen ari dira oraindik.

Lehiaketaren gaineko informazio zabalagoa [huhezinema-jaialdia.wordpress.com](http://huhezinema-jaialdia.wordpress.com) atarian eskura daitezke.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**  
(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)  
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**  
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**  
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**  
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**  
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**  
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65  
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**  
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**  
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe  
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**ALBERDI MIREIA**  
Bergara / Masterreka kalea 11, behe  
943 76 33 99 / 646 43 34 58

**LAURA ALUTIZ**  
Arrasate / Otalora, 18 solairu artea 687 97 69 76

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**  
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**  
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11  
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**  
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**  
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**  
Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**  
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**  
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**  
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**  
Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**  
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**  
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NUÑEZ TXOMIN**  
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**  
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

**SADHANA YOGA**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM

690 79 21 55

**SAMADHI YOGA**  
Bergara / Masterreka 13, behe  
943 76 11 38 / 639 23 57 53.





**BERGARA**  
**Gorkaa Domenech Iñarra**  
Urtarrilaren 8an, 12 urte. Zorionak, maitia, jadanik dozenara heldu zara. Onena opa dizugu. Belarritik tirakada handia eta muxu asko. Maite zaitugu.



**OÑATI**  
**Haizea Lopez Lasa**  
Urtarrilaren 7an, 8 urte. Dagoeneko 8 urte gure pixpirrinak. Zorionak eta ondo pasatu zure egunean, maite zaitugun denon partetik.



**ANTZUOLA**  
**Pello Gabilondo Olaortua**  
Urtarrilaren 7an, 5 urte. Zorionak, Pello! Jarraitu beti bezain alai izaten. Muxu handi bat, etxeko danon partetik!



**BERGARA**  
**Maialen Goikoetxea Blanco**  
Urtarrilaren 2an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Egun politta pasatu familia eta lagunekin. Patxo potoloa! Etxeko guztiok, bereziki, Danel eta Elene.



**BERGARA**  
**Manex Osa Arana**  
Urtarrilaren 1ean, 4 urte. Zorionak familiaren eta lagun guztien partetik, mutiko eder hori! Gozatu zure egunean! Askok maite zaitugu! Muxu potoloak.



**ARRASATE**  
**Ainhoa Arana**  
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Kintadako gazteenak berdindu gaitu! Bagoiaz danok aurrera! Ai ene... Ondo pasatu eguna!



**ARETXABALETA**  
**Fabri Garcia**  
Abenduaren 28an, 80 urte. Zorionak, amama Fabri! Ondo pasatu zure eguna. Denok elkarrekin ospatuko dugu. Maite zaitugu.



**OÑATI**  
**Nati Altube Arregi**  
Abenduaren 23an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Familia guztiaren partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa


Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## TXUTXU-MUTXUAK



### 1. 2016ari agur Atxorrotxen

Ohitura izan da Eskoriatzan urteari amaiera emateko Atxorrotx mendira igotzea abenduaren 31 goizean. Hala, 2016an ere horrela izan da; jende pila bat, kuadrilla ugari elkartu ziren tontorrean. Xanpain botilak, turroiak eta bestelako gozoak eraman zituzten.

### 2. 2017ari kaixo Udalatxen

Beste herri askotan bezala, Arrasaten ere badute mendira igotzeko ohitura urte berriari ongietorria egiteko. Eta aurten ere horrela izan da. Hara ere eraman zituzten Gabonetan jan eta edan ohi diren pattar eta pastelak. Urtean zehar ere hartu ditzala bisitariak Udalatxek.

### 3. 90 urtetik gorako arrasatearrak

90 urte edo gehiago dituzten 50 bat bazkide omendu zituen Arrasateko Abaroa erretiratuen elkarteak abenduaren 28an. Gabonetako produktuez osatutako opari bana jaso zuen bakoitzak. Omenduen artean Inaxi Llodio zegoen, aurten 100 urte egingo dituen emakume arrasatearra.

### 4. Felix eta M. Asun

Oñatiko Felix Azkunek eta M. Asun Aiastuik 40 urte beteko dute ezkondata urtarrilaren 5ean. "Zorionik beroenak eta musu handi bana, familia osoaren partetik eta, bereziki, zuen biloba Danelen, Unairen, Julenen eta Malenen partetik.

### 5. Oier eta Naiara

Naiara Olabarria eta Oier Amozarrain urtarrilaren 7an ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Zoriontsu izan eta jaso patxo handi bana!".

### 6. Antonia eta Dionisio

Antonia Gonzalezek eta Dionisio Moralesek 50 urte beteko dituzte ezkondata urtarrilaren 5ean. "Zorionak, familiako guztion partetik, eta urte askotarako! Askok maite zaituztegu!".

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

**ESKORIATZAKO SASKIBALOIKOEN IRUDIAK**

'Harmailatik' Astelehena, 22:00



GOIENA

**2016KO ALBISTE ESANGURATSUENEN ERREPASOA**

'Urtekaria 2016' Zapatua, 22:45

EGUBAKOITZA, 6	ZAPATUA, 7	DOMEKA, 8
09:00 Kantari 21	09:00 Kantari 21	09:00 Kantari 21
09:30 Platonic	09:30 Platonic	09:30 Platonic
10:00 Korapilo	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo
10:30 Kantari 22	10:30 Kantari 22	10:30 Kantari 22
10:30 Kantari 22	11:00 Debagoiena Zuzenean	11:00 Tripa zorri
11:00 Debagoiena Zuzenean	11:55 Astea iruditari	11:30 Urtekaria 2016
12:00 Kontzertua	12:00 Kontzertua	13:00 Amaia DJ
12:00 Kontzertua	13:30 Amaia DJ	13:30 Kontzertua
14:00 Amaia DJ	14:00 Harmailatik	15:00 28 klip
14:30 Debagoiena Zuzenean	14:30 Debagoiena Zuzenean	15:30 Korapilo
14:30 Ikuskizuna: 'Garden'	15:25 Astea iruditari	16:00 Platonic
16:15 'Oientzero & Co'	15:30 28 klip	16:30 Kantari 21
18:00 Amaia DJ	16:00 Platonic	17:00 Korapilo
18:30 Kontzertua	16:30 Kantari 22	17:30 Urtekaria 2016
20:00 Kantari 21	17:00 Korapilo	19:10 Bizi musika 5
20:30 Amaia DJ	17:30 Bizi musika 5	19:45 Amaia DJ
21:00 Urtekaria	18:00 Amaia DJ	20:15 Kontzertua
22:30 Ikuskizuna: 'Garden'	18:30 Kontzertua	21:45 Debagoiena zuzenean
00:15 Amaia DJ	20:00 Kantari 21	22:55 Astea iruditari
	20:30 Amaia DJ	
	21:00 Ikuskizuna: 'Garden'	
	22:45 Urtekaria 2016	

ASTELEHENA, 9

**BEHERAPENI BURUZKO ERREPORTAJEA BAILARAKO DENDARIEKIN**

**ARRASATEKO XAKE JOKALARIEN BELAUNALDI BERRIAK**

'Debagoiena Zuzenean' Astelehena, 20:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
Edo eskaneatu aidameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 11



GOIENA

**EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK**

'Berriak' Eguaztena, 14:30

EGUENA, 12

**PROTAGONISTEKIN ELKARRIZKETA**

'Debagoiena Zuzenean' Eguena, 20:00

ESKER ONA

**Jesus Uribesalgo Irazola**



2016ko abenduaren 29an hil zen, 83 urte zituela.

Lerro hauen bidez Jesusen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 5ean.

ESKER ONA

**Juan Mari Azkarraga-Urizar Iribekanos**



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 5ean.

ESKER ONA

**Maria Luisa Belategui Crucelaegui**



Jesus Antonio Urmeneta 'Xolonpo'-ren alarguna

2016ko abenduaren 28an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, familiaren izenean.

*Gure bihotzeko amama betiko itxi dituzu begiak zure hitzak, aholko eta irrifarxoa goxo ta leunak guztiak zuk utzitako hutsune latzak hain dira mingarriak hainbeste maite zintugunon partez besarkada ugariak.*

Bergaran, 2017ko urtarrilaren 5ean.

ESKER ONA

**Isabel Belar Olabarria**



2016ko abenduaren 16an hil zen, 102 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

*Laino handiak baztertuz eta beti bidearen bila. Mende bat igaro eta aurrera gorputz txikitxo, bihotz haundi gantxiloarekin abila familian beti alai, langile hitzun eta xume. Gurekin betirako ama, amama eta birramama Ixabel.*

Bergaran, 2017ko urtarrilaren 5ean.

ESKER ONA

**Anjel Osa Unamuno**



2016ko abenduaren 21ean hil zen, 86 urte zituela.

Lerro hauen bidez Anjelen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran (Elorregi), 2017ko urtarrilaren 5ean.

ESKER ONA

**Margarita Urkia Ugarte**



2017ko urtarrilaren 2an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Besarkada bana bihotz-bihotzez, familiaren izenean.

*Jaio zinenetik azkeneraino eman diguzu dena Agur Ugastegiko lorerik ederrena.*

Oñatin, 2017ko urtarrilaren 5ean.

ESKER ONA

**Simon Telleria Gabilondo**



2016ko abenduaren 30ean hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2017ko urtarrilaren 5ean.

URTEURRENA

**Fernando Iglesias Martinez**



2016ko urtarrilaren 1ean hil zen, 80 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 8an, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeako amaren parrokian.

*Sentimendu bat soilik da pena pozak mendeen daukana, zoragarria izan delako zu ezagutu izana.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2017ko urtarrilaren 5ean.

OROIGARRIA

**Juan Mari Azkarraga-Urizar Iribekanos** 

*Gogorra izango da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizitzen garen artean ez zaitugu, ez, ahaztuko.*

Zure alaba eta ilobak: Maider, Aitor, Leire, Iker, Itziar, Ainhoa, Ibai, Maialen, Haizea eta Oihana.

Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 5ean.

OROIGARRIA

 **Juan Mari Azkarraga-Urizar Iribekanos** 

*Urte Berri hasieran bapatean gu izoztu, Juan Mariren bihotz ona betirako bai lokartu. Lagunen lagun zintzoa ixil da apal agertu, geure barren-barrenean betirako zu geratu.*

Zure kuadrillakoak, bihotz-bihotzez. Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 5ean.

OROIGARRIA


 **Juan Mari Azkarraga-Urizar Iribekanos** 

Udal Euskaltegiko irakasle Amaia Aranaren senarra

Etzekoen saminarekin bat egiten dugu.

Amaiaren lankideak. Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 5ean.

OROIGARRIA

**Jesus Mari Lasaga Arriaran** 

2017ko urtarrilaren 1ean hil zen, 57 urte zituela.

*Umoretsu, alai eta irriar batekin ahoan, oinak dantzarako eta eskuak lanerako beti prest. Etxeok horrela gogoratuko zaitugu. Betirako gurekin.*

Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 5ean.

OROIGARRIA

**Jesus Mari Lasaga Arriaran** 



2017ko urtarrilaren 1ean hil zen, 57 urte zituela.

*Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.*

 ERKOP

Erkop Taldea. Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 5ean.


OROIGARRIA

 **Jesus Mari Lasaga Arriaran** 

Roberto Lasaga zinegotziaren anaia

2017ko urtarrilaren 1ean hil zen, 57 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

 ARAMAIOKO UDALA ARABA

Aramaio Udala. Aramaion, 2017ko urtarrilaren 5ean.

OROIGARRIA

**Pili Otxoa Ugalde** 

2017ko urtarrilaren 2an hil zen, 67 urte zituela.

*Zure indarra, ura, eta irria, argia izan dira ernaitzen hasi den hazi honetan. Beti izango zaitugu gogoan Ereindajan elkarteko zure kide eta lagunok.*



Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 5ean.

OROIGARRIA

**Pili Otxoa Ugalde** 

2017ko urtarrilaren 2an hil zen, 67 urte zituela.

*Eskerrik asko emandako guztiagatik.*

Garaziren kuadrilla. Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 5ean.

OROIGARRIA

**Pili Otxoa Ugalde** 

Arizmendi Ikastolako andereño izandakoa

2017ko urtarrilaren 2an hil zen, 67 urte zituela.

*Har beza familiak gure atsekabe-mina.*

 arizmendi ikastola

Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz bailaran, 2017ko urtarrilaren 5ean.

URTEURRENA

**Jose Maria Lete Lizarralde** 

2016ko urtarrilaren 29an hil zen, 92 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

*Zure oroimenak indartzen gaitu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2017ko urtarrilaren 5ean.

OROIGARRIA

**Daniel Irizar Pardina** 

Ziortza Martin lankidearen aitagarreba

2016ko abenduaren 31n hil zen, 73 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

 goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea. Bergaran, 2017ko urtarrilaren 5ean.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55  
BERGARA

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



GOIENA

## OÑATI Errege bezperako bertso saioa

Oñatiko bertso eskolak gidatutako saioa, Andoni Egañarekin, Urko Arregirekin, Ohiana Iguaranekin, Andoni Goitiarekin, Sustrai Colinarekin eta Sebastian Lizasorekin. Sarrerak, Txokolateixan, hamar eurotan. *Gaur, egubakoitza, Zubikoa kiroldegian, 22:30ean.*



OLIVER MAGOA

## BERGARA Oliver magoa

*Balio magikoak* delako ikuskizuna egingo du umeendako eta gurasoendako. "Familia osoarendako" emanaldia dela dio protagonistak. Sarrerak leihatilan, lau eurotan.

*Etzi, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.*

## EGUENA 5

### OÑATI 'Oñati ezagutu jolasten' ginkana

6 eta 12 urte artekoendako. Herriko historia ezagutzeko jolasa egingo dute. Informazio gehiago: 943 78 34 53 edo [turismo@onati.eus](mailto:turismo@onati.eus). *Turismo bulegoan, 10:30ean.*

### BERGARA Bizarzuri

Haurren gutunak jasoko ditu udaletxearen atarian eta ostean txokolate-jana egingo dute. *Aipatutako lekuan, 17:00etan.*

### BERGARA Ipuin kontaketa

Umeendako saioa. *Elosuko pilotalekuan, 17:00etan.*

### OÑATI Sumision City Blues taldea

Blusean, folkean, countryan eta rockean maisuki mugitzen den taldea da. Gasteiztarrek *Hay un plan trazado desde arriba que se llama...* Sumision City Blues diskoa aurkezteko biraren lehen kontzertua egingo dute. *Antixenan, 22:00etan.*

### OÑATI Dominikar Errepublika argazkietan

Tania Juanen erakusketan, Dominikar Errepublikan azukre industriaren inguruan sorturiko Bateye izeneko landa komunitateetan biztanleek bizi duten errealitatea islatzen da hainbat argazkietan. *Kultura etxean, 18:00etan.*

## EGUBAKOITZA 6

### OÑATI Musika Bandaren kalejira eta kontzertua

Errege eguneko emanaldiak. *Oñatiko kaleetan eta Santa Anan, 11:00etan.*

### ELGETA Gaztetxoaren pilota txapelketa, finalak

Sari banaketa ekitaldia ere egingo dute. *Pilotalekuan, 11:30ean.*

### ELGETA Errege eguna

Umeendako jolasak, papiroflexia, harriak margotzea, opariak eta sorpresak egongo dira. *Espaloian, 17:30ean.*

### OÑATI Areto futbol txapelketa

24 orduko areto futbol txapelketa jokatuko dute, gaur eta bihar, *Kalera, kalera* ekimenaren eskutik. *Zubikoan, 18:00etan.*

### ARETXABALETA Vietcong 68 taldea

Gipuzkoako herri ezberdinetako kidez osaturiko punk-rock taldea da. Doako emanaldia. *Haizea tabernan, 19:30ean.*

## ZAPATUA 7

### ELGETA Barakaldoko haur parkera irteera

Gabonetako haur parkean pasako dute eguna gaztetxoek. *Mendizaleen plazan, 09:00etan.*

### ANTZUOLA Antzuolako 8 Miliak

Gaur zabaltzen da izena emateko epea. Interesatuak [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) atarian eman behar dute izena. 240 dortsal banatuko dituzte. Lasterketa otsailaren 19an egingo dute. *Izen-ematea, aipatutako lekuan.*

### OÑATI 'Historiaurrera bidaia'

Bisita berezia eta tailerra. Informazio gehiago eta izen-ematea: 943-08 20 00 telefonoa edo [turismo@onati.eus](mailto:turismo@onati.eus) helbidea. *Arrikutzen, 10:30ean.*

**OÑATI Lokuria, Gaupasion, Issuna, Holy Nuns, Paniko, Gaitze eta Totar Arse taldeak** II. Gabonen aurkako *karrikaldixa* ospatuko da. Sarrera, zehaztu barik. *Merkatu plazan, 17:00etan.*

### ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra

Gazta tarta egiten ikasiko dute. Gaztetxoendako ekintza. *Gaztelekuan, 17:30ean.*

### OÑATI 'Oñatiarrok ere salatzen dugu'

Ekitaldia eta argazkia. *Gaztelekuan, 19:30ean.*

### ELGETA Txalainak taldea

Hertzainak taldearen tributu akustikoa egiten duen taldea. *Espaloian, 19:30ean.*

**OÑATI 'Txantxakale' gala** Irazankide gazteek txantxak egin eta grabatu dituzte Oñatiko

kaleetan. Txantxa horiek proiektatzeaz gain, sorpresa ugari apainduko da gala. Sarrerak hiru eurotan, Txokolateixan eta gaztelekuan. *Santa Anan, 22:30ean.*

### OÑATI Pornox, Sofokaos eta Frenetik taldeak

Guardia Zibeer jaialdia. Punka eta rocka izango dira protagonista. Sarrerak, hiru euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

## DOMEKA 8

### ELGETA Igoera Intxortara, gudarien omenez

Elorrioko plazatik abiatuko da talde bat 09:00etan, eta 11:00etarako elkartzeko dira tontorrean. Luntxa, ekitaldia eta argazkia egingo dituzte. *Intxortan, 11:00etan.*

### OÑATI Santa Klara Ermandadearen batzarra

Bidaurreta egingo dute, 12:30eko elizkizuna bukatu ostean. *Bidaurretan, aipatutako orduan.*

### BERGARA Sukaldaritza begetarianoa

Mireia Alberdi nutrizionistaren eskutik. Aurrez eman behar da izena [bergarakogaztetxia@gmail.com](mailto:bergarakogaztetxia@gmail.com) helbidean. Kozinatetik harago, zainketaz, trikimailuez, asteko antolatetaz, gozamenaz eta, batez ere, eguneroko praktikaz egingo dute berba. *Gaztetxean, 16:00etan.*

### OÑATI Irrien Lagunak

Sarrerak salgai daude Kiku gozoki-dendan eta gaztelekuan, hiru eurotan. *Antixenan, 17:00etan.*

### BERGARA Taila elkarteko erakusketa

Gaur da lanak ikusteko azken eguna. *Zabalotegi aretoan / 18:00etan.*

### ESKORIATZA Pelikula emanaldia

Gaztetxoendako ekintza. *Gaztelekuan, 18:00etan.*

### BERGARA 'Ikimilikiliklik, J.A. Artzeren unibertsoa' erakusketa

Soinuaren eta irudiaren bitartez, Artzeren unibertso poetikoan zehar zentzumenek gidatutako bidaia egingen azken eguna gaur da. *Laboratoriumen.*

## ASTELEHENA 9

### OÑATI Irratigintza ikastaroa

Gaur zabaltzen da izena emateko epea, kultura etxean edo [irratia@onati.eus](mailto:irratia@onati.eus) helbidean, urtarillaren 13ra arte. 12 orduko ikastaroa izango da, 14 urtetik gorakoendako, egubakoitzetan, 17:00etan. *Izen-ematea, aipatutako lekuetan.*

### OÑATI Sendabelarren ikastaroa

Gaur zabaltzen da izena emateko behin-behineko epea, kultura etxean edo [kultura.idazkaritza@onati.eus](mailto:kultura.idazkaritza@onati.eus) helbidean. *Izen-ematea, aipatutako lekuetan.*



GOIENA

**DEBAGOIENA Errege magoen desfilea**

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege magoak herririk herri ibiliko dira. Umeei gozokiak eta opariak banatzen. Informazio gehiago herrietako orrietan. *Gaur, eguena, herririk herri, ordu ezberdinetan.*

**ARETXABAETA Gu Hasiak Gara taldearen erakusketa**

Euren lanak ikusgai gaurtik hilaren 30era arte; besteak beste, musika eskolarendako bederatzi gona, Kurtzebarrendako 60 gona-gorria eta hamabi azpiko-gona, eta txotxongiloak. *Arkupen, 18:00etan.*

**OÑATI Gaztelekua itxita**

Argiteria aldatzeko lanak egiteko. *Itxita egongo da.*

**MARTITZENA 10****OÑATI Atxorrotzeko dokumentala**

*Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik* delako dokumentalaren aurkezpen ekitaldia egingo dute, Beñi Agirrek eta Jose Luis Orellak. *Ibarraundin, 18:00etan.*

**OÑATI Literatura solasaldia**

Ruber Arias moderatzailearekin Thomas Bernharden *El origen* liburuaren gaineko solasaldia egingo dute, gaztelaraz. *Liburutegian, 18:30ean.*

**OÑATI Aratusteetako entseguak**

Otsailaren 25eko Aratuste herrikoiko entsegua. *Errekaldeko lokalean, 20:00etan.*

**ARRASATE Zinekluba:****'Paterson'**

Jim Jarmusch zuzendariaren azken lana. *Amaia antzokian, 20:30ean.*

**EGUAZTENA 11****ESKORIATZA 'Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik'**

Dokumentala ikusteko aukera bikoitza egongo da: 11:00etan eta 13:00etan. *Ibarraundin, aipatutako orduetan.*

**BERGARA Baserritarren azoka**

Herriko baserritarren produktiak eta garaioak erosteko aukera *Oxirondon, 18:00etan.*

**OÑATI Asertibitate eta gaztaka konponketa tailerra**

Emakumeendako Jabetze Eskolaren lehen tailerraren lehen saioa egingo dute. Pepa Bojo Ballester izango da irakaslea. Harremanetan, elkar eragitean, asertiboak nola izan landuko dute. *Euskaldunberri aretoan, 18:15ean.*

**BERGARA Zinekluba: 'El caso Fischer'**

Edward Zwick zuzendariaren azken lana. Munduko xake txapelketa hizpide duen pelikula. Tobey Maguire, Michael Stuhlbarg eta Peter Sarsgaard dira protagonista nagusiak. Sarrerak, hiru euro. *Zabalotegin, 20:00etan.*

**EGUENA 12****ESKORIATZA 'Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik'**

Dokumentala ikusteko aukerak 11:00etan eta 13:00etan. 1200.

urteko gaztelarren konkistaren aurreko Gipuzkoaren eraketa azaltzea da dokumentalaren funtsa. *Ibarraundin, aipatutako orduetan.*

**ESKORIATZA Literatura solasaldia**

Ruben Arias koordinatzailearekin, Carson McCullersen *Frankie y la boda* liburuari buruzko tertulia egingo dute, gaztelaraz. Izena emateko edo informazioa eskatzeko 943-71 31 35 telefonoa. *Liburutegian, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Atxorrotz.****Arlabango igarobidean urrea eta odola' erakusketa**

80 bat elementu egongo daude ikusgai erakusketa monografiko honetan: armak eta apaingarriak daude. Besteak bestea, Antxo VII. aren arrano beltzaren zigilua. *Ibarraundin, 18:00etan.*

**OÑATI Zinekluba: 'Calle Cloverfield 10'**

Dan Trachtenberg zuzendariaren azken lana. Mary Elizabeth Winstead, John Goodman, John Gallagher Jr. dira protagonista nagusiak. *Kultura etxean, 20:00etan.*

**ARRASATE Grises taldea**

Koaltur Ostegunak ekimeneko kontzertua. Zestoako taldeak indie-rock musika egiten du eta besapean dakar 2016an grabatutako *Erlo* lana. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

**ZINEMA****ARRASATE****AMAI ANTZOKIA**

**Assasins creed**  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Ribbit**

Zapatua eta domeka: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA**

**El editor de libros**  
Egubakoitza eta domeka: 19:30, 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Axel, heroi txikia**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR****COLISEO**

**Mine**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.  
Domeka: 20:00.

**Passengers**  
Egubakoitza: 20:00.  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00.  
Astelehena: 20:30.

**Comancheria**  
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:00.

**¡Canta!**  
Egubakoitza: 20:00.  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.

**Mine**  
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**¡Canta!**  
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:00.

**Comancheria**

Egubakoitza: 20:00.  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ****FLORIDA**

**¡Canta!**  
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:20, 17:00.  
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Silencio**  
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:15, 21:30.  
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:15.

**Monster truck**  
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 18:30, 20:30, 22:30.  
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Vaiana**  
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:25.

**Contratiempo**  
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.

**Trolls**  
Egubakoitzetik domekara: 12:00.

**Assasins creed**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Passengers**  
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:10.  
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.  
Martitzena: 17:30.

**Rogue one**  
Egubakoitzetik eguenera: 19:45.

**Comancheria**  
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.  
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Frantz**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**Los inocentes**  
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

**BOULEVARD**

**De-mentes criminales**  
Egubakoitzetik eguenera: 18:35, 20:40, 22:45.

**Monster trucks**  
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 17:55, 20:05.  
Astelehenetik eguenera: 17:10, 19:30.

**Contratiempo**  
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.  
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**Silencio**  
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:50, 21:55.  
Astelehenetik eguenera: 18:15, 21:30.

**Passengers**  
Egubakoitzetik domekara: 16:00, 18:30, 19:30, 21:00, 22:10.  
Astelehenetik eguenera: 18:30, 19:30, 21:00, 22:10.

**Passengers 3D**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

**Rogue one**  
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 19:15, 20:30, 22:00.  
Zapatua: 16:30, 22:00.  
Egubakoitza eta zapatua: 23:15.  
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:40, 20:30, 22:20.

**Mine**  
Egubakoitzetik domekara: 16:20.

**Assasins creed**  
Egubakoitzetik eguenera: 17:15, 19:45, 22:15.

**Hasta el ultimo hombre**  
Egubakoitzetik domekara: 22:15.

**Villaviciosa de al lado**  
Egubakoitzetik domekara: 21:15.

**Zapatua: 22:40.**  
Egubakoitza eta zapatua: 23:15.  
Astelehenetik eguenera: 21:30.

**¡Canta!**  
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:15.  
Zapatua: 16:15m 19:15.  
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:00, 19:15, 20:15.

**Belleza oculta**  
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**Vaiana**  
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:10.  
Astelehenetik eguenera: 18:10.



Passengers pelikulako fotograma. FOTOGRAMAS



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

## Trakatan, trakatan

Olentzero joan zaigu mendira lanera eta, trakatan, trakatan, badatoz hiru errege. Urtero errepikatzen den zikloa betez, sartu-irtena egin eta etorri diren bide beretik itzuliko dira. Ohitura da ere, azken hamarkadetan behintzat Arrasaten, ikazkinaren desfilea talde batek antolatzea eta erregeena beste talde batek. Udalak, berriz, lagundu egiten du, gehiago edo gutxiago faktore ezberdinen arabera. Hori ikasi dugu adin bat daukagunok eta pentsaezina egiten zaigu beste modu batean izatea.

Hala ere, bestelako paradigmatik badaude. Arrasateko tamaina duen Kataluniako herri batean, adibidez, Elizatik urrun dagoen erakunde baten esku dago errege-desfilea: Candidatura d'Unitat Popular (CUP) alderdiaren inguruko elkarte baten esku, hain zuzen. Gainera, azkenaldian udaletxea konpontzen ari direnez, elkarrearen egoitzan amaitzen da ibilbidea eta bertako balkoitik hitz egiten du hirukoak. Hori bai, urte ona opatzeko diskurtsoak dira.

Kideetako bati galdetu nion nolatan antolatzen duten beraiek "Cavalcada de Reis". Harritu zion galderak, baina erantzun zidan: herriaren ohitura bat delako.

Urte berri on!

BUKATZEKO



Txikon eta Uribealago —ezkerretik bigarrena eta hirugarrena— eta laguntzaile taldea. MIKEL URIBESALGO

# Alex Txikonen laguntzaile bergararra

Mikel Uribealago eskalatzailea Everesteko kanpamendu nagusira bidean dago Alex Txikoni neguko balentria berrian laguntzen. Debagoieneko eskalatzaileei esker bildutako materiala darama, bertako eskalatzaile eskolari bultzadatxo emateko

**Xabi Gorostidi** BERGARA

*Ibra* ezizenez ezagunagoa den eskalatzaile sutsua da Mikel Uribealago 34 urteko bergararra. Ogibidez suhiltzailea da, eta Oñatiko lankide baten bitartez ezagutu zuen Alex Txikon himalaista lemoarra.

"Alex Araotzera joaten zen eskalatzera, eta nire anaiaren lankide batek aurkeztu zituen.

Bizpahiru urte dela ezagutzen dute elkar eta oso erlazio ona izan dute", azaldu du Xabi Uribealagok, Mikelen anaiak.

Esperientzia berria izango da Uribealagorentzat; izan ere, aurretik, Yosemite, Patagonian eta Marokon egon izan da bertako paretak eskalatzeko, baina Himalaia bezalako altueretan lehen aldian izango da.



Uribealago eta Txikon. MIKEL URIBESALGO

Kanpamendu nagusian denbora luzea emango dute; aklimatatzen lehenik, eta eguraldi baldintzak egokiak izateko zain ondoren. Horrelako kasuetan, elkarbizitza ona izatea garrantzitsua izan ohi da, eta hori izan da Txikonek Mikel aukeratzeko arrazoietako bat. "Nire anaiak ez du altueran esperientziarik. Baina horrelako espedizioetan seriotasuna alde batera utzi eta deskonektatzeko beharra izaten da eta hori izan daiteke nire anaia aukeratzeko arrazoietako bat. Egia esan, Alex eta bera pirata samarrak dira", azaldu Xabi Uribealagok.

**Bi helburu dituen bidaiak**

Txikonek historian inork egin ez duen balentria bat gauzatzea du helburu: Everest neguan lehen aldiz igotzea oxigeno botilen laguntzarik gabe. "Nire anaia Alexi laguntzeko joan da. Kanpamendu nagusitik 6.500 metro ingurura dagoen kanpamendu nagusira heltzeko sokak eta eskaierak prestatzen lagunduko dio, baina ez da hortik gora igoko".

Baina Uribealagok badauka beste helburu solidario bat. Everesteko kanpamendu nagusitik gertu, mendi-gidarien eskola bat dago. Bertan eskalada bide berriak zabaltzeko asmoz doa, baina, batez ere, eskolakoak eskaladarako materialarekin hornitzea du helburu. Horretarako, Debagoieneko eskalatzaileei bere plana azaldu, eta haiek borondatez emandako materiala jaso du bertara eramateko.

"Alex oso pertsona solidarioa da, eta nire anaiaren egitasmoa bera aukeratzeko beste arrazoietako bat izan da".

Etxeko txikientzako  
marrazkiak, jolasak...  
Puntua aldizkariarekin astero

2017an, *Puntua* aldizkarian, txikientzako jolasak, marrazkiak eta halako edukiak jasoko dira astero, *Handitzen*, *handitzen* atalean.

2017an *Puntua* etxean jaso nahi baduzu, egin zaitetz Goiena Klubeko bazkide. 55 euro dira bakarrik eta beste hainbat abantaila izango dituzu: zozketan parte hartzeko aukera, deskontua...

Deitu: 943 25 05 05



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!